



ANTONIO ZAVALA

**KRISTAUBIDEA
BERTSOTAN**

|

**KRISTAUBIDEA
BERTSOTAN**

I

AUSPOA LIBURUTEGIA

174

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa Maria, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

**KRISTAUBIDEA
BERTSOTAN
I**

AUSPOA LIBURUTEGIA
1984

Azalean: Asteasu'ko erria.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)
Fotokonposatzaile: Lente – Estella
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-117-5 (obra completa)
ISBN 84-7158-118-3 (tomo I)
Depósito Legal: NA. 1.068-1984

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
(1828) «Milla zortzi eun eta ogei ta zortzi urte...»	11
Bertso Berriak pekatu kapitalen gañian jarriak	17
(1849) Bertso Berriak: «Zortzi eun da berrogei eta bederatzi...»	27
(1850) Bertso Berriak: «Para bear nituzke zenbait bertso berri...» .	33
(1851) Gurutze Santu Lezo'koaren bederatziurreneko gozoak	39
(1854) Gurutze Santu Legazpia'- koari bertso berriak	47
(1855) Bertso Berriak: «Bizio gaizto bat degu kodizia...»	57
(1862) Euskal Erriko lenengo obis- po jaunaren etorrerako	65
(1863) Bertso Berriak: «Bertso berri batzuek aurten ditut jarri...»	71
(1866) Bertso Berriak amar manda- mentu santuen gañean	79

(1868) Bertso Berriak: «Bertso berri- yak jartzera nua...»	93
Bertso Berriyak Jesusen Pasioa- ren gañean	99
Bertso Berriak: «Kanta batzuek orain bear ditut para...»	111
Bertso Berriak: «Enpeñatzera noa alegin guziaz...»	117
Bertso Berriak: «Abuztuko illaren emezortzigarrena...»	125
Bertso Berriak: «Gauza baten gañian noa itz egitera...»	133
Zeruko gloriaren kantak	139
Bertso Berriyak: «Formatu biar ditut zenbait bertso berri...»	149
Bertso Berriak eternidadearen gañean jarriak	155

ITZAURREA

«Euskaldun fededun» esan oi zan garai batean. Gaur esaera orrek lengo indarrrik ez badu ere, orain urte batzuk ori egi-egia zanik ez du iñork ukatuko.

Au ola izanik, fedearen egiai buruz jarritako bertsoak mordo galanta osatuko zutela, edozeñek pentsa zezakean.

Bertso-sail oiek gaur eskeintzen dizkioguz irakurleai, bi liburutan.

Bañan orain baño len ere, olako bertso asko ditugu argitara emanak. Bat edo beste, *Auspoa*'ren ale danetan edo geienetan arkituko du irakurleak. Izan ere, nekez arkituko da, orain arteko bertsolarietan, olako saillik paratu ez duanik.

Bilduma ontan, egillearen izenik gabeak agertzen ditugu. Edo-ta, egille ezaguna bada, sail bakarra-edo jarri zuana.

Ama Birjiñari buruz moldatutako sailak beste baterako utzi ditugu, mordo galanta osatzen baitute.

Berdin egin degu santuen bizitzak kon-tatzen dizkuguten bertsoekin. Oiek ere, asko baitira, leku berezia eskatzen dute.

Ta gauza bera esan diteke Gabon edo Eguberri-kantuengatik.

Mugaz arunzko bertsorik ere ez degu bilduma ontan sartzen.

Mixioetako bertsoak, berriz, argitaratu berriak ditugu.

Gure aurrekoen kristautasunaren aitoren dira bertso auek. Atsegingarri izan ditzala opa diogu irakurleari.

[1828]

«IL BEAR NUELA USTE...»

- 1/ Milla zortzi eun eta
ogei ta zortzi urte,
ostegun gizen arratsa
*señaladamente*¹
ill bear nuela uste
nuen derrepente,
Jaunak biziya eman dit
esperatu gabe.

- 2/ Egiya bat nai nuke
jendiari esan:
Gaztelu'ko zuluan
zer pasa zaitaran;
irago bañan aisago
kontatzen det orañ,
Jaunak berriz alako gabik
ez dizadala eman.

¹ Esku-idaztian: *señala mente*.

3/ Orru egiten zuen
mendiyak gogotik,
geroz ezin atera da
au nere burutik;
ni aurrian nintzan ta
mutilla ondotik,
laster joateko etzen
enkargu bearrik.

4/ Berari ematen diozkat
millaka graziyak,
ez dirade sobratuko
oriyek guziyak;
ni ere eriotzaz
nengoen etsiya,
esperatzen ez dedala
laja dit biziya.

5/ Eskutik artu eta
ez eramatekotan,
alderdi oberika
ez daiteke eman;
biar baño geiago
ez nuke nai esan,
gu eskapatzekotan
Jesus bara an zan.²

² Esku-idaztian onela dago. Ez dakit gramatikaz nola beariko luken: *Jesusen bada an zan edo Jesus bera an zan.*

6/ Esana dago «eriyuak
ditu begiyak gorri»,
aldera arrimatua
izan degu ori;
nonbait ez nintzan egon
santuarentzat garbi,
zerbait iragotzen zait
gau orretan niri.

7/ Azken judiziyua
ez izatekotan,
gau tristeagorika
ez daiteke eman;
aingeru guardakua,
izandu dezu lan,
gu ezin libratu
estazio ontan.

8/ Kristabak nondik bear du
ainbeste balore?
Gu ta geiago ere
arriturik daude;
Jaungoikoak egiñik
bear ainbat fabore,
aren graziyarekin
eskapatu gerare.

9/ Jauna, nere bekatuai
merezi bazaie,
ez naiz espantatutzen,
eman geiago're;
ofenditutzen zaitut
zuk merezi gabe,
argatik ez naiz pagatzen
bertan ilta ere.

10/ Nik mereziyagatik
kentzea biziya,
Jaunaren piedadia
izandu da aundiya;
ezpananguen ere
Arentzat garbiya,
ongi konformatzea
orra eman graziya.

11/ Gure artian iltzia
zer pasatutzen den,
ongi pensatu bearra
badaukagu emen,
denbora laburra ta
estua zeren den,
argatik bear den gauzaz
ez gera akordatzen.

12/ Aurretik bear genduke
ongi prebenitu,
relijiosoetatik
ala dut aditu:
erremedio onak
Jesusek baditu,
gure animak nola
zerura korritu.

13/ Segitu bear diogu
bide eder oni,
aingeru guardakua
degula giyari;
erregutu dizaiogun
guziok berari,
ordu on bat azerta
dizagula guri.

14/ Orra, bekadoria,
nere enkargua,
ez da bada betiko
guretzat mundua;
Jaunak dakarrenian
azkeneko ordua,
egon brebenituak
joateko zerura.

Amalau bertso auek, Oiartzun'go Manuel Lekuona apaiz jaunaren bildumatik ditugu. Eskuz idatzita daude. Lenengo bertsoak urtea ematen digu: 1828. Papera ere ordukoa izango da, idazkerak-eta aditzera ematen dutenez.

Bertsoen azpian firma bat: M.^a Josefa de Sein. Baiñan bertsoen jartzallea ez da; kopiatzallea bai. Oiartzun'goa zan emakume ori, eta bertso auek, beste zenbaitekin batera, bertako etxe batean arkitu zituan Don Manuelek.

Lenengo bost bertsoetan esaten denez, ezbearren bat gertatzen zaio saillaren jartzalleari, eta il-etsiraiño etortzen da. Baiñan onik atera eta gertaera orrek Jaungoikoarengana sortu dizkion sentimentuak agertzen dizkigu.

Damurik, ezbear ori zer izan zan ez du adierazten. Baiñan nun gertatu zaion bigarren bertsoak esaten du: Gaztelu'ko zulu. Gaztelu izeneko baserria Oiartzun'go Ergoin'en dago. Erreka-zulo batean ain zuzen, Arditurri'ko bidean. Gaztelu ori izango da.

Paperak ez du izenbururik; ezta *Bertso Berriak* ere. Orain daukana, guk ezarria da, lenengo bertsoetik artuta.

BERTSO BERRIAK
PEKATU KAPITALEN GAÑIAN JARRIAK

- 1/ Pekatu kapitalen gañean
orañ jartzen naiz kantatzen,
nere kapazidade pobrean
ez baldin banaiz erratzen;
saiatuko naiz al dan moldean
ni aditzera ematen,
 bañon lenago
 orretarako
graziya bat det eskatzen.
- 2/ Argitu bada, argitu, arren,
zuk, Espiritu Santuba,
zure graziyen premiyan dagoen
nere entendimentuba,
ateratzeko bertatikanen
desiatzen dan frutuba;
 zure doaiak
 ain dira gaiak,
o amodiyo altuba.

- 3/ Doai oriyez baliyaturik
eman dezadan sarrera,
biziyoaki kontra egiñik
bizi gaitean aurrera;
birtuteaki begiraturik
gobernatutzen bagera,
dudarik ez du,
deituko gaitu
Jesusek bere aldera.
- 4/ Gure animen enfermedade
guziyen iturburubak,
zazpi biziyo obek dirade,
zeñak gauzkaten galdubak;
guziyak edo geienak gaude
gai otan konprenditubak,
oriyez kaso
munduban asko
gaitz okin enfermatubak.
- 5/ Biziyo gaizto oriyetatik
soberbiya da nagusi,
desterraturik zerubetatik
gure artean da bizi,
bera dan bañon andiyagorik
ez dubela nai ikusi;
al dan moldeaz
umildadeaz
egiñ biar zaio igesi.

- 6/ Esango nuke umildadea,
mundu guziyen aurrean,
dala birtute pare gabea
zeruban eta lurrean;
Luzifer gaizto doakabea
errebelatu zanean,
arma onekin
bakarrarekin
botatu zuten oinpean.
- 7/ Bigarrena da abariziya,
maliziyakin betea;
beretzat nai du gorde guziya
naiz projimoak kaltea;
besarkatzen du idolatriya,
zer appetitu tristeia;
desterra bedi
desorden ori,
ez badegu nai galtzea.
- 8/ Biziyo ori desterratzeko
egiñ bear dan promesa:
al dan maizena imitatzeko
projimoaren pobreza;
premiyan dana sokorritzeko
usatu bedi largeza,
beste biderik
ez da firmerik,
txur denak ori ar beza.

- 9/ Lujuriya da irugarrena,
gusto desordenatuba,
biziyo ortan emana dena
dago zerubaz aztuba;
ezagutzeko bide zuzena
memoriya du nastuba,
loien erdiyan
torpez andiyan
dauka entendimentuba.
- 10/ Libratutzeko torpezetatik
kastidadea billatu,
alde egiñaz okasiyotik
gorputza mortifikatu;
oraindañoko flakezakgatik
barkaziyoa eskatu,
biyotz osotik,
bere eskutik
ez gaitzan bada lajatu.
- 11/ Laugarrenian enbidiyakiñ
gure projimo laguna
ekusten degu damuarekiñ,
suertez badu fortuna;
kontrara berriz atsegiñakiñ
eldu bazaio makurra,
diabruba bera
imitatzera
prokuratutzen degula.

12/ Desorden ori niri deritzat
kalte probetxu gabea,
dañurik baizen ez du beretzat,
non zera, karidadea?
Ar gaizto ori beñ iltzekotzat
izan biar dezu gurea,
zu zeralako
elkarganako
amodiyoen bidea.

13/ Bostgarrenian daukagu gula
bere jan edan sobrakiñ.
arrazoia txit galtzen digula
askotan gabiltz onekiñ,
animaliyak dirudigula
Jaunaren imajinakiñ;
begira ongi
biziyo oni
zer gaitzak dauzkan berekiñ.

14/ Biziyo orren desordenakiñ
kontuban bizi gaitean,
gubernatubaz tenplantzarekiñ
munduban geran artean,
partikularki edanarekin
kuidado andi batean;
onetan daude
gaitzera gabe
asko gizonen kaltean.

15/ Seigarrenean zein ote gare
irarengandik libratzen?
Ofentsatubak baldin bagaude
nola diogu barkatzen?
Gure koleraz aspertu gabe
projimoari bengatzen;
 saiatu arren
 aurrera emen
mansotasun bat billatzen.

16/ Mansedunbreak ez du irarik
projimoaren aldera,
ez eta aren mobimenturik,
bengantzagandik libre da;
kolerarentzat ez du beldurrik,
bere buruben jabe da;
 a, birtutea,
 gure tristea,
zu gabe bizi bagera!

17/ Zazpigarrena nagitasuna,
desdix anitzen zurtzaia,
animo txar bat askok deguna
birtuteaken etsaia;
biziyoaken putzu illuna,
gaiztakerien ibaia,
 diabruaren
 maizter tristien
zori gaiztozko zelaia.

18/ Laja bear dute alferkeriyak
galdu baño len orretan,
aitor dezagun emen guziyak
beti gaudela zorretan;
egiñ detzagun delijentziyak
Jaungoikoaren obretan,
 animo artu,
 ez deskuidatu
 instante labur onetan.

19/ Nere jendiak, bizi geraño
eleiza militantian,
destierroa biar degu irago
betiko gerra batian;
persegitubak ezin geiago,
gure etsaien artian,
 egon biar erne,
 garaitu gabe,
beti armaken gañian.

20/ Ate guziyak ondo itxirik
firme egongo dirade,
birtutiaken armaz jantzirik
prebenitubak bagaude;
biktoriya bat irabazirik
zuzen juango gerade
 zeruetara,
 deskantsatzera
 ango gloriyan fin gabe.

21/ Orain esan dan irabaziya
izanik gauza andiya,
gureztat dauka Jaunak guziya
gaitezen beraz baliya;
digula bada bere graziya,
konbeni zaigun argiya,
bizi gaitian
beti beti an
gozatzen Aren gloriya.

Bertso auen argitaraldirik zaarrena bi tokitan arkitu degu: Chicago'n, Bonaparte'ren bilduman, eta Azpeitia'n, Jose Maria Garmendia'ren paperetan.

Moldiztegi-izenik ez du bertso-paper orrek, eta izenbururik ere ez. Ezta *Bertso Berriak* ere. Or goien ezarri deguna, beste argitaraldi batetik artua degu. Argitaraldi orrezaz, gero mintzatuko gera.

Ez dira auek bertso baldarrak. Bañan meriturik edo baliorik aundiena metrika aldetik dute. Kantatu, edozein zortziko aundiren doñuz egin ditezke. Baiñan puntuak oso era berezian banatuta dauzka.

Zortzikoak, bai txikiak eta bai nagusiak, lau puntu besterik ez du izaten. Puntu oiek, 2, 4, 6 eta 8'garren lerroetan. Bertso auek, berriz, oietaz gaiñera, beste iru puntu dauzka 1, 3 eta 5'garren lerroetan. Eta zazpigarren lerroa, bi erdi eginda dago, eta erdi bakoitzean puntu bana.

Alegia, bertso auen egitura iduri batez azaltzeko, puntuak silabak dirala eta muturreko letrak puntuak, onako grafiko au egingo litzake:

.....A
.....B
.....A
.....B
.....A
.....B
.....D
.....D
.....B

Orain artean ez degu bertso-mota arri-garri au beste inun arkitu.

Antzekoena, bearbada, Aita Basterretxea'k bere Jesusen Pasioaren poeman erabili zuana izango da.

Damurik, bertsolariaren izenik etzaigu esaten. Izkera, gipuzkoeratik napparrazten asia da. Bearbada, Oiartzun'dik aruntzagokoa da; Irun aldekoa-edo. Eta garai artakoa eta inguru orretakoa izateko, etzaigu, guri beintzat, izenik batere bururatzten.

Bertso auen beste argitaraldi bat, *Donostian: Juan Osés-en moldizteguien* inprentatu zan. Loiola'n, Aita Arana'ren bilduman arkitu genduan.

Tankera berriagoa du paper onek. Eta eskuren bat ere ibilli da fonetismoak aldatzen eta itzak gramatikatzen.

Izenburua, leen esan bezela, aurreko paperak batere ez eta onek duana idatzi degu saillaren buruan. Izenburuaren azpian, berriz, onela dago eskuz idatzita: (1879-1880) 9 puntukoa. Ikusten denez, Aita Arana ori edo beste norbait oartu zan bertso auen metrika bereziaz. Bederatzi puntu bai, baiñan ez guziak berdiñak. Orregatik, bederatzi puntuko bertsoa eta onako au oso ezberdiñak dira...

Gaiñontzeko aldaketak: 2/3: zure graziyen premiyan dago; 2/5: ateratzeko bertatik emen; 3/3: biziyuai kontra egiñik; 3/5: birtutiai begiraturik; 4/3: zazpi biziyo oiek dirade; 4/9: gaiz oiki enfermatuak; 9/5: gogoratzeko bide zuzena; 11/1: seigarrenian enbidiyakin; 12/2: kate probetxu gabia; 13/8: biziyo orri; 14/7: onetan gaude; 15/1: Laugarrenian zeñ ote gera; 15/4: nola diyogun barkatzen; 17/2: anitz desditxen sustraia; 17/3: animo txar bat aski deguna; 20/2: firme egongo gerade; 20/3: birtutiaken irmoz jantzirik.

Aldaketa batzuen sustraia, bertsoen ordena beste onela dagoala: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 15, 16, 13, 14, 11, 12, 17, 18, 19, 20 eta 21'garrena.

(1849)

BERTSO BERRIAK
GUSTUBA DUBENAK KANTATZEKO
JARRIAK

1/ Zortzi eun da berrogei
eta bederatzi
Kriston urteak dira,
milla bat lenbizi;
ejenplo egoki bat
nai det erakutsi:
gurasoak umea
zer modutan azi.

2/ Orra prinzipiyotik
nola bear dan asi:
sujeziyo aundiyan
dotrina erakutsi;
okerrako bidera
ez beñere utzi,
bestela ekarko dute
errespetu gutxi.

- 3/ Naiz dirala galaiak,
orobat da damak,
kuidatu bear dituzte
aita eta amak;
bietan bat badira
mundutikan juanak,
obligaziyua du
presentian danak.
- 4/ Zenbaiten arrazoiak
aditzen ditugu:
«Umeak txit gaiztoak
atera zaizkigu».
Ez eman balitzaie
bear ainbat kastigu,
flojo bizitu dira,
obra da testigu.
- 5/ Izanagatik aurrak
biyotzetik maite,
ordenaren konforme
kastigatu fuerte;
ez badira ezitzen
gazte diran arte,
gero guziyentzako
etorko da kalte.

6/ Umeak ezpadira
korrejitzen ongi,
gertatuko dirade
maldadeak aundi;
orretan kuidadua
bear da ipiñi,
sobera barkatzia
etzaie konbeni.

7/ Landaretatik ongi
giatzen den planta,
beti estimatuba
zuzena izan ta;
gero eziñ moldatu
denbora juanta,
orra zeñ okerra den
kuidaduen falta.

8/ Ezin ejenplo onik
eman umeari,
eder etsi ezkeru
lasakeriyari;
ortatik eldu dira
makurrak ugari,
zer obligaziyo den
konsidera bedi.

- 9/ Gurasoak zer daukan obligaziyoa, zuzen esplikatzea nere deseia: ejenplo onak eta maiz oraziyoa, auxen da gaztian bear dan leziyoa.
- 10/ Ai, bada, gurasoak, egizute kontu, kausa grabea dala sinistea artu; dotrina erakustea kuidado bada aztu, zabarkeriyak ezer gauz onikan eztu.
- 11/ Flojedadetik ezin gauz onikan izan, saiatu kunplitzera konbeni dan gisan; dijuakiyon guziyak entenditu ditzan, gogoko sentiduak orra bada esan.

12/ Orain paratu ditut
dozena bat kopla,
birtutearen alde,
maldadean kontra;
ofenditu bada iñor
aditzen egonta,
kristau katolikotzat
ez diteke konta.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Bonaparte'ren bilduman azaldua. Egillea-
ren izenik ez da ageri. Urtea, lenengo
bertsoak esaten digu.

Laugarren bertsoa, *Zapirain anaiak* libu-
ruan ere argitara eman genduan: *Auspoa*,
123-4-5, 16-17'garren orri-aldeetan. Joxe
Zapirain'en amak askotan kantatzen omen
zuan. Doñua ere ematen genduan. Antxe
arkituko du irakurleak.

Laugarren bertsoa, Irun'en jaio eta Pla-
zentzia'n bizitu zan Andres Exenarro *Urze-
lai* zanaren bilduman ere arkitu degu. Al-
daketa bakarra: 4/7: lasai bizitu gera.

Eta ondoren, beste bertso au:

Guraso lasaiaren
kriantzaren faltan,
orra umiak zernai
ikusteko plantan;
ederki ematen zuen
zure alabak plazan,
kamisarikan ez ta
mutillakin dantzan.

(1850)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Para bear nituzke
zenbait bertso berri,
zerurako bidian
al bagindez jarri;
Eskritura sagraduan
leitzen zaigu garbi
lagunduko zaiola
saiatzen denari,
artarako grazia
eskatu Jaunari.

- 2/ Malpekado bagera
zenbait bekatari,
mundo ontan txur dena
gonbertitu bedi;
Jaunaren ministruak
esaten dute ori,
nola eztakigula
ilko gera sarri,
deskuidorikan gabe
lenbailen etorri.

- 3/ Gaitzikan deseatu
bear ezta iñori,
lajaturikan bizi
kondiziyua oni;
zeruko aingerubak
deika daude guri,
iduki dezagula
anima au garbi,
ikasi nai badegu
gloriyaren berri.
- 4/ Eskerrakin graziyak
ematen Jaunari,
mundukoak guziyak
bear degu ari;
kontrarik egin gabe
zarren esanari,
barkaziyua eskatu
aita eta amari,
etzaio damutuko
umilla denari.
- 5/ Librubak ematen du
egiya klaruan,
munduan bizitzeko
gu deboziyuan;
iñon ere ez gaude
toki seguruban,
beti tentaziyotan
etsaia inguruban,
ari alde egin bear
sartzeko zeruban.

- 6/ Mundo ontan bagera
 zenbait kriatura,
 malpekado jarriyak
 sobra bekatura;
 iya, nere kristabak,
 al bagindez muda,
 emen ez degu ordu
 batere segura,
 deskuidatutzen dena
 juango da infernura.
- 7/ Sinistuagatikan ¹
 fedeko dotrina,
 etsaiak ematen du
 gaitzerako griña;
 denbora jua ondotik
 izain dugu miña,
 erremediya ezin
 lengo utsegiña,
 gure faltakgatikan
 erretzen anima.
- 8/ Erregu dezaiogun
 guk beti Jesusi,
 etsaiaren artetik
 gabiltzan igesi;
 kostunbre txar guziyak
 bear ginduzke utzi,
 animaren kontuba
 goguan iduki,
 gero izango ezta
 batere urriki.

¹ Bertso-paperak: *sinistuagatik*.


- 9/ Beregan ar dezagun
konfiantza aundiya,
esamiña ondo egin,
konfesatu egiya;
munduban pasatzen da
zenbait pikardiya,
Jesus, izantzu gutaz
miserikordiya,
alkantzatu dezagun
zeruko gloriya.
- 10/ Separa okasiyotik
iñoren aurrean,
emen bizi gaitezen
gu umildadean;
ibiltzen bagerade
Jaunaren bidean,
zuzen sartuko gaitu
zeruko atean,
gloriyak gozatzer
eternidadean.
- 11/ Gaztiakin batian
lenik gurasuak,
aditu guziyentzat
diran konsejuak;
ok dirade aurretik
Jaunaren abisuak,
Aren obratarako
gauza prezisuak,
nai baldin badegu izan
zerura jasua.²

² Bertso ontako puntuak: *gurasoak, konsejubak, abisubak, prezisuak, jasua.*

12/ Mundu ontan gustubak
infernuban penak,
-zein ote dira ala
izan nai dutenak?—
ezpadira kunplitzen
Jaunaren ordenak;
oraiñ degu denbora
lurrian gaudenak,
erremediyatzeko
lengo makur denak.

13/ Onekin paratzen dut
amairugarrena,
emanaz ejenpluba
al dedan onena;
alabatu dezagun
Jesusen izena,
kunplitzen degularik
beraren ordena,
San Pedrok sartu gaitzan
zeruan barrena.

Bertso auek, Bonaparte'ren bildumatik
ditugu, kanta-paper batetik. Orriaren ba-
rreanean, moldiztegiaren izena eta urtea:
Donostian: Pio Baroja-ren moldiztegian.
1850. Egillea nor dan ez da esaten.



(1851)

GURUTZE SANTU LEZO'KOAREN
BEDERATZIURRENGO GOZOAK

ESTRIBILLUA

*Lezo'ra guazen fedearekin,
an dago Zeruko Jauna,
gurutzean iltzez josia,
besoak zabal gugana.*

- 1/ Erromerian dator jendea
Lezo'ko Kristorengana,
zeren munduak ondo dakien
txit miragarria dana;
juan-etorri dabilzatenak
Lezo'n dute indarra,
biotz barrendik egiñarekin
beren damuaz negarra.

2/ Euskalerriko guztiak eta
millaka erbestekoak
dira Lezo'ko Santo Kristoren
egiazko debotoak;
lasterka datoz ager egiten
pekatu antziñakoak,
damuarekin gurutzeari ¹
galdezka barkazioak.

3/ Mutuak, gorrak, itxu eta errenak
Lezo'ko eleiza onetan
ikusi dira, ez bein bakarrik,
baña bai asko alditan,
itza egiten, ondo entzuten,
argitzen, ibill lasterkan,
fedearekin erreguturik
Santo Kristoren oñetan.

4/ Ez da eririk, ez da gaxorik,
dolore ta somiñikan,
Lezo'ko Kristo miragarriak
sendatu ez duenikan,
denborarekin batzuek eta
beste askok bertatikan,
fedearekin biotz barrendik
umill erreguturikan.

¹ Bertso-paperak: *damuakin gurutzeari*.

- 5/ Itxasoetan erdi itoak
egon diraden jendeak,
salbatu ditu milla ta milla
Gurutze Santu gureak;
promesa eginda ekarri ditu
esker on eta fedeak,
negar-malkoa dariotela
ala zar nola gazteak.
- 6/ Kautibaturik egon diranak
kate burnizkoz lotuak,
lepra zauriaz denbora luzez
urrikari bizituak,
Lezo'n arkitu izan dituzte
erremediyo justuak;
au ta geiago egiten daki
gure Gurutze Santuak.
- 7/ Kristaurikan dan gaiztoena
eta biotz gogorrenak,
zeruko bide berdin ederra
Lezo'n daukate diranak;
beterik amar mandamentuak
Kristori dagozkienak,
bere grazia santua laster
betiko dauka gizonak.

8/ Gurutze Santu miragarriak
mundu guztian du fama,
zeren beraren amoriyuak
gordetzen duen anima;
bitarteko ipiñirikan
Maria Birjiña Ama,
miserikordia galdezka gaude,
gure Jabe eta Jauna.

* * *

1/ Oraindikan berriro
denbora asko gabe
egia izandu dira
milagroak ere:
loturik sartu eta
ateratzen libre,
obra oien testiguak
bertan antxen dire.

2/ Juntatzen oi dirade
asko deboziyoz,
graziyak ematera
berari oraziyoz;
bañan ez gutxiyago
beren dibersiyoz,
ojala orrelakorik
juango ezpalitz iñoiz.

3/ Okasiyo jakiñak
daude oriyetan,
allegatu ezkeroz
erromeriyetan;
beste lanikan gabe
erokeriyetan,
gabaz eta egunaz
dabiltza bidetan.

4/ Jaunaren kastigoa
etorri baño len,
artu eskarmentua
bertatikan arren;
okasiyo oietan
beti kontuz gauden,
pensatu erromeriyak
zertarako diren.

Izenburuak garbi adierazten du bertso auek bertsolari jator batek ez, baiñan apaizen batek-edo jarriak dirala.

Ala ere, bertsolarien bideari jarraituz, bertso-paperetan inprentatu eta zabaldu ziran. Moldiztegiaren izena: *Donostian: Pio Baroja-ren moldizteguien.*— 1851. Bertso-paper ori, Chicago'n, Bonaparte'ren bilduman arkitu genduan.

Lenengo, kanta-aste edo *estribillo* bat dator; urrena, zortzi bertso, zortziko nagusiak; eta, azkenik, lau zortziko txiki.

Lezo'ko gurutze santuaz, onela dio Gorosabel'ek bere *Diccionario histórico geográfico descriptivo de Guipúzcoa* liburuan:

«La efigie del Santo Cristo, cuya colocación se atribuye vulgarmente a San León, obispo y mártir de Bayona, está considerada como obra artística de bastante mérito por su actitud angustiosa. Este devoto santuario, que en su origen debió ser hospicio de peregrinos, es muy concurrido de las gentes de esta provincia; las cuales suelen ir en romería en particular el día de la Exaltación de la Santa Cruz el 14 de septiembre, con cuyo motivo se celebra fiesta con regocijos de plaza».

* * *

Bertso auek kantatzeko doñu bat, Zumaia'n jaso zuan Azkue'k, Frantziska izeneko baten aotik, bañan argitara eman gabe utzi. Orain, beraren esku-idatzietan azaldu da. Ona emen Azkue'k jasotako itzak eta doñua:

Goazen Lezora periarekin,
an dago Zeruko Jauna;
beso zabalik, iltzez josirik,
begira dago gugana.
Batzuek promesarekin eta
esku onaren jabeak,
negar malkoa dariotela
nola zar ala gazteak.

The image displays a page of musical notation consisting of eight staves. The first staff is in treble clef, key of D major (one sharp), and 5/8 time. The notation includes various rhythmic values such as eighth, quarter, and half notes, as well as rests and accidentals. The subsequent staves continue the musical piece with similar rhythmic patterns and melodic lines. The notation is clear and legible, with a focus on the rhythmic and melodic structure of the music.

(1854)

GURUTZE SANTU LEGAZPIA'KOARI
BERTSO BERRIAK

- 1/ Gurutze santu Legazpi'kua,
birtute aundiz jantzia,
lezio on bat paratzea da
nere deseo guzia;
birtute ori Jesusegandik
daduka irabazia,
nik orregatik eskatzen diot
konbeni zadan grazia,
ola batean nola agertu zan
emateko notizia.

- 2/ Berreun da irurogei ta
gañera amalau urteak
gurutze santua mundura zala
aurten dirade beteak,
peligrotatik goardatzera
kristau inozenteak,
tentazioa zeukalako
etsaietatik jendeak;
konsideratu zenbat nai digun,
nere aditzalle maiteak.

- 3/ Siñalamente maiatza zan,
illen irugarrenean,
Mirandaola'n eguerdian
asi ziraden lanean,
gure Jesusek debekatua
zeukan jai-egunean;
denbora asko lanean pasa,
ezer ezin egin zanean,
bildurtu ziran etzebiltzela
Jaungoikoaren legean.
- 4/ Denbora gutxi gora-beera
eguerdian asitzen,
lanari gogor ekin ezkeru
etzaio erraz etsitzen;
agoirikan atera ezin
larri ta estu zebiltzen,
goiz aldera asi ziraden
sutegi ori garbitzen,
gurutze santu milagrozkua
orra nun zaien argitzen.
- 5/ Amalau karga ikatz errerik
tokamentuzko ...aKin ¹
bost kintal burni eta geiago
egin bear zituztenakin,
bakar-bakarrik gelditu dira
gurutze santuarekin,
amairu libra pisuan eta
kristauren figurarekin,
zeparik edo zikiñik ere
etzuan ekarri berekin.

¹ Itz au ezin osorik irakurri.

- 6/ Ola-gizonak nekaturikan
zeuden orduko jarriak,
denbora asko lanean eta
nekeak ere larriak;
Juan da Martin Ollokieta,
Migel de Etxeberria'k
beren nagusi don Domingori
esan zioten egiak:
kastiguren bat bota ziela
gure Jaungoiko aundiak.
- 7/ Don Domingo de Mirandaola'k,
bera zuan moduan,
Elorregi'ra eraman zuan
ikusit zuan orduan;
gero bezinok kejatu ziran
etzegoala ondo an,
kristiandadeko etorkizunak
izan zezaten gogoan,
pensatu zuten ipiñitzea
Aite San Migelen ondoan.
- 8/ S. Sebastiango aldare gañean,
San Migeleko partean,
Elorregi'tik ekarri eta
egon zan amar urtean;
gero kaleko parrokiara
andik eraman zutean,
Santa Ana esaten zaion
aldare eder batean,
obispo jaunaren lizentzia ori
konsegitu zan artean.

- 9/ Juan de Agirre maiordomoa
zegoana parrokian,
lendabiziko allegatua
obispoa zan tokian;
gurutze orren pasadizoa
jaun orrek ondo zekian,
jendeak nola deseo zuan
esplikatu ziokian:
ipinitzea sekeretoan
eta leku egokian.
- 10/ Obispo jauna fortunatu zan
etortzea Villarreal'a,
maiordomoak pensatu zuen
presentatzea beala,
relazio egiñez eta
gañera memoriala;
D. Migel de Lebrija zan
obispoen ofiziala,
zeñari bertan agindu zion
informa zizakiala.
- 11/ Maiordomoak esaten zion
«Jainkoak asko nai digu,
-informatuaz presentatzeko
errikoak bost testigu-
zeruetatik anparo txarra
beintzat biraldu ez digu,
etsaiari emateagatik
nai duan ainbat kastigu,
zori oneko Gurutze Santua
mundura etorri zaizkigu.»

- 12/ Testigu oiek bostak banaka
ziran juramentatuak,
obispo jaunak ziradelako
artara ordenatuak;
kontzientziaren gañean
ziraden konformatuak,
zuzen ta ondo esplikatzeke
ola artako kontuak,
zer etorrera egin zizkigun
gure Gurutze Santuak.
- 13/ D. Migel orren enpeñua zan
guztiak baño geiagoa,
zergatikan zan ordenatua
Pamplona'n kanonigoa;
Jaungoikoaren ministroa ta
etsaien enemigoa,
obispoaren ofiziala ta
gurutzearen amigoa,
ezin iduki zeukan baño
leialtade aundiagoa.
- 14/ Obispoari presentatu zion
an informatu zuana,
gurutzetxo bat nola etorri zan
mundu onetara gugana,
milagro edo birtute oiek
aumentatzen dijoana;
obispo jaunak onen gañean
urrengo egin duana:
asunto ori presentatu da
beste bi frailerengana.

- 15/ Bi fraile edo relijiosoak
ziran predikadoreak,
bere eskutik ordenatuak
guztion Salbadoreak;
ikusirikan begien bistan
birtute paregabeak,
funtzio edo prozesio
eta festibidadeak,
erantzun zuen: «Merezi ditu
Gurutze Santu gureak.»
- 16/ Maiordomoak ipiñi zuen
lenengo notizioso,
gero beraren ofizialak
eta bi relijioso;
ikusirikan obispo jaunak
gizon oiek animoso,
konformatuta jarri zanean
gauza guztiakin oso,
agindu zuan obra eginda
ipinteko kurioso.
- 17/ Obispoaren lizentzia ori
errira etorri zanean,
berealatikan ipiñi zuten
orain dagoan planean:
tenploko etxe santu orretan
Amaren aldamenean;
okasioan beorregana
iñor premitzen danean,
lagundutzeko konforme dago
guztion zori onean.

18/ Aurten berriro ipiñi dute
bere kapilla aziaz,
sutegia ta ola-gizonak
formalidade guziaz;
erriko jaunak enpeñatuta
al duten dilijentziaz,
pekatarion limosnakin da
Jaungoikoaren graziaz,
gero beorrek sokorri gaitzan
konbeni zaigun guziaz.

19/ Orra gauzak konforme ipiñi
nai dunak ikusi ditzan,
alegiñak eginda ere
guk geiago zor izan;
Satanasek bere legeko
lazoan sartu ez gaitzan,
gurutzengana amorioa
beti bear degu izan,
gu peligrotik goardatzera
mundu onetara etorri zan.

20/ Ikusirikan begien bistan
peligro izugarriak,
enplastadeak, tximistak eta
turmoi ikaragarriak,
laster guztiak puskatu bear
txingorrak edo arriak,
gere legean egon gaitezen
beti konforme jarriak,
Gurutze Santuak artuko die
etsaiari neurriak.

21/ Konbertitzera saia gaitezen
kristabak al dan moduan,
gere anima sartu eztaigun
betiko toki galduan;
alegiñean alimentatu
obra onakin munduan,
gorputzetikan apartatzea
gertatutzen dan orduan,
eternidadeko an jarri dedin
Birjiña Amaren onduan.


Izenburuak aski adierazten du bertso auen gaia zer dan. Bertso-papera, *Vergara. Imp. de J. Undiano. 1854* moldiztegian eta urtean inprentatu zan. Bonaparte'ren bilduman dago, Chicago'n. Bertsolariaren izenik ez da esaten.

Legazpi'ko gurutze santu onetzaz, ona zer dion Gorosabel'ek bere *Diccionario histórico geográfico descriptivo* liburuan:

«En esta iglesia hay una capilla, donde se venera una cruz de hierro que fue descubierta en el hogar de la ferrería llamada Mirandaola el día 3 de mayo de 1580, cuando los ferrones no podían sacar en ella absolutamente hierro alguno. Tiénese este hecho entre los legazpianos por milagroso; y es lo cierto que conserva la villa el documento justificativo de su realidad, con el mandamiento del obispo de Pamplona para la veneración de dicha cruz.»

Doñu au, berriz, Azkue'k Elgoibar'ko
Altzola'n bildu zuan, noren aotik esaten ez
badu ere. Eta bere esku-idatzietan utzi
zuan, argitara eman gabe:





(1855)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Bizio bat gaiztoa
degu kodizia,
deabruen engañua
edo malezia.
Ai zenbait balego
adierazia!
Esplikatzeko, Jauna,
indazu grazia,
enpeñatu bear det
al dedan guzia.

- 2/ Kodizian itxutu
eta bizi danak,
artzen ditu komeni
eztiraden lanak;
despreziaturikan
Jainkoak emanak,
beretu nai munduan
ikusten diranak,
diruaren arrantzan
beti oien planak.

3/ Bizio orrek ditu
sustraiak gaiztoak,
logreri ta usura
berekin nastuak;
ez begiratu diran
deretxo justuak,
nolanai interesak
daruzka poztuak,
deabruak dauzkalako
buruan estuak.

4/ Askotan sartzen dira
lan aldrebesetan,
aurreratu naiean
bere interesetan;
lotan dagoela ere
ta naiz ametsetan,
beti pensamentu bat
edozeñ klasetan:
sei erreal nun ote
dituen pezetan.

5/ Kodizioso oiek
orrelakoxeak,
interesaz beñ ere
eztaude aseak;
geiena duana ere
oraindi goseak,
munduan daudelako
denbora luzeak,
diruak utzi eta
amaika bazeak.

6/ Kodiziosoa du
deabruak tentatzen,
saia dedilla beti
dirua juntatzen;
ordutik ordura naiz
juan amentatzen,
deseoan geiago
da adelantatzen,
argatik interesaz
ezta kontentatzen.

7/ Kodiziosoak du
usura amatzen,
besterena beretzea
au du estimatzen;
bide onetik duan
eztu begiratzen,
naiz ibilli pobreen
odolak zupatzen,
ezta kontzientzian
kargarik topatzen.

8/ Kaboa ezin billatuz
kodiziarena,
orrelako tristeak
daukan itxumena;
interesari jo naia
munduan goiena,
animakiñ aukeran
dirua naiena,
engaño guzietan
au da aundiena.

- 9/ Dirura itxutuak
bost lan alkontrako,
bere buruari're
eztio opako;
nola izan diteke
projimoentzako?
Nolabait bildu eta
gorde gerorako,
kolkoan dituala
juango dalako.
- 10/ Gaztetandik itxutzen
bada kodizian,
neketan utziko du
ark bere bizian;
zarrago ta gaiztogo
nere iritzian,
pasioa gogortzen
zaio biotzian,
iraun ere jeneral
dan arte guzian.
- 11/ Diruagan bestetan
ezpadu pozikan,
azkenerako eztu
pena bat baizikan:
besteri utzi nai ez
darukan gauzikan,
testamentua ere
egin nai ezikan,
nolabait badijoaz
zenbait mundutikan.

- 12/ Interesetan badago
aiñ ederrizita,
nekez ipiniko da
iltzeko etsita;
Kristok ere lan luke
zerutik jetxita;
erioak ematen
badio bisita,
artxek eramaten du
guziak utzita.
- 13/ Kodiziosoaren
prinzipio fiñak,
gustorik bagekoak,
guziak berdiñak;
gerorako gordetzen
egiñ alegiñak,
pena geiagorako
aren lan egiñak,
utzita juañ bearrak
ditu tripa-miñak.
- 14/ Kodizien kaboa
zalla da topatzen,
aren billa dan ori
da ekibokatzen;
emen ibilli arren
alkar zurrupatzen,
munduak dan guziok
gaitu arrapatzen,
eztu iñork emendik
ezer ateratzen.

15/ Saiatu bear degu
nor bere lanetan,
alimentatutzeko
premia danetan;
projimoa serbitu
estuasuñetan,
pilletan gorde bage
segitu onetan,
kodizi gaizto oiek
largatu benetan.

16/ Enpeñatutzekotan
geroko lanean,
saiatu bear degu
animen onean;
kaborik ez daduka
ark iraupenean,
balioko diguna
au da aizkenean,
eztu bestek serbitzen
iltzen geranean.

17/ Animak konserbatu
mantxarik bageak,
goardatzen dirala
Jaunaren legeak;
konseju on, errezo
ta karidadeak,
oietan enpleatu
abilidadeak,
diruak baña dira
geroko obeak.

- 18/ Aberats izatea
ezta debekutzen,
motiboren batean
ezpadu pekatzen;
deretxoz interesa
bazaio tokatzen,
eta obra onetan
badu enpleatzen,
gauza izanarekin
ezta ezer galtzen.
- 19/ Batek badio: «Eztet
gauzarik ostuta,
bide onetik nago
ni aberastuta»,
au ere balegoke
buruan estuta,
daruzkan interesaz
geiegi poztuta,
banidadearekin
Jainkoaz aztuta.
- 20/ Publikatu nai nuke
egindako lana,
erremeditu dedin
deskuidatu dana;
esan ditudanetan
faltarik daukana,
egiaz konbertitu
Jaungoikoagana,
aurrera egiteko
bizitza on bana.

Bertso auek, Bonaparte'ren bildumatik ditugu. Bertso-paper bat da. Beeko barrenean, argibide auek: *Tolosan: Mendizabalen alargunaren moldizteguian 1855 urtean.*

(1862)

EUSKAL ERRIKO LENENGO
OBISPO JAUNAREN ETORRERARAKO

*Ongi etorri, jauna,
euskaldun jendeak
gaur egin nai diozka
bere onoreak;
pozez zorutzen gaude
zar eta gazteak,
ainbeste poztu gaitu
berorri ikusteak.*

*Probintzi oietako
estudianteak,
eta beste euskaldun
leial da nobleak,
berorregana gatoz
kontentuz beteak,
aurrera beragandik
artzeko legeak.*

Nun dira, euskaldunak,
zuen kantariak?
Nun soñu-jotzalleak,
nun bertsolariak?
Gaur gugana datorren
obispo berriak,
ez al ditu merezi
ongi etorriak?
Ongi etorri, jauna,...

Alegratu zaitezke
gaur, Euskal-Eria,
gaur da zuretzat egun
guztiz pozgarria;
Jaunak bialtzen dizu
artzai bat berria,
zerurako bidean
zure giaria.
Ongi etorri, jauna,...

Aita biotz biguñ au
da maitagarria,
tristura ta penetan
konsolagarria.
Ez litzake izango
gauza arrigarria
oni ez egitea
ongi etorria?
Ongi etorri, jauna,...

Araba ta Bizkaia
Gipuzkoarekin
ongi konpontzen dira
beti alkarrekin;
beren lege zar berdiñ
antziñakoakin
pakean izan dira
bata besterekin.
Ongi, etorri, jauna,...

Geiago unitzeko
alkarren artean,
falta zan oraindikan
zerbait nere ustean:
egotea obispo
jaun baten mendean;
au da logratzen dana
gaurko egunean.
Ongi, etorri, jauna,...

Ongi etorri, jauna,
gaurko notiziak
kontentuz bete ditu
iru Probintziak.
Noizbait allegatu da,
Jaunari graziak,
deseo genduena
euskaldun guziak.
Ongi, etorri, jauna,...

Betor ordu onean
gure nagusia,
deseatzen diogu
luzaro bizia,
gu ongi gobernatzeko
bear duen grazia,
gorputz eta animako
ondasun guzia.
Ongi etorri, jauna,...

Eskerrak milla bider
Aita Santuari,
orobat milla esker
gure Erregiñari,
probintzi oietako
diputaduari,
ta gure ona nai duten
gizon prestuari.
Ongi etorri, jauna,...

Eskerrak alegiña
egin dutenari
artzai au ipintzeko
Euskal-Erriari;
Jaunak emango dio
saria ugari
guzien onagatik
nekatzen danari.
Ongi etorri, jauna,...

Guazen, bada, euskaldunak,
jaun orren aurrera,
bere bendizioa
lenbaitlen artzera;
guazen danok lasterka
beraren bidera,
edo bestela euskaldun
fin-fiñak ez gera.
Ongi etorri, jauna,...

Bertso-papera, *Imp, de J. Iturbe* moldiz-
tegian argitara emana, eta Bonaparte'ren
bilduman azaldua. Damurik, inprentaren
izena bai, bañan erriarenik ez du esaten.

Euskalerriko eliz-barrutia, Araba, Biz-
kaia ta Gipuzkoa artzen zituana, Pio IX'ga-
rrenak eraiki zuan, 1861-IX-8'an.

Lenengo obispoa, Diego Mariano Al-
guacil jauna izan zan, eta 1862-IV-28'an
sartu zan Euskalerrian.

10'garren bertsoak aitatzen duan erre-
giña, Isabel II da.

(1863)

BERTSO BERRIAK

1/ Bertso berri batzuben
aurten ditut jarri,
Santo Kristo Lezo'koen
alabantzagarri;
bisitaz jende asko
zaizkio etorri,
sendatzen ditu asko
gaixo ta elbarri,
baita itxuak ere
jartzen ditu argi.

2/ Santo Kristo Lezo'koa
txit da aditua,
España guzian
badu meritua;
bisitari askorekin
dago serbitua,
zergatikan dan santu
milagro aundikua,
gaitz guztiak sendatzen
ditun medikua.¹

¹ Bertso ontako puntuak onela ditu bertso-paperak:
aditua, merituba, serbituba, aundikoa, medikuba.

3/ Santu onek daduzka
asko bisitari,
urruti bizi arren
badatoz ugari;
eztiote begirutzen
asko nekeari,
ezta gauza garesti
eta merkeari,
aditzera ematen du
mundu guziari.

4/ Askotan egondu naiz
erreparatuta,
zenbat jende datorren
pardelak artuta:
napar eta bizkaitar
asko juntatuta,
probintzianoakin
akonpañatuta,
santu au ikustera
txit desiatuta.

5/ Noizbait asi biar det
ejenploa ematen,
eztakiena orri
zerbait erakusten;
etxian daguela
ezta ezer jakiten,
eztet uste dedala
askoz utsegiten,
nai duen guztiak eztu
santua ikusten.

6/ Zenbat izango dira
Lezo'ra etorriak,
ikusi gabe joanak
Kristoren begiak:
elizan sartu nai ta
ai ango larriak,
bata bestearekin
pelean jarriak,
atzean egon bear
gaixo ta elbarriak.

7/ Eliza da txikia,
asko ezin kabi,
orretan izaten da
amaika komedi;
atzera ta aurrera
badabill ugari,
amorrrik ezin eman
bata bestiari,
guztiak nai diote
Santo Kristoari.

8/ Askok eskojitze'ute
egun apartia,
desioz dutelako
obeto ikustia;
ongi derizkiot nik
ori egitia,
zertako da alperrik
gaizki ibiltzia?
Deskantsuz obe zaio
egin konbitia.

- 9/ Santu oni txit askok
dio debozio,
egin nai diotela
zenbait orazio;
urrutitik promesak
egiten zaizkio,
Santo Kristok, artian
bada espazio,
bitarteko denboran
itxogongo dio.
- 10/ Guziak ai bezate
orain nere esana,
eztet esplikatutzen
pasatzen eztana;
guziak biartzeko
Jaungoikoagana,
gauzarikan onena
egin biar dana,
bestela galdua da
deskuidatzen dana.
- 11/ Santo Kristo Lezo'koak
maite gaitu danak,
egiten baditugu
beraren esanak;
bere seme izateko
zerutik emanak,
kuidadorikan eztu
alakoia danak,
baña pagatuko du
deskuidatzen danak.

- 12/ Txorakeriak utzi
albait apartian,
ez gaitezen ibilli
geretzat kaltian;
damutzia txarra da
denbora joatian,
Luziferrek nai gaitu
lotzea katian,
konpañia egiteko
berarekin batian.
- 13/ Luziferrek badaki
dan guzien berri,
argatikan nai gaitu
bere alde jarri;
gu engañatzen dabil
estu eta larri,
begitara dizkigu
gauza asko ekarri,
ez kasorikan egin
arren figurari.
- 14/ Santa Kruz egunaz da
illaren amalau,
zenbat milla personak
gogan dauka au;
bidian pasatubaz
eguna eta gau,
zenbat aldiz begira
egondu naiz nerau,
baña bitarte ortan
ezta egiten barau.

- 15/ Alimentu artubaz
egun eta gabaz,
neskatx eta mutillak
alkarrekin farraz;
soñua jo ta dantza
pozez eta galaz,
eztira akordatzen
nekez eta kargaz,
guztia engañatzen
izaten da erraz.
- 16/ Amaseigarrenean
bere merezia,
zergatikan nagoan
nerau ikusia;
gaztiak beti badu
bere pantasia,
zergatikan dadukan
gutxi malizia,
Jaungoikoaren gauzetan
ezta ikasia.
- 17/ Orregatik nai nuke
eman ejenploa,
ezagutu dezaten
beren Jaungoikoa;
guztion Aita degu
zeru altukoa,
kunplitzen baditugu
agindutakoa,
guretzat daude gauza
zori onekoa.

18/ Orra azkenekoa
eta despedida,
uste det badutela
bastante segira;
bertso oiek ikasten
saiatzen badira,
okerreko bidetik
zuzenduko dira,
guztiok joateko
zeruko glorira.

Bertso auek, Manuel Lekuona apaiz
jaunaren bildumatik ditugu, moldiztegi-
izena onela duan bertso-paper batetik: *To-
losa: Imprenta de la Viuda de Mendizabal.*

Orren alboan, beste argibide jakingarri
au: *Pueden imprimirse. Tolosa 11 de diciem-
bre de 1863. Benito Gorostegui.* Zensura
bazan orduan ere, baiñan aldi ontan
beintzat gure mesederako: bertsoak noiz-
koak diran erakusten baitigu.

(1866)

BERTSO BERRIAK
AMAR MANDAMENTU SANTUEN GAÑEAN

- 1/ Deklaratu nai nituzke
amar mandamentu,
zarrak eta gazteak,
ar zazute kontu:
eskubide guztia
Jaun Zerukoak du,
bere faltaz ez du nai
iñor kondenatu,
nola merezi ala
oi du kastigatu.

- 2/ Lenengo mandamentua
nai nuke guardatu,
Jaungoikoa bakarrik
bear degu amatu;
lengo gaizki egiñak
bear dira damutu,
bizimodu berri bat
aurrerako artu,
anima sekulako
ez dediñ kondenatu.

- 3/ Zer dan konsideratzen
 jarriko bagiña,
 damu izango genduke
 juramentu egiña;
 kostunbre txarrak larga
 saiatu alegiña,
 artu biotzetikan
 propositu fiña,
 il bearrak guztiyori
 ematen digu miña.
- 4/ Irugarren mandamentuan
 nai nuke itzegiñ,
 kuido jai-egunian
 mezia utsegiñ;
 denbora pasatuta
 buruari atzegiñ,
 kulpituetatikan
 digue itzegiñ,¹
 infernuan erretzen
 ez dala atsegiñ.
- 5/ Jaunak biraltzen dizkigu
 guri mandatuak,
 ondo artu ditzagula
 geren gurasuak;
 aditu nai badegu
 ez gerala mutuak,
 atsegiñ artu ez dezan
 Luzifer falsuak.²

¹ Bi aldiz *itzegiñ* punturako. Bigarrena, guk uste, *otsegiñ* izango zan, eta moldiztegiak oker kopiatu.

² Bi lerro falta bertso ontan. Moldiztegiaren utsegiña izango da au ere.

6/ Bostgarrenian dio
ez iñor iltzea,
Jaungoikoak emana
digula bizia;
naiz itzez ta naiz obraz,
naiz desiatzia,
biziro deritzat nik
kontu itxusia,
estimatzeko prenda da
gizonaren bizia.

7/ Pekaturako gauzak
larga alde batera,
gusto zikiñetatik
zer nai degu atera?
Liberal asko dabill
Luziferren platera,
konbidatuagatik
ez juañ jatera,
anima gaixoarentzat
biziro kalte da.

8/ Besteren gauzarikan
badegu ostutzen,
zazpigarrenekoak
digu eragozten;
asko gurasok berak
die erakusten,
umeak gurasoi
badie ikasten,
beren bizi guztian
etzaie aztutzen.

- 9/ Ofizio txarra da
murmurazioa,
zenbat personak dauka
artan afizioa;
zerura juateko
zer ofizioa,
desterratu nai luke
alako bizioa,
alkanzatu dezagun
gure salbazioa.
- 10/ Gauza prezioa da
doktriña ikastia,
zarrak bizi dirala
ill diteke gaztia;
Jesusek ez luke nai
onela izatia:
ez deseatzeko
besteren emazia,
kondenatu ez dediñ
anima tristia.
- 11/ Jesusek jakiñ arren
gu nolakuak giñan,
aingeru bat nai zigun
laguntzeko eman;
oraiñ arkitzen gera
sekulako eran,
peleatu nai badegu
etsaiaren gerran,
betiko sar ez gaitzen
Luziferren gelan.

12/ Orobat gu bezela
gure projimua,
onetan akabera
ematera nua;
sarritan errezibitu
Jesus dibinua,
nolakua ote da
aren kariñua?
Alkantzatuko digu
zeruko erreinua.

Jaungoikoaren legeko aginduak bein baño geiagotan jarri izan dituzte bertsoan bertsolariak. Aldi oietako bat, onako bertso-sailla. Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'n arkitu genduan.

Paperaren barrenean, onako adierazpen auek ditu:

«Pueden imprimirse. Tolosa 22 de diciembre de 1866.– Benito Gorostegui.

Tolosan: Modesto, Dionisio eta Jose Gorosabelen moldizteguian.»

Damurik, egillearen izenik etzaigu esaten. Eta ori somatzeko biderik ere ez degu ikusten.

Bañan izenik ezin ikasiko badegu ere, politikaz zer koloretakoa zan egilleak berak aitortzen digu. Karlistetakoa ezbairik gabe, zazpigarren bertsoan eztenkada zorrotza sartzan baitie liberalai.

* * *

Urrengo doñu au, bertso-sail onen bi-
garren bertsoarekin, Azkue'k Murelaga'n
jaso zuan, Antonio Ibarra'ren aotik. Bañan
argitara eman gabe utzi zuan, da orain be-
raren esku-idatzietan azaldu da:

Le-len- go man-da-men- tu- a

nai da- be- nak guar-da- tu


Jaun- goi- ko- a ba- ka- rrik

be- ar- ko du a- ma- tu

len- go gaiz-ki e- gi- ñak

be- ar ja- koz da- mu- tu

bi- zi- mo- du be- rri bat



au- rre- ra- ko ar- tu
a- ni- ma se- ku- la- ko
ez- te- din kon- de- na- tu.

* * *

Askotan agertu da plazara bertso-sail au. Tolosa'ko 1866'eko argitaraldi ori danetan zaarrena da, du- darik gabe. Bañan beste guziak oso aldatuta daude. Amabost bertso dituzte; ez amabi. Eta beste aldaketa asko ere bai bertsoetan. Orregatik, obe bearrez, bertsoak oso-osorik ezarriko ditugu emen, Loiola'ko Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman, agertu dan eta moldiztegi-izenik ez duan bertso-paper bati kopia- tuta:

BERTSO BERRIAK
JAUNGOIKOAREN AMAR AGINDUAREN
GANIAN JARRIAK

- 1/ Ateratu nai neuke / kantu bat berria,
baldin sufiziente / banu memoria;
badakit neretzat dana / txit lan geijegia,
baña ikusi ezkerro / onelango premia,
ezin egon neindeke / esan bage egia.

- 2/ Nai neuke izan fraile / edo abadia,
ongi esplikatzeke / Kristoren legia;
ustez izanagaitik / txit gizon brebea,³
ezin izan neindeke / aiek baizin obia
ni bezelako gizon / estudio bagea.
- 3/ Lenengo Mandamentua / nai duenak guardatu,
Jaungoikoa bakarrik / bear du amatu;
lengo gaizki egiñak / bear zaizko damutu,
bizimodu berri bat / aurrerako artu,
anima sekulako / ez dedin kondenatu.
- 4/ Zer dan konsideratzen / jarriko bagiña,
damu izango genduke / juramentu egiña;
kostunbre txarrai uztera / saiatu alegiña,
artu biotzetikan / propositu fiña,
il bearrak guztiori / ematen digu miña.⁴
- 5/ Irugarren Mandamentua / nai neuke itzezin,
kuidago jai-egunetan / mezarikan utsegin;
denbora juaten zaigu / buruari atzezin,
pulpitutikan sarri / digue otsegin,
infernuan erretzia / ez dala atsegin.
- 6/ Munduan guregaitikan / emandako pausubak,
beti presente daduzka / Jesus bildots mantsuak;
zerutik bialtzen diguz / mandatu gozuak,
onradu ditzagula / geure gurasoak,
Atsegin artu ez dezan / Luzifer falsuak.
- 7/ Logratu nai duenak / Jaunaren presentzia,
desterratu bear du / gorroto guztia;
munduan askok degu / alkar ezin ikusia,
biziro dala dereitzat / kontu itxusiya,
estimatzeko prenda da / gizonaren bizia.

³ Seguru asko, *trebea* bearko luke emen.

⁴ Aita Arana'ren paperean: *guztion*. Moldiztegiaren okerra, dudarik gabe. Beste argitaraldi guziak ere *guztiori* dute.

- 8/ Pentsamentu txarrari / laga alde batera,
gusto zikiñetatik / zer uste da atera?
Liberal asko dabil / Luziferren platera,⁵
anima gaixoentzat / biziro kalte da,
konbidatuagaitik / eskuan jatera.
- 9/ Munduan bear degu / geure denbora pasa,
beti presente degula / infernuko brasa;
Jesusek egunen baten / artuko digun kausa,
erabili ote degun / ostutako gauza,
lapurra ez da egongo / orduan txit lasa.
- 10/ Ai zer gauza txarra da / murmurazioa,
zenbait personak ote du / artan afezioa;
zerura juateko / ai zer ofezioa,
desterratu bear du / alango bizioa,
logratu nai duenak / gero salbazioa.
- 11/ Gauza prezioa da / dotrina ikastea,
kondenatu ez dedin / anima tristea;
zarrak bizi dirala / il leiteke gaztia,⁶
Jesusek ere ez du nai / gu gaizki ikustia,
ez deseatzeko dio / besteren emaztea.
- 12/ Jesukristo daukagu / zerutikan galdez,
ea kontentu geraren / nor beren ondasunez;
sinistu bear degu / bera degula juez,
urtutzen ditugula / biotzak negarrez,
zenbait anima galtzen da / lan au egin bagez.
- 13/ Kostunbratzen bagera / egitera pekatu,
konfesatzera jua da / ez da zer ukatu;
esamiña egiten / bear degu nekatu,
geure burua bezela / projimua amatu,
lapurra ez da egongo / orduan txit lasa.

⁵ Bertso-paperak: *askok*.

⁶ Bertso-paperak: *leitekete*. Moldiztegiaren okerra ori ere. Beste bertso-paper guztiak *leiteke* dute.

- 14/ Kristau fiel guztiok / gaude obligatuak,
 ongi guardatzeko / amar mandamentuak;
 zerutik bialdu diguz / geuri mandatuak,
 atera dezagula / munduan kontuak,
 aditu nai baditugu / ez gerala mutuak.
- 15/ Jesusek ezagaturik / gu nolakuak giñan,
 aingeru bana lagun / nai ziguan eman;
 orain aurkitzen gera / sekulako eran,
 peleatu nai badegu / etsaiakin gerran,
 betiko sartu ez gaitian / Luziferren gelan.

* * *

Beste zenbait argitaraldik Loiola'ko Aita Arana'ren bertso-paper orri kopiau diote. Itzez itz kopiau ere, moldiztegi-utsegite bat edo beste izan ezik. Olakoak dira:

Bertso-papera, «*Imprenta y Librería de F. Elosu.-DURANGO*», Aita Agirretxe'ren eskutik.

Bertso-papera, «*Imprenta y Librería de F. Elosu.-DURANGO*», moldiztegi-izena berdin bañan beste argitaraldi bat, Jose Maria Satrustegi'ren eskutik.

Bertso-papera, «*Imprenta de S. Diego.-EIBAR*», Bidani'ko Juan Krutz Elustondo'ren eskutik.

Bañan lau argitaraldi auek, zortzigarren bertsoaren bostgarren lerroa onela dute: kristau asko dabil. Alegia, *liberal* kendu eta *kristau* jarri. *Askok* idatzi zuan aldaketa ori lenengo egin zuanak, eta beste guziak ere orrelaxe kopiau, *asko* bear bazuan ere.

Ondarroa'ko Jose Maria Etxaburu'k eskuz idatzita osatu zuan bilduman ere badaude bertso auek, bañan argitaraldi oietako bati kopiauak.

* * *

Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman, bertso auek dituan beste paper bat ere agertu da. Moldiztegi-izenik gabeko papera da. Amabost bertso ditu onek ere. Bañan besteetan euskerak Bizkai'ko kutsua zuan, eta onetan norbaitek egiñalak egin ditu izkera giputzeratzen. Ortik aldaketa guziak edo geienak:

1/1: Atera nai nuke; 1/2: kanta bat berria; 1/5: ezagutzen det neretzat; 1/6: dana lan geiegia; 1/8: onelako premia; 1/9: ezin egon nindeke; 1/10: esan gabe egia; 2/1: Nai nuke bada izan; 2/2: fraile edo abadia; 2/6: txit dala brebia; 2/7: ezin izan liteke; 2/8: aiek bezin obia; 2/10: estudio gabia; 3/4: bearko du amatu; 3/6: bear zaigun damutu; 4/5: kostunbre txarrai uzten; 4/7: biozian arturik; 4/9: il bearrak guziari; 4/10: emango digu miña; 5/1: lrugarren Mandamentuan; 5/2: bear det itz egin; 5/4: mezarik uts egin; 5/5: denbora juanda oi zaio; 5/7: kulpituetatikan; 5/8: digute ots egin; 5/9: infernuan erretzen; 6/1: Munduan gugatikan; 6/2: egindako pausoak; 6/5: zerutik bialtzen digu; 6/6: abiso gozoak; 6/7: onratu ditzagula; 6/8: geren gurasuak; 6/9: atsegin or ez dezan; 7/1: Nai duena ikusi; 7/5: munduan askok daukagun; 7/7: au gero deritzat nik; 7/9: estimatza prenda da; 7/10: personaren bizia; 8/1: Pensamentu gaiztoai; 8/2: utzi alde batera; 8/5: lijero asko dabill; 8/6: Luziferren bandera; 8/10: ez juan jatera; 9/2: gere denbora pasa; 9/5: Jesusek egingo digu; 9/6: egun batian kausa; 9/7: ya biorto degun; 10/1: Gauza gaiztoa baita; 10/3: zenbat personak artan du; 10/4: bere afizioa; 10/7: desterratu bear da; 10/8: alako bizioa; 10/9: logratu nai badegu; 10/10:geren salbazioa; 11/7: Jesusek ez du nai; 12/1: Jesu Kristo dagokigu; 12/3: ea kontentun geran; 12/4: nor bere ondasunez; 12/5: sinistu bear genduke; 12/6: bera dama juez (sic); 12/9: anima asko galtzen da; 13/1: Fortunatzen bagera; 13/2: egitia bekatu; 13/7: geren buruak bezela; 14/1: Kristau fiel guziak; 14/3: ongi guardatzera; 14/5: Jesusek bialtzen dizku; 14/6: noski abisuak; 14/7: atera ditzagula; 14/10: ez gaude mutuak; 15/1:

Jesusek ondo jakiñik; 15/2: gu nolakoak geran; 15/3: aingeru bat nai zigun; 15/4: laguntzeko eman; 15/9: betiko sar ez gaitian.

Eta bertsoen ordena: 1, 2, 14, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 11, 13 eta 15'garrena.

* * *

Erriaren aotik ere jaso izan da bertso-sail au.

Jaso-aldi bat, Bilbo'ko *Euzkadi* egunkarian, 1932-VII-21'an agertu zan.

Beste bat, Donostia'n arkitu genduan, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, 1934'an Jokin Dorronoro'k oar onekin bialduta: «Juana Frantziska Arruebarrena'ri entzuna; 90 urte ditu.»

Eta gerok ere jaso genituan norbaiten aotik, ondoren izenik apuntatzea aztu bazitzaigun ere.

Sail osorik ez dute oiek, bañan aldaketa-pilla galanta bai noski. Ez ditugu emen jarriko, bestela ere geiegi luzatu gera-ta. Bañan *Euzkadi* egunkariak dituan bi oarrak, onera aldatzea merezi dute noski:

«Uarra.— Bertso oneik, Ozerin'dar Markeliñe 70 urtedun Mañari'ko anderari entzunak dira. Ta emakume onek diño, berari, gaztetxuba zala, Bizkarra'tar Pantzeska 71 urtedun Ixurtza'ko gixonak irakatsi eutsozala. Beraz, bertso oneik be oso zarrak ixan biar dabe. *Mañariko*.»

Eta bigarrena:

«Uarra.— Neurtitz oneik jaupariren batek egiñakedo dira. Oso atsegingarri yataz neuri, bestiak zer esango daben eztakit baña. Olerkari-bijotza eukan neurtitz orreik egin ebazanak. Tamala erderakada geiegi ixatia. Goikuaren amar agindubak, erri geiennetan aurkittuten dira bertsoetan, jauparijak, ba, umiai

erakusteko neurtizetan jartzen ebezan. Gai onetzaz lan berezija egin dagikegu. Erri guztijetakuak bildu ta a zelako idaztija argitaldu geinkian! Euzkadi'ko erri geienetan gai batetzaz diran neurtizak batzia gauza ederra. Jakintza andirik ezta biar olako lanetarako, ba! «Mañariko» argi orri txalorik sutsubenak jo biarko dautsoguz. Emakume azkar eta langille onena dogu. *Lauaxeta.*»

(1868)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua
konsolatzeko barrena,
pekatariyen artian zer dan
leziyorik biarrena;
mundu guziyan zabaldu nai det
konbeni zaigun ordena:
konfesio on bat egiterako
nola giatu aurrena.

- 2/ Konfesiyo onak bost kondiziyo,
lenengo esamiña,
memoriyara erakartzia
lenago gaizki egiña;
etsaiagandik apartatzeko
artu intenziyo fiña,
animarentzat izan ez dedin
gero sekulako miña.

- 3/ Esamiña bat, dolorea bi,
propositua irugarren,
laugarrenguan konfesiya
zuzen egiteko arren;
bostgarrenguan penitenziya
satisfaziyo bat emen,
pekatuaren barkaziya
anima garbi deriyen.
- 4/ Esamiña da prezisuena
konfesiyan asteko,
korputzagandik pekatuaren
kate gogorak austeko;
biotzetikan desio fiña
biziyo txarrak uzteko,
obra onekin Jaunarengandik
graziyak irabazteko.
- 5/ Bigarrenian doloria da
damutasun bat artzia,
pekatuari gorrotidade
aundiyarekin jartzia;
modu orretan etsaiagandik
obe da apartatzia,
geren anima ez badegu nai
gero betiko galtzia.

- 6/ Irugarrena propositua
konsideratu barrendik,
apartatzeko pekaturako
tentaziyuarengandik;
Jesusengana umil gaitezen
denbora degu oraindik,
etsaiak ez du engañatuko
fede biziya duenik.
- 7/ Laugarrenian egin dezagun
konfesiyo bat umilla,
guazen Jaunaren belaunetara
barkaziyuaren billa;
korputzagandik apartatzeko
pekatuaren arilla,
gure anima gero betiko
zeruan gerta dedilla.
- 8/ Bostgarrenian penitenziya,
au degu gauza biarra
korputzagandik apartatzeko
pekatuaren su-garra;
dudako gauzak utzi burutik,
artu fedian indarra,
gure animak izan eztezan
gero betiko negarra.

- 9/ Oraziyo ta sermoi ederrak
konbeni diranak emen,
aditzen degu nola biar den
len atzenduak bageunden;
orra nik esan bost kondiziyo
konfesiya nola den,
modu onetan egin dezagun
anima galdu baño len.
- 10/ Konfesatzera maiz dabillega
zertako da onoria,
biotzetikan ez badu artzen
biar dan umildadia?
Gaizki egiña damutu eta
penarekin doloria,
bakan dabillen pekatariyak
egin lezake obia.
- 11/ Urtian beingo siñalia da
garizumako txartela,
eziñ bestian konfesatzera
batzuek dijuazela;
oponiyua bueltaka dabil
aize nastuak bezela,
modu orretan asko dabilza
ni lendabizi naizela.

12/ Konfesio on bana egin dezagun
denbora degun artia,
orra erakutsi nola diraden,
onekin errematia;
justuarentzat zabalik dago
zeruetako atia,
esan dezagun kunpli derilla
Jaunaren borondatia.

Amabi bertso auek, Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'tik artuak ditugu, D'Abbadie zanaren bildumatik.

Orriaren beko barrenean, argitaratzeko baimena eta urtea ematen zaizkigu: «*Pueden imprimirse.— Tolosa 4 de Abril de 1868.— Benito Gorostegui.*»

Eta, ondoren, moldiztegiaren izena: «*Tolosan: Mendizabalen alargunaren moldizteguien*».

Damurik, egillearen izenik ez da iñon ageri.

BERTSO BERRIYAK
JESUSEN PASIOAREN GAÑEAN

1/ Inozenterik badago
iñondik aditzen,
orain abiatzen naiz
aien adbertitzen;
animen faboretan
goazen konbertitzen,
munduko interesak
ez dute serbitzen,
Jesus larrugorrian
gurutzian il zen.

2/ Gure Jesus maitia
ari zaigu beti
eskallera egiten
goiti eta beiti;
alferrik da ibiltzea
penaken igesi,
konbeni dana eskatu
berari oneski,
arrek badaki ongi
zer zaigun merezi.

- 3/ Orazioan egon zan
Jesus maitea're,
belaunikaturikan
umilki alere;
erregien Errege
izanikan ere,
eriotzatic ezin
libra iñola're,
Aita Eternoagana
sometitu gabe.
- 4/ Sometitu izan zan
Aitaren itzera,
gurutze kruel batian
iltzez jositzera;
nere lagunak, goazen
esamiñatzera:
Zein jarriko litzake
gisa artan iltzera,
ainbeste despreziyo
errezibitzera?
- 5/ Ainbeste despreziyo,
gañera azote,
izerdi otz batekin
flakatu zan arte;
batere kulpa gabe
orrenbeste neke,
deusik ez, zerbait gaizki
egin baliyote,
alere den guziyai
barkatzen diyote.

6/ Arantzazko koroa,
tunika zuriya,
erotzat tratatzeko
soñian jantziya;
gorputz guzitik zuben
odol-iturriya,
guzien Erregia
zer negargarriya,
baldin gure biotza
ez bada arriya!

7/ Pilatos gaiztoaren
eta balentziya:
kargubak gal beldurrez
bota sententziya;
andriak eman ziyon
aski adbertentziya:
gizonik ez galtzeko
gaizki inozentziyan,
esamiña zezala
bere kontzientziya.

8/ Sententziya bota ta
eskubak garbitu,
andriaren esanak
etzuten serbitu;
bere inozentziyan
zuben adbertitu,
justuben esanera
ez nai sometitu,
ala konbeni baitzen
etzan konbertitu.

- 9/ Andikan artu zuten
judubak artian,
gurutzez kargaturik
kruelidadian;
deskansatu nai zuben
instante batian,
Luzifer gaiztoaren
dendako atian,
bañan ark ezin utzi
batere pakian.
- 10/ Luziferren lagunak
zenbat ote gera?
Iruretatik biyek
nere arabera;
projimoaren kontra
sartuba kolera,
soberbiya portiz bat
guzien gañera,
Jaunak itzul gaitzala
gaiztoak onera.
- 11/ Pensatzen jarri eta
arritzeko asko da:¹
guziia bat egiña
gorputzeko erida,
azote golpeka ta
illetatik tira;
sinisten ez duenak
berari begira,
justu baten odolez
baliatu dira.

¹ Seguru asko, *aski da* bearko luke emen punturako.

- 12/ Ama Doloretako
ondotik negarrez,
Semiaren berriyak
ikasi bearrez,
kale guzietatik
beriaren galdez,
etzait iduri sobra
bere ume batez,
aldetik galdu zuben,
nun zuben jakiñ ez.
- 13/ Magdalen agertu zan
gala ederretan,
bere alajaria
urre diamantetan;
ekusi zubenian
Jesus odoletan,
damaturik asi zan
negar marrusketan,
barkaziyoa eskatzen
bereala bertan.
- 14/ Etzan iñon gelditu
kristau bat bakarrik
festa artara gabe,
ez gazte, ez zarrik;
batzuek pena zuten,
asko arrigarri;
Jesusek esan ziyen:
«Ez egin negarrik;
kontu zeren buruai,
ez det nik bearrik.»

15/ Gurutzez kargatuba
auspezka eroriya,
ura ala ikustiaz
juduben gloriya!
Elurra bezin otza
aren izerdiya,
erakusten ziyoten
zernai pikardiya,
Jauna, izan zazu gutzaz
miserikordiya!

16/ O, zorionekoa
gertatu zan Simon!
Gurutzea eramaten
ark lagundu ziyon;
zeruba eta lurra
pizatzen baiziyon,
aren indarrak asko
serbitzen ez ziyon,
bañan amoriyua
erakutsi ziyon.

17/ O, nere Jesus, zure
gurutze pisuba!
Pensatuko bagendu
o zer merituba!
Zu zera gure Doktor
eta medikuba,
Aita Eternoaren
Seme propingua,
Jesus gizon egiña,
gure Jaungoikoa.

18/ Santa Beronika ere
guziz penatuba,
ekusi zubenian
ala tratatuba;
izerdiya ta llaga,
desfiguratuba,
pañuz txikatu ziyon
arpegi santuba,
an bertan utzi ziyon
bere erretratuba.

19/ Kalbariora igotzen,
o Jesus noblea,
or erori, emen altxa,
al zuben moduan;
jo eta ezarri zuen
juduak lurrian,
kriatu zan bezela
bere gurutzian,
bai eta ere itzatu
kruelidadian.

20/ Erakutsi zioten
penarikan aski:
gurutzia altxata
lurrera artiki,
min geiago emateko
ala espresuki,
zeren momentu artan
ziraden nagusi;
sekulako infernuba
zuten irabazi.

21/ O, zer momentu triste
ikaragarriya,
barreneko sekera
eta egarriya;
binagria ta orma
zuten erariya,
gustoz eran baizuben
nola iturriya,
zeren zuben guretzat
amorio aundiya.

22/ Aita Espirituala
fiñikan gabia,
aren Seme maitia
guziyen jabia;
guk bagenuke zure
abillidadia,
lenbiziko gaizkiya
seguru urkabia,
baña urrikaltzen da,
ain da amabilia.

23/ Gauza amabilia da
Jesusen biotza,
guregantikan zuben
pasa eriotza,
erremediatzeko
bekatuben nota;
konsideratzen balitz
ez du gutxi inporta
anima salbatzeko,
obra baliyosa.

24/ Jauna, oroitzen gera
zutzaz geienian,
elizan noizik bein
sartzen geranian,
edo denbora juanda
atzen orrenian;
au allegatzen zaigu
anitz azkenian,
anima balantzetan
etsaien mendian.

25/ Jesus, zuri nagozu
belaunikatuba,
nere gaizki egiñez
umiliatuba;
konfesatu nai ditut
nere bekatubak,
biotz osotik nago
determinatuba,
anima izan dedin
purifikatuba.

Bertso auek, Paris'ko Liburutegi Nazio-
naletik ditugu. *Tolosan: Mendizabalen alar-
gunaren moldizteguian* argitara emandako
bertso-paper bat da.

Urterik ez du esaten. Bañan beeko ba-
rreanean, eskuz idatzita, onela dio: *reçu*
1869. Norbaitek urte ortan jaso zuala, ale-

gia. Inprentatik ere etzan askoz leenago aterako.

Egillearen izenik ere ez du. Bañan darabilen euskeragatik, bertsolari ori Irun aldekoa-edo ote zan esango genduke.

* * *

Bertso auen beste argitaraldi bat, *Establecimiento tipográfico de los Hijos de I.R. Baroja, Constitución 2* moldiztegian egin zan. Bañan ez bertso guziak; 5, 11, 24 ta 25'garrena falta dira.

Fonetismoak aldatuta daude lengo paperetik. Gañontzeko aldaketak: 2/4: goitic eta betic; 2/6: pena-cen igasi; 2/9:ar berac daqui ongui; 3/3: belan necaturican; 3/8: libratu iñolare; 4/3: guruce cruel baten; 6/5: corpuz gucia ceucan; 7/3: gradoc galdu bildur; 7/8: gaizqui inocencia; 8/9: ala comeni bazan; 9/2: juduac aurrian; 9/3: guruces cargatuta; 9/9: ala ere utzi nai ez; 9/10: beñere paquian; 10/3: irutatican bi bai; 10/4: guchi gora bera; 12/1: Ama doloretacoa; 12/3: Semiaren biriac; 12/6: gendiaren galdez; 12/8: nere ume batez; 13/1: Madalena aguertuzan; 13/3: bere alajeriac; 13/8: negarrez asnasetan; 14/4: ez gazte ta zarric; 14/6: guztiz arrigarri; 15/3: ura ala icustia; 15/7: eracutzi cioten; 15/8: cembait picardia; 17/4: ay cer meritoa; 17/6: edo medicua; 17/8: Seme progimoa; 18/5: icerdi eta llagas; 18/7: bañon chucatu-cion; 18/9: an bertan eguincion; 19/1: Galbarioara igozan; 19/5: jo eta ezarri zuten; 19/9: baita altxatu ere; 20/4: lurrera erori; 20/5: min gueiago ematera; 20/6: naizuten ecusi; 21/3: barreanean searra; 21/5: binagrea eta ura; 21/6: zuen edaria; 21/8: nola etorria; 21/9: zenen gureztat ceucan; 22/4: gucion jabia; 22/7: lembicico gaizquian; 23/3: guregatican pasa; 23/4: zuen eriotza.

* * *

Aita Donostik, *Gure Herria* aldizkarian, 1938 urtean, sail ontako zenbait bertso argitaratu zituan.

Ganexon Laborde'ren aotik, doña *-Gure Herria'n* arkituko du irakurleak- eta 3, 4, 5, 6 ta 2'garren bertsoak, orden orretan.

Sara'ko Ariztia andrearen aotik, bigarren bertsoa.

Eta Lekarotz'ko Legarrea baserrian, 1913-1914 urte inguruan, larogei urtetik gorako amona bati, 2, 3, 4, 16, 13 eta 12'garren bertsoak, orden orretan.

Aldaketarik ere badute iru emale auek. Bañan geienak, gipuzkoar bertso auek beren euskalkira ekartzearren sartuak.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Kanta batzuek oraiñ
bear ditut para,
begiratzuz munduan
asko aldetara.
Artu gabetanikan
pekatuzko karga,
gallenduba dala're
pensatzen det sobra,
zerurako bidea
ez da izango onela.

- 2/ Dotriñak dakarrena
asten naiz esaten,
pensatzen ez dutenak
aditu dezaten.
Ez noa ejemplo txarrik
munduan zabaltzen,
Jaunaren ministroak
au dute agintzen,
zeruko gloriara
sar gaitezen zuzen.

3/ Enpeñatu bear det
Jesusen legean,
kristau gaixto guztiok
konberti gaitean.
Eztegu bizi bear
pasio txarrean,
ez gaitezen ibilli
etsaien bidean,
damutan egon gabe
denbora joanean.

4/ Pensamentu txarrari
trabatu bidea,
eman gabetanikan
aurrera segida.
Santuen ejenploan
parte bat ori da,
biotzetik jartzea
Jesusi begira,
glorian pasatzeko
eternidadea.

5/ Seguru ez gaudela
pentsaturik ongi,
jarri, nere kristabak,
biotzetikan fiñ.
Aingeru guardakoa
badegu gurekiñ,
ez parte artutzeko
etsai gaixtoakiñ,
denbora degun arte
obra onak egiñ.

6/ Jesusek ez du munduan
animarik sobre,
danak berdiñ kosteak
aberats ta pobre.
Okerra ta zuzena
badira bi bide,
ez izateko dio
etsaien adixkide,
zeru irabazia
galdu ez dedien.

7/ Munduko gure izaera
bear nuke esan,
kristau bataiatuak
kondidera dezan.
Gere obra guztiak
dakazkigu bistan,
ez degu jarri bear
pekatuzko listan,
zeruan sar gaitzen
sekulako ditxan.

8/ Linborako moduan
gerade jaiotzen,
orduban illdakoak
ara dira joaten.
Bataio santatikan
gaituzte kristautzen,
zerurako bidean
baitare jarri zuzen,
geren alferkeriaz
ez badegu galtzen.

- 9/ Goizean jaiki eta
belauniko jarri,
gau ona pasa da ta
eskerrak Jaunari.
Pensatu kontzientziaz
ote gauden garbi,
gertatu gabetanik
gero negargarri,
badaukagu gai ontan
zeñek zuzen neurri.
- 10/ Esamiña egiñ biotzez,
artu dolorea,
au da induljentzia,
gure mesedea.
Goazen konfesatzera
kristau dan jendea,
etsaiari ixtera
guganako bidea,
asarratu ez dediñ
guztien Jabea.
- 11/ Suertez pekatuban
jartzen bagerade,
beñere ez deskansatu
konfesatu gabe.
Artu biotzetikan
pena ta dolore,
etsaia egiñ gabe
animaren jabe,
zerbait pensatutzeko
estaduan gaude.

12/ Zuzen konfesatzea
ez arren lotsatu,
sekulako negarrik
ez dezagun sortu.
Artzen dan penitentzia
kuidadoz kunplitu,
Aita San Agustiñek
au du predikatu,
etsaiak ez gaitzan
burutikan lotu.

13/ Jaunaren ministroai
esan pekatuak,
arren izan ditezen
danak barkatuak.
Bañan zuzen aditu
aien enkarguak,
luzeenaz ez dira asko
munduko orduak,
arrapatu ez gaitzan
sekulako subak.

14/ Pekatubak bota ta
garbitu bagera,
Jauna errezibitzera
goazen aldarera.
Belauniko jarririk
berari begira,
malkoa jaixten dala
gure arpegira,
biotza biguintzea
ongi konbeni da.

15/ Jauna errezipitzean
menaz esan: «Jesus,
Maria eta Jose,
neregana betoz.
Damutan arkitzen naiz
izanduba gaixto,
etsaiari emana
orrenbeste gusto,
aurrera Jesusentzat
nai det bizi oso.»

16/ Esplikatu naiz bada
nere sentimentuz,
kristandade garbian
segitzeko kontuz.
Guretzat mesedean
degu ori diña,
zeruan izateko
betiko gloria,
an gerta gaitzezela
ala bedi, Jesus.

Bertso auek, Bonaparte'ren bildumatik
ditugu. Moldiztegi-izena: *Donostian: Pio Ba-
roja-ren moldizteguian.*

BERTSO BERRIAK

1/ Enpeñatzera noa
alegin guziaz,
jendea muda dedin
gazteak eziaz;
lagun zadazu, Jauna,
zedorren graziaz,
esplikatu dezadan
gauza sustantziaz.

2/ Anparatuko nau ni
Jaun amorosoak,
konbeni diralako
gai ontan bertsoak;
asko enkargatu nai
ditut gurasoak,
nork bere kriaturak
nola azi gaixoak.

- 3/ Jaiotzen diranean
lenengo puntua,
gurasoak bear du
iduki kontua;
kristandadeak izan
dezan aumentua,
errezibitu bear du
bautismo santua.
- 4/ Denbora berean da
beste asuntua:
ondo kuidatzea
nork bere frutua;
batetik gorra dago,
bestetik mutua,
eskatu bage eman
maiz alimentua.
- 5/ Nork berez egin arren
obra korporala,
ez pensatu bakarrik
ori asko dala;
bear degu grazia
espirituala,
siniste ori gabe
ezer ez gerala.

6/ On guziak oi datoz
Jainkoagandikan,
zenbaitek au ala ez
usteagatikan;
eskatu umildadez
ta biotzetikan,
eztigu faltatuko
konbeni danikan.

7/ Aurra dijoanean
piska bat aziaz,
begiratuko zaio
kariño biziaz;
eskatu Jainkoari
alegin guziaz
sokorritu dezala
beraren graziaz.

8/ Uso arrazoizkora
noiz dan allegatu,
dotriña ikasita
orduko paratu:
lenengo zer sinistu
eta zer eskatu,
gero zer obratu ta
zer errezibitu.

- 9/ Gurasoak daduka
obligazioa,
gaitzean repretitu,
maiz orazioa;
gaztetxo diran arte
egin azioa,
zartu ta zallago da
kentzen bizioa.
- 10/ Obra askoren bistan
pensatu det nerez:
naturalezak griña
txarrak ditu berez;
indarra artzen badu
korrejitu bagez,
pasioak bentzitzen
gero ezta errez.
- 11/ Askoren portaera
nai det adiazi:
aitak kastigatu nai,
amak galerazi;
alakoak umerik
ezin ondo ezi,
eskandalo ematen
gero dira bizi.

12/ Batak korrejitu nai,
besteak anparatu:
«Oraingoagatikan
obe da barkatu.»
Geroko desafio,
gutxi ikaratu,
bien kontra orobat
bera preparatu.

13/ Ondo leziazeko
mirabe gazteak,
alkar artu bezate
senar-emazteak;
ez batak batera ta
bestera besteak,
ez du errespetik
ala ekusteak.

14/ Obra onak egin da
konseju obeak,
ori agindutzen du
guzion Jabeak;
ikasi dezatela
ala mirabeak,
ez izan flojo eta
ardura bageak.

- 15/ Gurasoa da aurrak
akonsejatzeko,
enkargatu kanpotik
goiz etxeratzeko;
zar, andi ta dijnoak
errespetatzeko,
lagun gaiztoetatik
apartatutzeko.
- 16/ Zer pausotan dabilzan
kontuz atenditu,
gaizki baldin badabiltz
ondo korrejitu;
onak eta umillak
izan nai baditu,
lezio onak ematen
gazterik segitu.
- 17/ Erakutsi lana ta
munduko bizitza,
estaduez konforme
zer modutan izan;
ezin egin duela
bizi bada zartzean,
gurasoa umeak
sokorritu dezan.

18/ Biraldu umeak maiz
konfesatuzera,
eta sakramentuak
errezibitzera;
gañera Jainkoaren
itza aditzera,
gurasoa, orrela
portatuko zera.

19/ Debozioaz entzun
Jainkoaren itza,
berak lagunduko du
zuzen bagabiltza;
ona egin dezagun
munduko bizitza,
gero alkanzatzeko
sekulako ditxa.

20/ Munduan dabilena
santidade billa,
askok burlatu arren
ura da abilla;
zeruan pronto dago
arentzako silla,
gloria gozatzeko
ala izan dedilla.

Bertso-sail au, Bonaparte'ren bilduman azaldua da. Moldiztegiaren izena, beeko barrenean ematen digu: *Donostian: Pio Baroja-ren moldizteguian.*

BERTSO BERRIAK

- 1/ Abuztuko illaren
emezortzigarrena,
bertso bi paratzeko
artu det ordena;
umeak zer oi duten
ikasten aurrena,
lenago kostunbria
jarriya dagoena,
beti maldiziyoa
itzikan onena.
- 2/ Bertso berri batzuek
nai nituzke jarri,
mundu guziyarentzat
eskarmentagarri;
kulpitutik entzuna
esango det garbi:
ezpazaio barkatzen
obeto elkarri,
infernuko zoletan
omen gera sarri.

- 3/ Taberna adiskide,
asarre eliza,
orrek galdu biar digu
sekulako ditxa;
kristau gaizto guztiyak
ondu al banitza,
gauz au predikatzeko
eman nuben itza,
beti geren animen
kaltian gabiltza.
- 4/ Zer egin biar degun
guk azken fiñian,
arriturikan nago
gauz orren gañian;
ezpagera bizitzen
konduta onian,
akordatuko zagu
denbora juanian,
anima infernura
sartutzen danian.
- 5/ Bostgarren mandamentua
iñor ez iltzia,
bekatu gaitza dala
badet aditzia;
gorputz eta anima
gizona galtzia,
gañera Jaungoikua
ofenditutzia,
alakua neke da
zeruan sartzia.

6/ Seigarrengo orretan
asko gera trebe,
ez det iñor berezten
aberats ta pobre;
bañon bekatu eginda
ez gerade libre,
Jaungoikuen legia
bear degu gorde,
baldin ezpadegu nai
infernuan erre.

7/ Iltziaz ez oroitzen
jendien erdiya,
beti banidadia
eta pikardiya;
ezpadegu idukitzen
anima garbiya,
guretzat dator pena
ikaragarriya,
Jaunak izan dezala
miserikordiya.

8/ Izugarriyak dira
infernuko subak,
daukazkianarentzat
bekatu pisubak;
aditu bada, umeak,
igual gurasuak,
bekatuban luzaro
gaudezen gaxuak,
Jesus adoratzeko
zabaldu besuak.

- 9/ San Migel pisaketan
ari da zeruban,
esaminatuko gaitu
nor bere moduban,
zer bizi-modu degun
igaro munduban;
gaiztuen sententziya
despatxu klaruan,
batere eztu baliyo
dirubak orduban.
- 10/ Erremediyo danak
Jaungoikuak ditu,
atentziyubarekin
au ondo aditu:
anima biar degu
len-bait-len garbitu,
Jaungoikuen legian
aurrera segitu,
ez dezagun geiago
arren ofenditu.
- 11/ Bataiotik genduen
zeruba irabazi,
geron faltaz galtzerik
ez luke merezi;
beti esperantzetan
biar degu bizi,
jeniyo txar guztiyak
leneztandik utzi,
zeruban sar gaitezen
aingeru ta guzti.

12/ Nik esanagatikan
nere ditamena,
nork berak pensa beza
gauzarik onena;
zeruban izaten da
milla norabuena,
ikaragarriya da
infernuko pena,
berriz ezta aterako
bein sartutzen dana.

13/ Bein sartu ezkeroztik
infernuko zeldan,
probatu biarko du
martiritza zer dan;
kontrariyo guztiyak
an dirade bertan,
kargatu naiagatik
barkuba urretan,
an erre biarko du
betiko garretan.

14/ Gu ez juatiagatik
iñor infernura,
erreguka ari da
Aita Eternua;
sazerdoteen itza
esatera nua:
animatzeagatik
jende umanua,
asko ikusiya da
Jesus dibinua.

15/ Odolik baldin bada
gure biyotzian,
negar egin lezake
artaz oroitzian;
milagrua pasa zan
Kristoren etxian,
garizumako ostegun
santu arratsian;
gu salbatzeagatik
ill zan gurutzian.

16/ Ibilli bagetandik
geigo pikardiyan,
Jesusekin biagu
sartu konfradiyan;
aingerubak daudela
animen guardiyan,
an junta gaitzela
zeruben erdiyan,
orra amasei bertso
euskera garbiyan.

Bertso-sail au, Bonaparte'ren bildumatik degu. *Tolosan: Mendizabal alargunaren modizteguian* argitara emandako kanta-paper bat da.

Ez da egillearen izenik esaten. Urterik ere ez, naiz-eta lenengo bertsoak eguna esan: «Abuztuko illaren emezortzigarrena».

Bañan papera, esan bezela, Mendizabal'en alargunarenean argitaratu zan. Mol-

diztegi ori, izen orrekin, 1840'garren urte-
tik 1877'garren urtera ezagutu zan. Tarte
ortan jarritako bertsoak, ditugu, beraz.

* * *

Aita Donosti'k, bertso auek kantatzeko
bi doñu bildu zituan, eta bere *Euskal Eres
Sorta* doñu-bilduman argitara eman, 238
eta 282 zenbakietan. Lenengoa, Sunbi-
llan'n jaso zuan; bigarrena, Arraiotz'en.

* * *

Bertso auen beste argitaraldi bat, askoz geroago-
koa, *Imprenta «La Económica», Arroca, B, bajo (Amara)*
moldiztegian egin zan. Oiartzun'go Makutso baserrian
jaso genduan, Maria Oiartzabal'en eskutik.

Aldaketak: izenburua: Bertso Berriyak Gaizumara-
ko jarriyak: 3/3: orrek galdu biaugu; 3/9: asko geren
animen; 4/7: gogoratuko gera; 5/5: anima ta gorputza;
6/2: asko gaude trebe; 6/9: gero ez badegu nai; 8/5:
aditu ba umiak; 8/6: eta gurasuak; 8/8: zaudezten gu-
ziak; 9/4: biar dan moduban; 10/4: au ongi aditu;
11/5: munduari nai diyot; 11/6: au adierazi; 12/4:
gauzik obiena; 13/8: barku bat urretan; 14/5: apaiz
eren itza; 14/9: asko suprituba da; 15/3: negar egin
liteke; 16/1: lbilli gabetandik; 16/2: beti pikardiyan.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Gauza baten gañian
noa itz egitera,
guziz konbeni dana
esplikatzera;
asestitu ezazute,
jendiak, aditzera,
zarrak eta gaztiak,
saiatu ikastera
nola biar gendukian
juan konfesatzera.

- 2/ Konfesiyo on bana
egiteko graziya
Maria Santisimari
eska lenbiziya;
onela egin dezagun
gure dilijenziya,
ongi esamiñatzen
gure kontzientziya,
berak logratuko'igu
bear degun guziya.

3/ Beti ez gauden loturik
etsaien katean,
ongi konfesatzeko
prebeni gaitan;
erretiruan jarri
paraje apartean,
esamiña zuzen egiñ
zeñek bere artean,
zenbait oker egin degun
animen kaltean.

4/ Zer edo nola diraden
gure uts egitiak
eleuke gutxi balio
kontu ateratziak;
au berau agindu digu
gure Jesus maitiak,
onela egin ditzagun
berakin pakiak,
ez arren deskuidatu,
kristau pekadoriak.

5/ Mandamentu guztiak
errejistatuak,
presente para itzagun
gure pekatuak,
itzez eta obraz
gaizki gertatuak;
onela egon gaitian
gu presentatuak,
gero izan ez gaitian
zori gaiztokuak.

6/ Gure esamiña onak
daukan onoria,
arren aditu ezazu,
kristau pekadoria;
biotzetikan bear da
forma doloria,
nola ofenditu degun
gure salbadoria,
izanik bera bezin
santu amabilia.

7/ Kontsideratu ditzagun
infernuko penak,
zenbat padezitzen duen
lenago an daudenak;
gu bezela munduan
len bizi ziranak,
su eta garren artian
orain an animak,
orra zer paraderua
justu eztabillenak.

8/ Infernuan daguanak
ez du deskantsurik,
alderdi guzietatik
an dago suturik;
sekula eztu izango
gloria ekusterik,
penaz edo naigabez
atormentaturik,
ala izan biarko du
gutziz penaturik.

- 9/ Gure gaiztakeriak
mediante dirala,
begira ezatorkigun
tormentu.....;¹
arren beldur gaitean
bertatik onela,
kondenatu ez gaitian
triste oiek bezela,
Jaungoikoak beragandik
bota ez gaitzala.
- 10/ Segurantzarik beñere
eztegu munduan,
eztakigu ilko geran
oraiñ gauden orduan;
gauza ori ere bai
iduki goguan:
derrefente illikan
zenbat da infernuan?
Orobat gu're gaude
orain peligruan.
- 11/ Egin dezagun betiko
proposito sendoa:
ez ofendituzeko
Jaun soberanoa;
atera pekatuaren
pozo benenoa,
anima geldi zangun
garbi ta sanoa,
zeruan gozatzeko
glori eternoa.

12/ Goazen konfesatzera
prestaturik ongi,
esan ditzagun guziak,
txiki eta andi;
gure pasadizua
esplikatu garbi
umiltasunarekin
konfessoreari,
eztira ikaratuko
izan arren ugari.

13/ Jesusek bialtzen digu
zenbait mandatu gozo,
konfesa ditzagula
pekatuak oso;
errezibi ezkerro
onenbeste abiso,
batere beldur gabe
guazen animoso,
eztaude kondenatuak
gu bezin ditxoso.

14/ Lotsaz edo maleziaz
gordetzen badegu,
gure konfesiya
utsa balio du;
gu.....
begira daukagu,
beraren esanetan
obe degu umildu,
sententzi gogorren bat
eztakigun amildu.

15/ Gure pekatuen zorra
pagatzeagatik,
penitentziya egiten
saiatu gogotik;
ofrezitu Jesusi
gure trabajutik,
nere Jaun Jesukristo
esan biotzetik,
arren guarda gaitzala
eriotza gaiztotik.

16/ Gure jenio gaiztoa
emendatutzen,
ezagutu dezagun
zer estadutan gauden;
egun gutxi dadukagu
nerekiko emen,
Jesus billa dezagun
biotzetik arren,
beretzat eskojituak
izan gaitian, amen.

Bertso-sail au, Bonaparte'ren bildumatik degu; moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik.

¹ Ezin irakurri, bertso-paperak emen zer dion. Berdin gertatzen da 14'garren bertsoan.

ZERUKO GLORIAREN KANTAK

1/ Zer dan esan nai nuke
zeruko gloria,
Jauna, argi zadazu
nere memoria;
presente paratutzen
ango iduria
lagun zadazu arren,
Birjiña Maria,
anima dediñ ondu
ta pekataria.

2/ Zerua jarri nai det
dagokion faman,
itzegin al baneza
tokatzen dan forman;
maiz oroitzeko ireak
obe dira eman,
orra zer deseok ni
mintzatzen naraman:
guziak gloriara nai
nituzke eraman.

3/ Eternidaderako
bizi-leku ona,
ezta gaizki izango
logratzen duana;
ura nun izango dan
egingo det plana,
ea guziok artu
paperatxo bana,
zergatik dan danontzat
txit konbeni dana.

4/ Guzien egillea
Jauna izanikan,
bere poderioan
ez du kaborikan;
enpeñoz zerua Ark
dauka egiñikan,
berekin justuentzat
señalaturikan,
zer leku izango dan
pensatu ortikan.

5/ Zerua da leku on
eta sagradua,
dago famili santu
eta onradua;
eskasenak ere du
justuen gradua,
zori onekoa da
aien estadua,
Jaunaren konpañian
zer bizimodua!

6/ Jaungoikoa presente
daukate guztiak,
sostenitutzen ditu
beraren graziak;
ez dute kuidadorik
mantenu jantziak,
kardabak eta danak
munduan utziak,
antxe serbitzen dira
konbenientziak.

7/ Zeruan bildurrikan
ez da ezerenik,
ez onen kuidadorik
eta ez arrenik;
beti gusto osoak
Jainkoak emanik,
ezin billa dezake
dixaren azkenik,
guzientzat uraxen
deseatzen det nik.

8/ Zeru aundi ederra
paregabekoa,
esan al baño gradu
andiagokoa,
aingeru santu justuz
apaindutakoa;
guziak alabatzen
dute Jaungoikoa,
zergatikan dagoen
merezitakoa.

- 9/ Alako lekua ta
orlako lagunak
billatzen ditu bera
garbi dagoanak;
baita gozatu ere
ditxa zorionak,
eternidade ontan
iraungo duanak,
presumitu dezake
on derizkionak.
- 10/ Gustableak dirade
zeruko kontuak,
aingeru eder, aien
soñu ta kantuak;
Jauna alabatutzen
santa ta santuak,
ditxa gozaten daude
anima justuak,
betiko zorionak
daduzka poztuak.
- 11/ Eskritura bearrik
ez dago zeruan,
betiko ditxa dauka
leku seguruan;
errentaren kezkarik
ez dauka buruan,
ez du eskatimarik
egiten diruan,
alako nagusia
on da inguruan.

- 12/ Leku gustoso eder
garbi ta txukuna,¹
Jaunaren parajea
dana da jakiña;
ez dute an artuko
anima zikiña,
edozein gaiztoentzat
ez dago egiña,
mantxatuak garbitzen
saia alegiña.
- 13/ Nolanai ez plantatu
gloriako ustean,
mantxarik txikiena
ere du kaltean;
ezpada sartzen ere
infernuko atean,
purgatu bearko du
lekuren batean,
zeruak ez du artzen
garbitu artean.
- 14/ Nere aditzalleak,
esateko zuzen,
Jaunak beretzat ustez
kristautu ginduzen;²
gure billa dabil da
anima gaitezen,
bera alabatzera
zerura guazen,
animak sekulako
deskansa ditezen.

¹ Bearbada, *txukiña* bearko luke, ola ere esaten da ta.

² Bertso-paperak: *kristau ginduzen*.

- 15/ Gure egillearen
bere alegiñak,
len da gero ez dira
txantxetan egiñak;
amorio nobleak
dauzka eragiñak,
erremeditu dizku
lengo utsegiñak,
zeruan emateko
guri atsegiñak.
- 16/ Adanen pekatutik
zerua itxi zan,
Kristo gizon egiñik
argatik jetxi zan;
justuak penatzera
ondo etzeritzan,
beti Ark amodio
gizonagan izan,
gu salbatzeagatik
gurutzean ill zan.
- 17/ Kristok egin du zenbait
trabaju ta neke,
erredimitu gaitu
biziaren truke.
Batek geiagorik zer
egin al dezake?
Arzaz baliatuko
ezpagiñateke,
gero kastigatzea
arrazoi litzake.

- 18/ Okerrik aundienak
egin balituzke,
damua aitortuaz
zuzentzen lituzke;
jarri Jesukristori
barkazio eske,
erremedio danak
berak badaruzke,
zeruko ditxagatik
saiatu gaitzke.
- 19/ Jauna, kriatutzeaz
degu milla grazi,
zeruko deretxoa
berriz irabazi;
erakutsi ere bai
zer modutan bizi,
faltatzen balitz ditu
erremedioak utzi,
Artzek ofenditzerik
ez luke merezi.
- 20/ Gelditzen gera zenbait
ditxa gozorekin,
despeditzera noa
ogei bertsorekin;
kantatu ditzakegu
poza askorekin,
prebenitu ere bai
milla gustorekin,
gloriara joateko
Jesukristorekin.

Bertso-sail au, Bonaparte'ren bildumatik degu; moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik.

* * *

Errezil'en, Iraola-zarra baserrian, bertso-paper bat arkitu genduan, *Tip. C. Berroya Vergara* moldiztegi argitara emana, sail ontako amabost bertsorekin: 7, 13, 14 eta 15'garrena falta. Argitaraldi au, askoz ge-roagokoa da.

Aldaketak: izenburua: Bertso Berriak; 1/5: presente paratzen det; 1/7: arren lagun zadazu; 1/9: anima dediñ ondo; 1/10: bai pekataria; 2/1: Zeruan jarri nai det; 2/2: dagokidan eran; 2/7: orra zer deseoak; 2/9: guziok gloriara; 2/10: gaitzala eramane; 3/5: aura nun izango dan; 3/8: kanta-papel bana; 4/3: beraren poderian; 5/2: eta segurua; 6/7: kuidoak eta lanak; 8/1: Zeru aundi eder; 8/5: aingeru santu gustoz; 9/2: alako lagunak; 9/3: billatzen dute bera; 9/7: eternidade guzian; 9/9: presumitu ditzake; 10/5: Jauna alabatzen daude; 11/3: beti ditxa dauka; 12/10: egin alegiña; 16/5: justuak penatzen; 16/7: baña Ark amorio; 16/8: guzientzat izan; 17/1: Kristok egin du zenbat; 17/3: erremediatu gaitu; 18/2: egin balitezke; 18/4: zuzendu litzake; 18/8: berekin badauzke; 18/10: saiatu gitezke; 19/3: zeruko deretxoak; 19/7: Aretzek ofenditza; 19/8: ez luke merezi; 19/9: gure pasio txarra; 19/10: obe degu ezi; 20/1: gelditzen gera zenbat; 20/3: despatxatzer nua; 20/4: amasei bertsokin.

* * *

Eun bat urteren buruan, bertso auk bizirik zeuden erriaren gogoan. Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak, 1959'eko Urriaren 9'an, sail ontako zenbait bertso bialdu baitzizkidan: 1, 5, 9, 12, 10, 17 eta

19'garrena, osorik eta orden orretan; 4'garrenaren 5-10 lerroak, eta 6'garrenaren 1-4 lerroak.

Noren aotik jasoak zituan, onela adierazten zuan: «1906'garreneko Karmen egunian, Alejandro Onaindia'k Markiña'n ikasiak. Amabi bertso ei zirean, baña bestiak aztuta daukaz».

Aldaketak: izenburua: Zeruko gloria; 1/5: presente paratzen det; 1/7: arren lagun zadazu; 1/9: animau dedin ondo; 1/10: bai pekataria; 5/2: eta segurua; 5/8: oien estadia; 6/2: daduke guztiak; 6/3: sosteniduten ditu; 9/2: alako lagunak; 9/3: billatzen dute bera; 9/7: eternidade guztian; 9/9: presumitu ditezke; 9/10: an derizkionak; 10/3: aingeru eder oien; 10/5: Jauna alabatzen daude; 12/9: mantxatua garbitzen; 12/10: egin alegiña; 17/1: Kristok agindu zigun; 17/3: erremediatua gaitu; 17/9: kastigatzia gero; 19/3: zeruko deretxuak; 19/9: gure pasio txarrak 19/10: obe deguz ezi.

Aldaketa auetatik ikusten danez, Alejandro Onaindia'k Bergara'ko Berroya moldiztegitik ateratako bertso-papera eskuratu eta ikasi zuan.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Formatu biar ditut
zenbait bertso berri,
kristau miñgaiñ-luzien
eskarmentagarri;
iñoren fama galtzen
asko dabill larri,
oriyen onran kantak
biar ditut jarri.

- 2/ Konzienzi gaiztoko
persona trastiak
aotan artzen dituzte
mirabe gaztiak;
oiek gezurra esan da
lotsatzen bestiak,
gaizkiturik negarrez
guraso tristiak.

- 3/ Gezurra sumatu ta
gezurak kontatzen,
batzuek minuturik
ez dute faltatzen;
ausenziya ta salsa
beti aumentatzen,
zenbait ito artian
ez da kontentatzen.
- 4/ Orretakua dago
asko emakume,
Mari Migel moduko
zenbait gizaseme;
beste batzuek berriz
guraso ta ume,
naiz mezarik entzun ez
ausenziyan firme.
- 5/ Penagarriyak daude
zenbait miñgaiñ-zikiñ,
esnatu ordurako ¹
murmuratzen ekiñ;
zer esaten dituzten
Jaungoikuak jakiñ,
ez itz egitia obe
orrelakuakiñ.

¹ Bertso-paperak: *esnatu orduco*.

6/ Zenbaitek jartzen ditu
salsa arritubak,
zeiñ diran badakigu
oso korritubak;
auzoko gaiztuakiñ
daude kunplitubak,
obligatutzen ditu
eziñ sufritubak.

7/ Au da asko personak
egiten dutena:
beren mantxak bialdu
auzoko batena;
kostunbre ori dago
txit oso ertena,
amaikak egiten du
orrelako lana.

8/ Ez degu estimatzen
projimorik kasik,
amatu biarran
ofenditu pozik;
oserbatzen bazaio
bajezako gauzik ²,
deklaratuko dira
demoniok ezik.

² Bertso-paperak: *bagezaco gancic*.

9/ Projimua ofenditzen
ari gera lazki,
orretakuak gaude
zortzitatik zazpi;
ikusi naiago da
ondo baño gaizki,
dotriñak beste aldera
ematen du noski.

10/ Munduban egiñ arren
ausenzi gozuak,
gero azalduko dira
emengo kasuak;
juango gera umiak
eta gurasuak,
kargu artuko digu
Jaun amorosuak.

11/ Munduko ausenziaz
ez biziro poztu,
zeñek bere kontuba
eman biagu estu,
geren denborakua,
zuzen edo justu;
orduban damutubak
baliyoko eztu ³.

³ Bertso-paperak: *baliyoco ez du*.

12/ Orra bertso berriyak
euskeraz publiko,
oietako paperak
askok ditu naiko;
itxu gaixoa saltzen
pozik da ibilliko,
ogiya izan dezan
illabete biko.

Amabi bertso auek, Azpeiti'n jaso genituan, bertako Fidel Uria apaiza zanaren paperetan.

Bertso-paper bat da. Moldiztegi-izena: *Donostiyan: Juan Osesen modizteguiyan*. Bigarren karlista-gerratean, bertso-paper asko argitaratu ziran etxe orretan. Eun urtetik gora, beraz.

Nork jarriak diran, ez da esaten. Eta txeeetasun ori somatzeko biderik ez degu ikusten.

Azken bertsoak, saltzallea nor izan zan adierazten digu: itxu bat. Asteasu'ko itxuak oso ezagunak izan ziran beren denboran. Baita Ezkio'koa eta Segura'koa ere.⁴ Baiñan besterik ere izan zan eta ezin ortik argitasunik atera.

⁴ Ikus: *Auspoa*, 68-69-70 eta 106'garren aleak.

BERTSO BERRIAK
ETERNIDADEAREN GAÑEAN JARRIAK

1/ Kanta bat paratutzeko
artu det idea,
eman al banezake
zerura bidea;
gure mundu piska au
korrika dijua,
pensa dezagun zer dan
eternidadea.

2/ Ill bearra daukagu
guztiok jakiña,
obe litzake sarri
akordatuko bagiña;
Jaungoikoa serbitzen
egĩñ alegiña,
gero izan ez dezagun
sekulako miña.

3/ Iltzen geran puntuan
gure sentenziya,
ate batetik bestera
zer diferenziya;
onarentzako dago
betiko gloria,
gaiztoarentzat pena
.....

7/ O deabruak
dauken engañua,
gu nondik galduko
bere enpeñua;
eragiten badigu
berak agindua,
gauza jakiña degu
betiko infernua.

8/ Nere kristau maiteak,
jakiñean bizi:
ezin serbituko di-
tugu bi nagusi;
Jaungoikoa zeruan
nai duanak ikusi,
deabruaren legeak
bearko ditu utzi.

9/ Zertarako da izatea
kristauaren izena,
Satanasen eskolan
baldin bagabiltza?
Bautismo santuan
eman genduen itza,
kunplitzen duen
... ..

13/ Suak ikutzen badigu
gure gorputzean,
ezin sufritu degu
instante batean;
arren, kristau maiteak,
kontura gaitean
eternidadeko suak
zer izango diran.

14/ Munduaren asieratik
gauden orduraño,
eroriko zan lurrera
zenbat euri-tanto;
ainbeste milloi urte
pasatu eta gero,
libratzeko esperantza
infernuan balego.

15/ Ai zer konsueloa
kondenatuena:
noizbait akabatuko da
dadukaten pena;
baña sobra dakie
betiko dutena,
ori da tormenturik
... ..

19/ Bitarteko degula
Birjiña Maria,
eskatu Jaungoikoari
alegin guztia:
konfesio on bana
egiteko grazia,
ala logratutzeko
zeruko gloria.

20/ Pekatari gaixoak,
orain animatu,
gaiztoak izan bagera
erremediatu;
zer peligrotan gauden
ondo begiratu,
gero ontzeko asmoan
ez arren fiatu.

21/ Eternidade gañean
pensatuko balitz,
nonbait gure biotzak
ez badira arriz;
ez giñake engañatuko
onenbeste aldiz,
edo bestela fedean

... ..

Bertso auek, Donostia'ko Oriamendi baserriko Anizeto Kalonje'k emandako kanta-paper batetik ditugu.

Bañan papera puskatuta dago; beeko erdia falta du. Puska orrekin batera galduak dira 4, 5, 6, 10, 11, 12, 16, 17, 18, 22, 23 eta 24'garren bertsoak. Baita ere 3, 9, 15 eta 21'garrenaren azken lerroa ere.

Era berean, galduak izango dira bearbada beste argibide jakingarri batzuk ere; adibidez, moldiztegiaren izena eta egillearena. Oiek askotan paperaren beko barreanean eta azken bertsoan esaten baitira.


Urterik ere ez degu, ori geienetan lenengo bertsoan esaten bada ere. Bañan aspaldiko bertsoak dira, paperaren itxurak aditzera ematen duanez beintzat. Zaarrez orain eun bat urtekoak bai gutxienez.

Bertso baldar xamarrak dira neurrian.
Itzen bat ere falta da zenbait lerrotan. Ori
moldiztegiaren utsegitea izan diteke. Eta
puntu itxusirik ere badago. Neurri eta pun-
tu oiek ez ditugu ikutu; dauden ortan uztea
obe da.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten zirria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.

136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).



AUSPOA
LIBURUTEGIA



ANTONIO ZAVALA

**KRISTAUBIDEA
BERTSOTAN**

II

**KRISTAUBIDEA
BERTSOTAN
II**

AUSPOA LIBURUTEGIA

175

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa Maria, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

**KRISTAUBIDEA
BERTSOTAN
II**

AUSPOA LIBURUTEGIA
1984

Azalean: Asteasu'ko erria.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Guipúzcoa)
Fotokonposatzaile: Lente - Estella
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-117-5 (obra completa)
ISBN 84-7158-119-1 (tomo II)
Depósito Legal: NA. 1.068-1984

ARKIBIDEA

Zeruetako bideak	9
Bertso Berriak: «Munduan geran artian garbi geren barrengo mantxia...»	15
Zumarraga'n 1885'garren urtean Jesusen Biotzeko billera txit santuari	23
Bertso Berriak Ama Doloretakuari jarriak	31
Bertso Berriak: «Birjiña Santa kontsolatzalle gure anparatzallia...»	39
Bertso Berriak Rosario Santuari jarriak	45
Bertso Berriak: «Bersifikuak kantarietan, doktoreen obserbantzia...»..	55
(1896) «Eskandaluak dauzkagu traba»	63
Bertso Berriak Ibarzabal'ek jarriak ...	75
Bertso Berriak Sakramentuen gañian jarriak	83

Bertso Berriak: «Zeruko Aitari gal- detzen diot kantatutzeko grazia...» .	91
(1909) Bertso Berriak: «Aurten milla ta bederatzi eun ta bederatziga- rren urtia...»	97
(1909) Bertso Berriak Anzuola'ko Agustin de Arana'k jarriak.	105
(1909) Bertso Berriak San Franzis- koren seme leialak munduko al- derdi guzietan egiñ oi dituzten lan eta konbertsiyoen gañian ipiñiak ..	115
Amar Mandamentuak: «Jaunak para- tu ditu amar mandamentu...»	121
Bertso Berriak inpernuko penaren gañian jarriak	129
Amar Mandamentuak: «Bertso berri batzuek nai ttunak ikasi...»	135
(1932) Bertso Berriyak: «Milla ta beatzi eun ogei t'amabian...»	141
Bertso Berriak Ernio'ko peregrina- ziyuaren gañian jarriak.	151

ZERUETAKO BIDEAK

- 1/ Zeruetara bi bide daude
aldapak edo estuak:
alde batetik juango dira
inozentziako justuak;
eta deretxo ori galduak ¹
pekatuetan nastuak,
penitentzia logratu bear
ortikan aldrebestuak,
konfesio onakin bear du
oker dijuan gaiztuak.

- 2/ Konfesioaren kondizioa
esamiña da aurrena,
eta dolore egiazkua
eskatutzen du urrena;
propositua eragillia
biotzetik dakarrena,
aitormen orrek izan biar du
osoa edo zuzena,
penitentzia egin obrakin
nork bere pekatuena.

¹ *Eta ori guk erantsia da, silaben neurria osa dedin.*

- 3/ Pekatarien Ama maitia,
egiten dizut erregu,
Ebaren ume desterratuak
zure deiez gaude gu;
ai, Seme Jesus pekatuakin
gaizki tratatu badegu,
damuturikan konfesatzeko
asmoa darabilkigu,
orretarako zure grazia
orain deseitzen degu.
- 4/ Ama graziaz betetakua,
orain zurekin batian,
kontzientzia esamiñatzen
bertatik asi gaitian;
zer gaitz dadukagun Jesus eta ²
gure animen kaltian,
ezin oroitu bagerade
orain guziak batian,
artu denbora komeni dana
au ondo egin artian.
- 5/ Lenengo lana esamiñatu
noiz konfesatu giñaden ³
eta animak orduan ondo
sendatu ote ziraden;
konfesioak osoak edo
berritu bearrak diraden,
begira obrak zimentutikan
zer moduz asiak dauden,
redimitzeko jakin bear du
berriz premian geraden.

² Adurriaga'renean: *zer gaitz daukagu Jesus ta.*

³ Adurriaga'renean: *iñoz.* Gure iritziz, *noiz* bear du.

- 6/ Amar ditugu Jaungoikuaren
legeko mandamentuak,
eta beste bost Eliza Santak
aien faborez artuak,
obra miserikordiazkuak
premiara paratuak;
oiek guztiak guardatzeko
gu gaude obligatuak,
argaltasunez faltatu degun
orain atera kontuak.
- 7/ Jaungoikoaren projimoaren
kontrarako izanarekin,
pekatu degu pensamentua
itz, deseo ta obrakin;
kontu estado, enpleo, kargu
ta obligazioakin,
dudan ta zierto zenbat alditan
faltatu dan zuzen jakin,
esplikatzeko bear dan lekuan
bere zirkunstantziakin.
- 8/ Pekaturako oitura zarrak
ta bere zirkunstantziak,
purgatu bear dute kanpora
barrunbeko maliziak,
bestela dakar lenera azkar
sustraiak bertan utziak;
geren animen medikuari
adierazi guziak,
ondo garbitu nai baditugu
norbere kontzientziak.

- 9/ Naturaleza argala degu
eta memori flakua,
engañatzea gerta liteke
iñoiz gu bezelakua,
ez oroitzea edo aztutzea
noizbait utsegindakua;
biotzetara begira dago
beti gure Jaungoikua,
konfesio on bat Jaunak artzen du
alegiña egindakua.
- 10/ Jaungoiko ona ofenditua
jarri gaitezen dolorez,
kontriziozko aktua da au
baldin badator amorez,
konfesatzeko asmoarekin
bertan barkatzen du berez;
atriziozko damua dator
kastiguaren bildurrez,
barkatutzen du ark ere baña
konfesatu artean ez.
- 11/ Dolore ori zabaldu bear du
pekatu guztietara,
konfesiotik frutu onikan
nai baldin badu atera;
segitutzeko asmorik badu
lengo biziyuetara,
konbertitzea falta da emen,
dijua bere kontrara,
penitentzia orde z sakrilejioak⁴
konfesoren oñetara.

⁴ Adurriaga'ren esku idatzian: *penitentzia ordi*.

12/ Eun pekatari gorroto eta
bati kariño badiyo,
oraindik ere lan txarra bati
orrek segitu nai diyo;
ematen ditu etsaiak zenbat
kontrarako erremeyo,
sakrilejioz karga geiago
animari jartzen diyo,
kondenatutzen dirade franko
lan ori dala mediyo.

13/ Propositua sendoa artu
dezagun aurrerakuan,
ez iñun sartu.....⁵
lanbide peligrasuan;
ez agoan Jesus biotz falsoan
eta deabrua kolkuan,
Jaungoiko ona engañatuta
ala daukagulakuan,
lanak izango dira kontuak
gero eskatutakuan.

14/ Egiazkua artu bear du
biotzez kontrizioa,
lotsa ta ez bildur egin⁶
bear du konfesioa;
konfesoreak emango dio
bere absoluzioa,
penitentzia pekatuena
eman satisfazioa,
modu onetan alkanzitzen du
guzion barkazioa.

⁵ Ezin irakurri esku-idatziak emen zer dion.

⁶ Bi silaba-edo falta dira lerro ontan.

15/ Gure anima eduki gabe ⁷
gero enfermedadian,
sendaturikan para ditzagun
betiko sanidadian;
penitentzia eginda jarri
zeruetako bidian,
geren denboran iraun dezagun
Jaunarengana idian,
beti gloria gozatutzeko
gero eternidadian.

Amabost bertso auek, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren kuadernotik artuak ditugu. Eskuz idatzita daude. Urterik ez da esaten; bertsolariaren izenik ere ez. Izenburua, kuadernoak ere orrelaxe du, lenengo bertsoetik artuta. Baina gaia konfesioa da.

⁷ Adurriaga'ren esku-idatzian: *Gero anima*.

BERTSO BERRIAK

1/ Munduan geran artian garbi
geren barrenko mantxia,
orduan zuzen emango degu
bide onetik martxia;
aingeru asko gure fabore
zeruetatik jatxi'a,¹
serafin danak musika jotzen,
San Migelek du kotxia.

2/ Esku batian ezpata dauka,
bestian berriz pisua,
mundu onetatik argana dijua
gure anima gaixua;
ez dudarikan iñork eduki,
gauza au da prezisua,
juzgatutzeko an egongo da
dana guzien Maisua.

¹ Bertso-paperak: *jatxi da*.

3/ Noski arako egiña dago
kamiño zuri-zuriya,
asi ezker aldaparik ez,
bide ona ta zelaia;
geroko ez utzi iñortxok ere,
jaunak, oraiñ da garaia,
bestela noski botako digu
deabru zarrak artzaia.

4/ Aita San Pedrok giltza an dauka,
jaunak, zeruko atian,
poz anditxuak artutzen ditu
gu emendikan juatian;
Luziferrek du bandera txarra
sustrai gaiztoaz betia,
San Migelek ari emango diyo
ezpatarekin kortia.

5/ Urre-galoizko silloi ederrak
guretzat daure zeruan,
juaten bagera gu ere ara
anima onen moduan;
jornala zintzo pagatuko du ²
gure Jesusek orduan,
geroko gauza zer biar degun
kontuz ibilli munduan.

² Bertso-paperak: *pagatu du*.

6/ Ogei bat bertso nai ditut jarri
guzien eskarmentuko,
neroni ere bildurrez nago
ez ote dioan kontuko;
eiztari txarrak arrastorikan
ez al digute artuko,
oien pausoan dabillenikan
ez da zeruan sartuko.

7/ Artu ta eman, saldu ta erosi,
izan biar du zuzena,
gañera berriz projimuari
opa bizaio gauza ona;
kontzientziya esamiñatu
goizian al dan goizena,
konfesio onak barkatzen diyo
amabost milla dozena.

8/ Oiek orrela izanagatik
gelditu leike mantxia,
zeren ez daukan biar bezela
biyotza nunbait altxia;
mundu onetan gertatzen bada
orrelakorik iltzia,
gerta liteke purgatorioko
penen erdian sartzia.

- 9/ Ebaren ume desterratuak
mundu au ondo igaro,
aingeru bana guardian degu
egiñaz guri anparo;
munduan geran artian bizi
finezarekin ta klaro,
Mariak berak artuko gaitu
oriek egiñ ezkeru.
- 10/ Gaizki gaurenik bagera iñor
al dan lenena zuzendu,
alakuari biar diyogu
gauza onetara lagundu;
pensatzen badu iñork astia
ez da oraindik berandu,
propositu onak zuztarreraño
mantxa guzia kentzen du.
- 11/ Josefetako zelai ederra
daukagu beti zabalik,
askok ez degu arzaz kasorik,
ain gutxiago kabalik,
noski arako ez dalakuan
gauza on oien biarrik,
obra onetan saia gaitezen,
ez dago gauza oberik.

12/ Distraimentua biar bezela
degu guk erakutsiko,
ill arte noski mundo onetan
begirik ez da itxiko;
orduan ere zabalik nai
baña denbora gutxiko,
mundo onetatik ezkututzen da
eternidade guziko.

13/ Eternidade santu au degu
arrigarrizko gauzia,
akaborikan beñere ez du,
beti-betiko luzia;
pekatariak konbertitzeko
Jaungoikoaren grazira,
oraiñ Irizar biar bezela
gauzak jarritzen asia.

14/ Al dan guziak egon zaitezte
gauza oek ondo aditzen,
naiz bide gaiztoz izanagatik
gabiltza interesa biltzen;
animak ura kalte du baña
ondo zaku iduritzen,
milloiak ere gaizki eginta
ez dute deusik serbitzen.

15/ Gure fuerza zeruan dago
danen erdian bakarrik,
apenas duan juzgatuzeko
bada testigo bearrik;
engañatuko duanik ez da
ara juango kazkarrik,
apenas iñork sartuko diyon
egiyan truke gezurrik.

16/ Komerziante jenero danak
apropos gaude jarriak,
konpasa zuzen nibelian ta
pisuak eta neurriak;
lengo zarrari utzita oraiñ
para dituzte berriak,
gaizki gabiltzan guzientzako
daure istillu gorriak.

17/ Semoi eder bat aditu diyot
gure parroko jaunari,
agindu digu ibillitzeko
biar bezela ernai,
gure galmena badatorrela
nolanai ta noiznai;
ejenplo onak orra guk esan
jakin nai dituzten danari.

18/ Gazte denboran jaiotzen gera,
allegatuak zartzera,
pazientzia aitutzen zaku
sinplekeriyan sartzera;
obra onetzaz aztu samartu,
txarrian aumentatzera,
orreatikan gerta liteke
gure anima galtzera.

19/ Ezker eskubi bi bide daure
aukeratzeko guziak,
San Josek eta Ama Mariak
partitzen dituzte graziak;
gero Jesusek sententziatu
biar bezela guziak,
erabakita jarriko dira
gure arteko auziak.

20/ Len eta gero, orain ta beti,
eriyotzako orduan,
zer biajetan jua biagun
euki dezagun goguan;
gure o.... etorriko da,³
jaunak, milloika leguan,
gaiztoak pena mereziko du,
onak sartzeko zeruan.

³ Papera gastatua dago eta lerro au ezin osorik irakurri. Orregatik utsune ori.

Bertso auek Oiartzun'en eskuratu nituan, Larraburu baserrian, Ugaldetxo'n.

Bertso-paper bat da. Moldiztegi-izena: *Tolosa: Imp. de E. Lopez.*

13'gn bertsoan Irizar abizena azaltzen da. Egillearena izango da. Guretzako, beintzat, bertsolari ez-ezaguna. Bañan darabilen euskerari, Urola aldeko usaia artzen diogu.

Urterik ez du sail onek. Bañan 16'gn bertsoak pisu eta neurri berriak ezarri dirala dio. Alegia, erderaz *sistema métrico decimal* deritzana. Leen, tokian tokiko pisu eta neurriak izaten ziran. Bai naspil ederrak sortu ere. Tolosa'n, 1871 urteko batzarretan, onartu zan *sistema* berri ori Gipuzkoa'rako. Ori zala-ta, Iparragirre'k bertsoak jarri zituan.¹

Bestetik, berriz, Tolosa'ko moldiztegi ori 1878'etik 1900'ra ezagutu zan *E. Lopez*'en izenarekin.

17'gn bertsoak dionez, bertsolariak sermoi eder bat aditu du. Orixe du, itxura danez, bere esakizunen iturria. Liburu ontako beste sail asko ere, olaxe moldatuak izango dira.

¹ Ikus: Fr. Jose Ignacio Lasa: *Tejiendo historia* San Sebastián, 1977, 521 orri-aldean.

ZUMARRAGA'N 1885'GARREN URTEAN
JESUSEN BIOTZEKO
BILLERA TXIT SANTUARI

*Adoratu dezagun
Jesusen Biotza,
guztiok kantatuaz
bere alabantza.*

- 1/ Bertsoak paratzeko
artu det asmua,
nai nuke zer dan esan
Kongregaziua,
Jesusen Biotzeko
Apostoladua,
aurten erri onetan
ipiñitakua.
- 2/ Kongregazio onetan
sarturik gaudenak,
siñaletzat dauzkagu
zinta ta medallak,
biotzak alaitzeko
gauzarik onenak;
grazia au egin digu
gure Jesus onak.

3/ Aita gure ta Kredo
ta Abe Mariaz
goizero errezatu
Jauna adoratuaz,
eskaintzen geradela
biotz sagraduaz
deseo, pensamentu,
itzez eta obraz.

4/ Jesusen izenean
bada lan egiten,
intenzio garbiaz
berari zuzentzen,
ondasun zerurako
zaigu biurtutzen,
Jainkoaren grazian
bagera bizitzen.

5/ Amabost lagunekin
jarririk koroa,
amarreko banakin
errosarioa,
zerura joateko
bide seguroa,
ori da guk daukagun
obligazioa.

6/ Illean eguntxo bat
komulgatuzeko,
probetxu aundikoa
animarentzako,
funzio ederrakin
gu animatzeko;
maixu onak dauzkagu
erakutsitzeko.

7/ Segi dezagun bada
gogo zintzoakin,
karidadez beterik
bata besteakin;
arkitzen geranean
ill bearrarekin,
obra onak eraman
ditzagun gurekin.

8/ Mana ezkutatuta,
aingeruen jana,
maitegarrizko Jesus
gozo ta laztana,
besoak zabaldurik
zatoz guregana?
Amorioz beterik
gizonarengana?

9/ Bizi-leku arturik
ostia batean,
arkitzen zera, Jesus,
gizonen artean,
pekatari gaixoak
salbatu ditean;
ai zer amorioa
dezun biotzean!

10/ Zu zera nere poza,
biotz mamitsua,
zugana goazkizu,
Zeruko Maixua;
gloriarako prenda
txit segurua,
zuk emango diguzu
betiko korua.

11/ Alkar maite dezagun
munduko guztiak,
logra ditzagun bere
miserikordiak;
aundiak nola diran
dauzkagun premiak,
eskatu ditzaiogun
umilki graziak.

12/ Bitarteko jarririk
zeru-lurren Ama,
barkazio eskatzen
gatoz zuregana;
aurrerako arturik
propositu ona,
konsagratzen dizugu
danok biotz bana.

13/ Erregutu, Maria,
zure Semeari,
ez dio ukatuko
Ama bereari;
beti begira zaude
gure animari,
zure anparopera
banatorkizu ni.

14/ Erregutu zaiozu
Eleizarengatik,
gure Aita Erroma'n
dagoanagatik,
pekatari triste ta
kristau danagatik,
ezagutu dezaten
biotz au bertatik.

15/ Asko zabaldu dedin
jaiera gozua,
onek izan bear du
gure desiua;
biotz au da guretzat
txit errukitsua,
eskatu dezaiozun
bedeinkaziua.

16/ Animaren kontrako
peligroetatik,
libra gaitzatu, Jauna,
etsai danetatik,
bai ere gorputzeko
arriskoetatik,
gerra, gose ta peste
oraingoetatik.

17/ Bizi geraden arte
lurraren gañean,
sutu gaitzatu, Jauna,
zure amorean,
izan dezagun ditxa
eternidadean,
zurekin gozatzeko
zeru ederrean. Amen.

Josefa Inazia Azkune.

Bertso auek Loiola'n arkitu genituan, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman. Bertso-paper bat da. Moldiztegiaren izena: *Azpeitian Pablo Martinez-en moldeteguian*.

Izenburuak, argibide jakingarri batzuk ematen dizkigu: bertsoak nungoak diran, urtea eta gaia.

Garai artan, Jesusen Biotzaren Billera edo Kongregazioak eratzen ziran errietan. Zumarraga'n ere bai, emen ageri danez, eta arauak bertso auetan ezarri zituzten.

Egillea nor dan, bertsoen ondoren esaten da: *Josefa Inazia Azkune*. Emakumez-korik gutxitan agertu oi zaigu bertso-jartzalleetan eta onako au ongi etorria izan dedilla.

Garbizale-kutsu bat nabari da bertso auetan zenbait tokitan. Seguru aski, apai-zen batek azken orrazketa emango zien.

Amaseigarren bertsoak, «libra gaitzatzu...gerra, gose eta peste oraingoetatik» eskatzen dio Ama Birjiñari. Kolera-izurrite gogorra zebillen garai artan. Urrengo urtean-edo gelditu zan. Naparrak, beintzat, pelegrinazio aundia egin zuten Xabierr'era 1886 urtean, Martxoaren 5'an, beren zaindariari eskerrak ematearren.

Loiola'n ere elizkizun aundiak egin ziran, esker ona agertzeko, urte bereko Irailaren 5'etik 8'ra.

BERTSO BERRIAK
AMA DOLORETAKUARI JARRIAK

- 1/ Maria Santisima
Doloretakua,
iñon pekatubaren
mantxa gabekua,
laguntza-eske nator,
Ama errukizkua,
jarritzen zaitudala
zu bitartekua,
argitu dedin nere
memori flakua.
- 2/ Dedalarikan guztiz
talentu ezereza,
leziyo bat nai nuke
para al baneza;
argiya eskatzen diyot,¹
Ama Dolorosa,
logratuko didala
badet esperantza,
bestela nerez ez naiz
ezertako gauza.

¹ Bertso-paperak: *diyot*.

- 3/ Maria Santisima,
zure doloriak
batzuek esatera
enpeñatu biat;
mantxatu giñalako
Adanen umiak,
gurutzian bizitza
eman du Semiak,
ezagutzen bagindu
ai zer faboriak!
- 4/ Gu ez geran mediyo
juiziyoz jantziyak,
erraz benzitzen gaitu
gaitzerako antsiyak;
jaio baño len giñan
mantxak erantsiyak,
geroztik persegitzen
gau ta egun etsayak,
orretatikan datoz
dolore guztiyak.
- 5/ Adanengatik degu
pekatuben mantxa,
gero zer egin asko
eman duan gaitza;
bañan gu berriz ere
deskuidatzen aisa,
ez badegu betetzen
emandako itza,
mundu ontan arrisku
aundiyan gabiltza.

- 6/ Nola pagatu zuan
Jesusek zor ori,
begiratu besterik
ez dago obrari;
martiriyua baizik
ez da or agiri,
iltzez josiya dago
gurutze gogorrari,
ai, ezpataz biotza
Ama maitiari.
- 7/ Kontsidera dezagun
noizik bakoitzian,
zenbat sufritu zuan
bere eriyotzian;
gaizki egiña damu
artu biyotzian,
Jesusen tormentuak
txit aundiyak zian ²,
gu salbatziagatik
il zan gurutzian.
- 8/ Jesusek egin zigun
ainbeste anparo,
etsaiaren mendetik
libratu entero;
berak egin ginduan
zeruko erederu,
pelia gindezala
gerra onetan gero,
bakoitzak bere faltaz
peligruan dago.

² Bertso-paperak: *ziran*.

- 9/ Guk egin bearrian
etsaiari gerra,
Jaungoikuaz aztuta
amatutzen bera;
ez dago dudarikan,
Jesus asarre da,
ez bada aplakutzen
beraren kolera,
ondo errukiyenak
geldituko gera.
- 10/ Ia, pekatariyak,
konsidera dezagun
Jesus ta bere Ama
nola daduzkagun:
penaz eta dolorez
beterik gau ta egun,
zeren ondo egiñaz
eskerrik ez degun,
orra nola zauriyak
berritzen diztegun.
- 11/ Ai, nere Jaungoikua,
aspaldiyan ere
mundubarekin nabil
zure kontu gabe;
bitartian egin det
ainbeste maldade,
etsaiak egin zaizkit
animaren jabe,
zuk ni desiatzia
nola da posible?

- 12/ Baietz esaten digu
ori adituta,
gaiztuak izan arren
beriak gaitu-ta:
«Damutuba bazaude
ni ofendituta,
atoz zure biyotza
ondo garbituta,
festa egingo nuke
zu konbertituta.»
- 13/ Dadukagun ezker
onelako esperantza,
alihan laisterrena
egin segurantza;
zeñek bere biyotzak
dedizkagun altxa,
ez dakigu noiz degun
arganako martxa,
prest egon garbituta
pekatuben mantxa.
- 14/ Tentaziyo txarren bat
etsaiak jartzian,
bigunduko al gera
au gogoratzian:
pekatuban erortzen
geran bakoitzian,
berriro josten dala
Jesus gurutzian,
igual lantza gogorrez
Ama biyotzian.

15/ Orra zer tormentubak
onak izan gabez,
nor ez da kupituko
Ama onen dolorez?
Gurutzearen oñian
urtutzen negarrez,
iñongo aldetatik
alibiyorik ez,
oiek guztiyak datoz
pekatuben bidez.

16/ Bere lege santuba
aiñ erraz ausita,
nola tratatzen degun
gaude ikasita;
bere odolaren kostuz
gaitu erosi-ta,
ez al degu parako
berriz an josita,
guregandikan ori
ez du merezi-ta.

17/ Ia, pekatariyak,
dakigun gogora
Jesusi egindako
ofentsa gogorra;
biziro gaitzak bota
ditzagun ondora,
ez berriz biurtzeko
sekulan lengora,
besuak zabalduta
pronto egongo da.

- 18/ Ez da, pekatariyak,
agintzia basta,
kuidadoz ibiltzeko
motibuak dauzka;
biyotz garbiyarekin
noiznai ere presta,
ez arren arganatu
Satanasen festa,
orain bezin gozua
gero izango ezta.
- 19/ Egon biar genduke
pensatzen gau ta egun,
sakramentu santubak
nola deduzkagun;
ondo prestatu eta
rezibi ditzagun,
Jaungoikuari eskerrak
eman dedizkagun,³
zeren salbaziya
irabazi zigun.
- 20/ Ama, guregatikan
egin erregubak
presentaturik zere
bulda sagradubak;
bera sostenitzeko
giñan izandubak,
nola engañatuta
gauzkan diabrubak,
remedia gaitzala
anima galdubak.

³ Bertso-paperak: *deiscagun*.

21/ Remedia gaitzala
guztiok lenbailen,
diabrubak buruba
loturik bageunden;
Ama eta Semia,
San Jose irugarren,
familiya sagradu
oiekin barrenen,
alkarren anparuan
bizitzeko, amen.

Ogei ta bat bertso auek, *Impr. Baroja San Sebastian* moldiztegiak atera zituan paperetan. Bertako Joakin Muñoz-Baroja zanaren eskutik jaso genduan paper oieta-ko bat.

Ez da urterik esaten. Bañan joan dan mendearen bukaerakoa izango da, papera-ren itxurak aditzera ematen duanez beintzat.

Bertsolariaren izenik ere ez da iñon ageri. Bañan Gipuzkoa'ko Beterri aldekoa izango da seguru aski, izkera orkoxea du-ta.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Birjiña Santa konsolatzalle
gure anparatzallia
Jaungoikuaren Ama zera ta
gure bitarteko aundia;
Jesusengandik alkantza'idazu
nik bear dedan grazia,
esplikatzeko nolakua dan
kristandadeko legia.

- 2/ Señora Santak zerutik dakar
orain guretzat grazia,
deklaratzen du asarre dala
biziro bere Semia;
pensaturikan daukala dio
guri sua botatzia,
hurakan eta terremotuaz
gu betiko ondatzia.

3/ Emienda ona artu dezagun
zarrak eta gaztiak,
nola aberatsak, ala pobriak,
kristau geraden guztiak;
Jesusek berak jarriak daude
guretzat sazerdotiak,
damaturikan konfesatzeko
geure pekatu guziak.

4/ San Jose eta Ama Birjiña
dira bitarteko jarri,
barkazio eske daude oriek
Jesus biguntziagati;
arren libra gaitzala guziok
bere asarre orretati,
infernurako esleitu'tzake
an izandutzeko beti.

5/ Jesusek berak arrazoiakin
esaten dio Amari:
«Zergatikan enpeñatzen da
orrenbeste bat berori?
Emeretzigarren gizaldi ontan
aldarean nago beti,
iñork ere ez nau adoratutzen
biar bezela oraiñdi.

6/ Sakramentu Santu onetan
beti prestaturik nago,
pekataria konbertituta
nigaz jarriko dalako;
baña nik ikusten dedana da
geroago ta txarrago,
despreziorik aundienian
mundu onetan gaur nago.»

7/ Arrazoiakin Jesus maitiak
dio esaten Amari:
«Elizatikan dabill jentia
sazerdotien igesi;
teatro eta kafe-etxietan
libertadian nai bizi,
modu orretan ezin lezake
zerurikan irabazi.»

8/ Bailietan dabilzazenak ¹
lujo andian jantzirik,
penitentzia asko egiteko
apenas dute asmorik;
deabruaren bizio gaiztoz
daude guziak beterik,
Luziferren dotriña txarra
biotzeraño sarturik.

¹ Bertso-paperak: *Bailietan*.

- 9/ Zeru ederra nai duenak
orain emen irabazi,
pekatuaren damua artuta
penitentzia eiten asi;
banidadia eta lujua
oiek alde batera utzi,
orra, kristauak, aditzera eman
nola biar degun bizi.
- 10/ Modu askotan bizi gerade
guraso askon semiak,
aita eta ama txarrak badira
gu ez gerade obiak;
aditutzia nai eztuenak
itxi bitza belarriak,
askori pena emango dio
bere biotza jotziak.
- 11/ Bear bezela ez ditu iñork
aita eta ama onratzen,
obedentzian faltan gabiltza
oiek errespetatutzen;
nolanai asten gerade danok
aiek gaizki tratatutzen,
laugarreneko mandamentuak
ez digu ori agintzen.

- 12/ Gurasoak biotzetikan
nai dituenak onratu,
mandamentu santuak ongi
bearko ditu guardatu;
Jesus onaren legia beti
amatu eta serbitu,
gauza bearra izango da ori
iñork nai badu salbatu.
- 13/ Birjiña ederrak deitutzen dio
bere Seme maiteari,
barkaziyua iritxitzeko
arren pekatariari:
«Guztiak deitzen dire batian
negarrez urturik neri,
grazia oiek alkantatzeko
Jesus dibinoagandi.»
- 14/ Ama biguna zeran bezela
guztion zorionian,
belaunikatu zera bi aldiz
zeure Semian aurrian;
guregatikan errukiturik
aiñ amorio aundian,
suplika onak egin dituzu
zeruko tribunalian.

15/ Alegiñak egiñak ditu
oraiñ Birjiña Mariak,
negarretan urturik dauzka
oso bere begi biak;
guziok izan gaitezen bada
umillak eta garbiak,
enkargu ori ematen digu
zeruko Ama maitiak.

16/ Konformaturik jarri gaitezen
gure Jesus onarekin,
bera serbitzen bizi biegu
danok biotz osuakin;
konbeniyua egiña dago
bere Birjiña Amarekin,
gloria artara eramateko
kristau guziok berakin.

Bertso-papera, *Eibar.- Imprenta de Pedro Orúe*» moldiztegian inprentatua, Oxford'ko Bodleyan Library'tik.

Paperaren barrenean, auxe: *Es propiedad y nadie podrá reimprimirla sin consentimiento de su autor.*

Bere izenik etzuan eman egille orrek. Urterik ere ez. Bañan 5'gn bertsoan, XIX'gn gizaldia dala dio.

BERTSO BERRIAK
ROSARIO SANTUARI JARRIAK

1/ Kanta dezagun esplikatuaz
Errosario Santua,
anparatzalle bitartekotzat
arturik Ama gozoa,
Jesusegandik alkantza deigun
bediñkazio osua,
ipiñten dana izandu dediñ
guziontzat gustokua.

2/ Jesus daukagu amorez urtzen
Ama Santaren besoan,
bien kontuan rosarioa
zeñek nun esaten duan;
Santo Domingo bitartez garbi
an berak azaldu zuan,
itz erditxo bat gustoenagorik
etzala izango munduan.

3/ Amabost ditu misteriuak
errosario osoak,¹
baña iru puskan partiuk daude
Ama-Semien pausoak:
gozozkuak eta dolorezkuak,
bestiak gloriatzkuak,
zeiñ egunetan zeran izan ere ²
daude adierazuak.

4/ Gozozko ori errezatzen da
astelen ostegunian,
dolorezkuak asteartian,
gañera ostiralian;
gloriatzkuak asteazkena,
zapatu eta igandian,
modu orretan beren bizitzak
sarri akorda gaitian.

5/ Lendabiziko gozozkua da
Jainkoa gizona egitia,
orretarako San Gabrieleak
aurriaz eman partia:
jatxiko zala Espirituzko
zeru ta lurraren jabia,
gure antzera agertu zeriñ,
depositaio Maria.

¹ Bertso-paperak: *rosario osoak*.

² Bertso-paperak: *zera*.

6/ Bigarrena da Santa Isabeli
egin zioten bisita,
Jose ere lagun mendirik mendi
grandeza danak utzita;
zer fruturekin zijuakion
lengusuak igarrita,
San Juan dantzan sabelian da
ama adoratzen jaikita.

7/ Irugarrena da Salbadoria
mundura agertutzia,
beste ostian dana pobreza
baña jaiotza dulzia;
Belen'era jua, ostaturik ez,
triste Jose ta Maria,
portalepian gau erdi aldian
bere magalera Semia.

8/ Laugarrena da Jerusalengo
tenploan presentatzia,
mantxa gabiak baziran ere
kunplitu zuten legia;
Simeon Santuak ikusi orduko:
«Au da Jainkoan Semia,
profetak aditzen emanik genduen
Mesias Salbadoria.»

- 9/ Bostgarrena da Jesus galduta
billatu zutenekua,
goguangarri izango zuten³
Jerusalen'go tenplua:
jakintsu edo gizon zarreri
erakusten lege santua,
aurrerakuan zer ordenatan
gubernau biar zan mundua.⁴
- 10/ Dolorezkua lenbizikua
baratzako oraziua,
guregatikan bere Aitari
egiten ofrezimentua;
ikusten zuan pekatarien
erausuera gaiztua,
orregatikan zitzaion⁵
izardi odolezkua.
- 11/ Bigarrena da Jesus maitia
kolunan azotatzia,
tunika ere kendu zioten
obeto artzeko golpia;
aragi-puskak aidatzeraño
ura zan sufritutzia,
pensa dezagun otso tartian
gendukala arkumia.

³ Bertso-paperak: *goguan jarri*.

⁴ Bertso-paperak: *munduan*.

⁵ Itzen bat falta da lerro ontan.

12/ Irugarrena ipiñitzia
koroia arantzazkoa,
lenago ala maltratatuta
etzuen kura gaiztoa;
buruko zaiñak billatuzkeo
ura zan istrumentua,
o gure errege burlauaz berak ⁶
arpegira bota txistua.

13/ Laugarrena da bera josteko
gurutzia emandakua,
gogotik eldu zion berari
naiz izan pekatuzkua;
guregatican berak sufrituaz
eman zigun ejemploa,
nork beriak nola erantzun
atera ondo kontuak.

14/ Bostgarrena da Jaun Jesukristo
gurutzian illtzatua,
trantze artan ere barkazio-eske
gugatik il zanakua;
gurutzepetik gora begira
Ama Doloretakua,
bera mantxauaz zetorkiola
Semian odol-tantua.

⁶ Bertso-paperak: *regue*.

15/ Gloriosua lenbizikua
Jesus onaren piztia,
zeruan zeuden animatuak
ura zan alegrantzia;
bere Aitaren erreñurako
zabaldu zigun atia,
bere Ama ta segitzalliak
izandu dediñ partia.

16/ Bigarrena da Salbadoria
zeruetara igotzia,
segitu nai ta eziñ egatu
an gelditu zan jentia;
aingerutxo bi agertu ziran,
au zan aien izketia:
Igo bezela juiziora
egiñgo zuala bueltia.

17/ Irugarrena da Espiritu
Santuaren etorrera,
aize-bolara baten otsian
zeruetatikan bera;
bere Ama ta apostoluei
suzko mingañen antzera,
ordutik fuerte animau ziran ⁷
jendiai predikatzer.

⁷ Bertso-paperak: *animen*.

18/ Laugarrena da Ama Birjiñaren
zeruetara igotzia,
orazio egiten guri erakusten
pasaik denpora luzia;
Seme Jesusek ezaguturik
Amaren ondo portatzia,
gorputz ta anima nai izan zuen
bere eskubitik jartzia.

19/ Bostgarrena da Aita Eternuaren
Alaba koronatzia,
Seme Jainkuak ere nai zuan
len-bait-len ipiñitzia;
Espiritu Santuak berriz zero
lurren erregiña jartzia,⁸
pekatariok orra nundikan
daukagun esperantzia.

20/ Orra amabost misteriuak
bakoitza bertso banatan,
liburutikan ez dakianak
ikasi ditzan kantetan;
aitaguria, amar abemaria,
gloriarekin danetan,
fede osuaz konsiderauaz
biotzetikan benetan.

⁸ Bertso-paperak: *lurren regiña jartzia*.

21/ Kirieleisonak oien ondoren
bear bezela esatia,
aitortzen degu Maria Santak
gugana daukan partia;
zar eta gazte, aberats, pobre,
guzion giadoria,
klase guziko penitente ta
martirien patronia.

22/ Rosariuak artu eskuan
da onela ofrezitzian,
Jesus da Ama gelditzen dira
konsuelo aundi batian;
Santo Domingok bedeinkaturik ⁹
biziko gera pakian,
etsai gaiztorik ez da sartuko
familia aren etxian.

23/ Ama Eleiza Santak daduka
zimendu guziz fuertia,
faltauko duen bildurragatik
kargau diteke jentia;
beste banderak debekatua
dauka zeruan sartzia,
pensatu ondo kabu gabia
dala eternidadia.

⁹ Bertso-paperak: *Domingo*.

24/ Jesus da Ama nai dituenak
zeru altuan gozatu,
rosariua maiz eta ondo ¹⁰
bear degu errezatu; ¹¹
debozio au mundu guzian
nairikan oso zabaldu,
ogei ta lau bertso Domingo
Goenaga'k jarri ditu.

Bertso-sail au, itu tokitan arkitu degu:
Donostian'n, Gregorio Mujika zanaren bil-
duman; Paris'en, Liburutegi Nazionalean;
eta Oxford'en, Bodleyan Library'n.

Eibar.-Imprenta de Orúe moldiztegian ar-
gitara emandako paper bat da.

Egillea nor dan azken bertsoak esaten
digu: Domingo Goenaga. Bañan bertsolari
onetzaz ez degu orain artean ezer ere ika-
si.

Urterik ez da iñon ageri. Bañan Paris'ko
paperean, eskuz idatzita, 1891 urtean ero-
sia dala esaten da: *Pris á Durango, 1891.*

¹⁰ Bertso-paperak: *naiz*.

¹¹ Bertso-paperak: *bear degu rezatu*.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Bersifikuak kantarietan,
doktoreen obserbantzia,
Eskriturak esplikatzen du
zeruko intelijentzia,
ikusi bear degula oraindik
Jaunaren audientzia,
obena dala egitia orain
geroko dilijentzia.

- 2/ Zerubak ziran innumerable
aingerubakin betiak,
irutikan bat galdu zituban
pekatubaren kaltiak;
oiek dirade aingeru gaizto
infernura botiak,
badituzte gizonen kontra
naiko tranpa eta artiak.

3/ Lenengo gizon Adan da Eba
paradisuan jarriak,
Jaunak emanik grazia eta
fortuna zoragarriak;
ezin sufritu suge infernal
zital engaigarriak,
gezurrarekin eragin zizten
kalte ikaragarriak.

4/ Trinidadian Personak dira
distinziyuan jakiñak,
errukiturik itzegiten du
bai Seme gizon egiñak:
«Badakit, Aita, ez diradela
oiek gurekin berdiñak,
agintzen dizut pagatutzeko
oien zorraren ordañak.»

5/ Erantzuten du frankezan Aitak
bere konformidadia:
«Estimatzen det zugandik ori
txit asko, nere Semia;
pazientzia artuko diet,
gero eternidadia,
salbatuko ditut baldin bazera
neretzat piadoria.»

6/ Zerratu zuten Aita-Semien
artian eskritura,
asi ziraden itzegiten
zeru altutik mundura:
ateratzeko Adan eta Eba
paradisotik kanpora,
penitentzia egin zezaten
salbazioko kontura.

7/ Esperantzetan bizitu ziran
lau milla ta piko urtian,
Eskritura Santa egiñik
profeta askoren artian:
pake osua izango zala
Salbadoria etortzian,
errege arrotza agintzen berriz
Jerusalen'go kortian.

8/ Jakob patriarka santuben itza
mundutik zijuanian:
Salbadoria jaioko zala
bere semien oñian;
amabi tribu Israel da
au da Judarenian,
beren koroia kortez kanpora
ateratutzen zanian.

- 9/ Jakob patriarka santuben itza
ongi zertifikatuba,
Salbadoriaren Ama izatia
dontzella bedeinkatuba;
ongi bentzitu baizuben arrek
dragoi madarikatuba,
argatik da ura zeru-lurrentzat
ain Ama eskojituba.
- 10/ Salbadoria jaio zanian,
Herodes infantezida
Jesusen kontra artu zubena
ikaragarritzko ira;
Jose ta Maria Semiarengatik
Ejipto'ra abiatzen dira,
berreun legua pasatutzeko
beren biaje aundira.
- 11/ Zeru altuban gordeta zegon
gure Aita Eternua,
Herodes illda bota zubena
gero betiko infernura;
aingeru bat jatxi zitzaion
Joseri bere ingurura,
agindu zien biur zedilla
atzera bere erreinura.

12/ Jose eta Maria abiatzen dira
ordena aditutzian,
estranjerian bizi izanik
lenago zazpi urtian;
Herodesen illoba berriz
erreinatutzen kortian,
Jose eta Maria Nazaret'en
miserien artian.

13/ Jose ta Maria Semiarekin
izan ziraden biziak,
ogei ta lau urte Josek pasiak
Nazaret'en guziak;
Jose linbora dezenditurik
Jaungoikuaren graziak,
asi zan Jesus menderatutzen
deabruaren auziak.

14/ Iru urtian Jesus maitea
Amarekin bakarrik,
izan etzedin guretzat gero
iñundikan okerrik;
etzan ibilli urte aietan
Jauna guretzat alferrik,
baña etzion juduak eman
ari alako eskerrik.

15/ Innumerable konbertiturik
Jesusengana jendiak,
ezin sufritu Kaifas'ek eta
ango estudiantiak;
Jesusen kontra egin naian
erriko errematiak,
arrek tokiya eman artian
etziran balientiak.

16/ Iru urtian predikaturik
Ebanjeliyo Santuba,
allegatu zan Aitarengana
biurtutzeko puntuba;
prometituba pagatutzia
gure zorraren kontuba,
konformatu zan sufritutzera
bere gurutze santuba.¹

17/ Pilatosgandik azotaturik
arantzazko koroia,
gurutziari josi ta iltzeko
esana Salbadoria;
Judeak ola tratatu zuben
gure Erredentoria,
pagatutzeko gure zorraren
kontu prezio gabia.

¹ Bertso-paperak: *santuban*.

18/ Allegaturik Jesusi iltzeko
azkeneko puntura,
egarriturik itzegin zion
Aitari modu estura:
«Kunplitutzen da, Aita, lenago
egin zan Eskritura».
Amari berriz utzi ziozkan
semiak bere kontura.

19/ Jesus illikan gurutzian da
bere Ama aldamenian,
soldadu-tropa allegatu zan
Kalbarioko gañian;
Lonjinos ori lantza batekin
gorputz illaren aldiian,
entrañak pasa egin ziozkan
bere Amaren aurrian.

20/ Amak orduban artu baizuben
pena ikaragarria,
konpasiyuaz irikitzeko
zerubetako erria;
santubak ala esplikatzen du
motibuaren berria,
Aitak orduban egin zigula
bere miserikordia.

21/ Zenakuluban lenengo eta
gero beste erri batian,
San Juanekin Ama bizitu
ogei eta urtian,²
Eskrituran ipiñitako
itzak kunplitu artian;
Semiarekin zerura gero
illaren amabostian.

Bertso auek, *Tolosan: E. Lopez-en Molidizteguian* argitara aterako paper batetik ditugu. Paper ori bi bidetik eskuratu degu: Orendain'go Juan Garaialde'ren eskutik eta Aita Agirretxe frantziskotarraren eskutik. Paper onek egillearen izenik ez du, ta urterik ere ez. Auxe bakarrik esan genezake: etxe ori 1878'tik 1900'ra ezagutu zala *E.* (edo *Eusebio*) *Lopez'en* izenarekin.

² Itzen bat falta lerro ontan.

(1896)

«ESKANDALUAK DAUZKAGU TRABA»

1/ Milla zortzireun larogei urte
eta amasei gañetik
aurten ditugu gu salbatzera
Kristo etorri zanetik;
agindu zigun segi gentzala
ark utzitako bidetik,
eskandaluak dauzkagu traba
etsai gaiztuen aldetik,
galduko gera irten gabian
bizio orren mendetik.

4/
.....
.....
.....
.....
.....
.....

bizioetan esnaiak danak
birtuteetan du loa,
maldade asko agertzea da
zenbaiten konsueloa.

- 5/ Eskandaloa da pekatua
besteri eragitea,
bai eta ere orretarako
motiboak ematea;
gaiztoak nai du bere gisara
beste guziak jartea,
au ezta Kristok agindu zigun
bidetikan juatea,
orietatik ezta billatzen
zeruetako atea.
- 6/ Zenbait mundutar deabrua baño
okerrago da plantatzen,
relijio ta fedeen kontra
ipuikeriak kontatzen;
judu gaiztoen ume falsoak¹
kristau fielak tentatzen,
inozenteak galdu artean
eztirade kontentatzen,
gaiztakeriak argatik ari
dira oraiñ aumentatzen.
- 7/ Eskandalo ta jenio txarrak
pekatuen zimenduak,
beragatikan arkitzen dira
kostumbre onak galduak;
gero billatzeko utziak daude
bide Kristok aginduak,
engañatuta asko gaduzka
etsaiak eta munduak,
orretan franko atxitzen ditu
eriotzako orduak.

¹ Bertso-paperak: *gudu*.

- 8/ Eskandalo au zabaldutzen da
bistako guzietara,
bere parte bat etsaienzako
askotatik ark atera;
beneno txarra sartzan da ori
inozente aietara,
kostunbre txarra bein artzen badu
segitu oi du artara,
beste geiago aurki litzake
bere moduan ark para.
- 9/ Ziudaderik andienean
etxeak su artzen badu,
junto badaude erazekiaz
dan guzia erreko du;
materiala dan arte segi
iñork itzaltzen ezpadu,
iñoiz ikusi izan da zenbait
modu ortako estadu,
eskandaloak animak galtzen
ori bera egiten du.
- 10/ Munduan sobra zabaldu dira
etsaiaren lezioak,
gallandu dira juramentuak,
birau ta maldizioak;
jeneralean gazteak artzen ²
zarraren kondizioak,
piska banaka aurreratzeko
maldade ta bizioak,
eskandalotik umeak dira
orrelako azioak.

² Liburuxkak: *generalem*.

- 11/ Ai, jaiak ondo goardatzeko
guri agindu zitzaigun,
noiz diran ere zenbait lekutan
iya ez dira ezagun;
pikardi edo lanean ari da
elizetan aña lagun,
«besteak ere ari dira ta
guk ere egin dezagun»,
eskandalotik libertadea
orra zer moduz daukagun.
- 12/ Zenbait guraso ikusten dira
burlatzen bere aurrean,
ume gaiztoak despreziazten
onrak eman bearrean:
«Zuk baño lana obeto egiten du
urliak bere zarrean»;
ezpañak legor, begiak busti,
umill asko baztarrean,
eziñ aginduak egon bearko
estimazio txarrean.
- 13/ Erreparatu degazun ongi
bizio oiez edozeñek,
gorrotodun ta lujuriosoak
dabiltza ase eziñek;
murmuratzalle eta lapurrak
aumentatu dira ziñez,
inbidiosoak besteren onik
daude sufritu eziñez,
banidade ta eskandaloak
iya egin dute gañez.

- 14 Kargudun edo empleatua eskandalosoa bada, deabruak baño okerragoa mundurako au bera da; gobernurako agintea ta eskubideak emanda, lezio onak para bearrean ipintzen badu demanda, argan da bere mendekoetan beti zerbait izaten da.
- 15/ Enpleoa ta kargua dira jendea gobernatzeko, ez soberbi ta banidadea aien gañean artzeko; zenbaitek ala uste du dala guziak menderatzeko, justizia da gauza guziak zuzen administratzeko, eztakienai erakutsiaz gaiztoak kastigatzeko.
- 16/ Onore eta kargu aundia bere gañean dauzkanak, aundiagoak izango ditu obligazio ta lanak; eskubidea badadukate justizietako jaunak kastigatzeko eskandaloan publikoan dabiltzanak, errespetoa aundiago du norbera justua danak.

17/ Batek pekatu egiten badu
jende askoren aurrean,
eroritzeko ipintzen ditu
danak peligro txarrean;
Kristok odolaz erositako
animak gauzka lurrean,
gerok gabiltza alkarren kontra
anparatu bearrean,
ari kendu ta etsaiek saltzen
pekatu eragiten dionean.

18/ Pekatua egiten bat ikusita
eragozten ezpadio,
ta gusto artu, bi moduz galdu,
gaizto bat dala medio;
egiten dira gañera zenbait
kontrako erremedio,
itzali orde z geiago sutu
publikatutzen badio,
eskandaloak pekatu askori
ala eragiten dio.

19/ Kuadrillan batek esaten badu
izketa desonestoa,
eskandaloak ereiñik dauka
danetan azi gaiztoa;
erne ere an egiten zaio
artzen badio gustoa,
orra guziak ofenditzea
dator Jaungoiko justua,
azi orrekin deabrua dago
entero aberastua.

20/ Negargarrizko bizio orrek
alako abundantziak,
ugaritutzen kaborik eztu
eskandaloen aziak;
zenbait banaka galdutzen ditu
Jaungoikoaren graziak,
askok erein da ernetzen dira
gañerakoak guziak,
deabruak dauzka anima asko
orrek in irabaziak.

21/ Eskandalosoa izan oi da
anima asko galtzeko,
zerura ustez zijoazenak
infernura biraltzeko;
arrazoia txit aundia dauka
Jesusek koleratzeko,
esanik dago errota-arri bat
lepotik erantsitzeko,
eta arekin itxasoaren
ondarrera botatzeko.

22/ Dudarik bage konzienzian
karga aundiak ditugu,
anima Kristok irabaziak
guk galdutzen baditugu;
pazientzia badezu baño
aserratuko zaitugu,
penitenzi ta restituzioak
egiten ezpeditugu;
maldade aundi orien bistan
nork salbatuko gaitu gu?

- 23/ Mundu onetan eskandaloak
eman izandu baditu,
lenengo lana al baditzake
kalteak erremeditu;
Jainkoagana konbertitu ta
konziencia garbitu,
au egin bage deskuidatu ta
ez arren iñor gelditu,
aurrerakoan ejemplo onak
ematen beti segitu.
- 24/ Garbiturikan ofrezituta
jarri Jesukristorentzat,
projimo danok alkar amatu
mesede degu gerentzat;
ejemplo onak para ditzagun
gazte ondorengoentzat,
gauza oberik egingo ere
eztala iduritzen zat,
gure Jainkoak ala gordeko
gaitu guziok beretzat.
- 25/ Zer dibersio egiten diran
publikatuta plazetan,
aplikatutzen dira aurtxoak
ikusten duten gauzetan;
beste kostunbre geienak ere
segitzen dute orretan,
mundu galdu au al bait ontzeko
ezi ditzagun gaztetan,
zarrak ejemplo onak emanaz
obratan eta izketan.

- 26/ Geren animen etsai oekin
 beti biagu diskordian,
 iru aldetatikan gauzkate
 tentazioen erdian,
 Jesusen kontra ipiñi nai gu
 maldade ta pikardian;
 ia aingeru guardakoak
 artu geren alderdian,
 gerra-denboran soldaduen gisa
 egon biagu guardian.
- 27/ Munduko ponpak, deabruen tranpak
 ta aragien falsiak,
 gure animen etsaiek larga,
 gogor egin da etsiak;
 bizio danak para ditzagun
 oiñ azpiraño jetxiak,
 tentaziorik sartu eztedin
 ateak berriz itxiak,
 oiek dirade bide zuzenak
 Jesusek erakutsiak.
- 28/ Ama miseriakordiazko,
 egiten dizut erregu,
 Ebaren ume desterratuok
 zure deiez gaude gu;
 anparatzalle ona zera ta
 bearra ere badegu,

Bertso-sail au ez degu osorik iñun bildu. Bi iturri izan ditugu, bañan biak ere bertso-faltan daudenak eta bien artean sailla osatzen ez dutenak.

Lenengo iturria, liburuxka edo *folleto* txiki bat da. Bergara'n, San Prudentzio'ko Ipiñarri baserrian jaso genduan. Aurreko eta atzeko orriak falta ditu. Irugarren orri-aldean asten da, laugarren bertsoaren erditik. Bukatu, berriz, 14'garren orri-aldean egiten da, 28'garren bertsoaren erdian. Beste bi orri-alde falta dira, beraz. Baita orri-alde oietako bertsoak ere.

Bigarren iturria, Martutene'ko Goiatza baserriko Pedro Almandoz izan genduan. Sail ontako 1, 5, 9, 10, 11, 12 eta 13'garren bertsoak buruz zekizkian eta 1958 urteko udaran jaso genizkion. Onek emana degu, beraz, lenengo bertsoa.

Liburuxkaren lenengo orria falta degun ezkerreko, bertso-sail onek zer izenburu zeukan ez dakigu. Orain daukana, lenengo bertsoetik berezi eta ezarria da.

Bañan bertsoak norenak ote dira? Pedro Almandoz'ek, Alzo'ko Imaz'enak zirala esan zigun. Baditeke noski ala izatea. Olaneko gaiak erabiltzen zituan arek eta joskera ere arena dala esango genduke. Asieran edo bukaeran, izena ere geienetan jartzen zuan arek; bañan mutur oiek falta ditugun ezkerreko, ezin jakin.

Orain urte batzuk aren liburua argitaratu genduan. Ikus: *Auspoa*: 68-69-70. Bañan auek ez genituan an sartu, bearbada an bear bazuten ere.

* * *

Esan bezela, lendabiziko bertsoa Pedro Almandoz-
'ek emana degu. Baita 5, 9, 10, 11, 12 eta 13'garrena ere. Bañan aldaketa auekin: 5/6: beste guziak jartzia; 9/1: Ziudade aundiyenian; 10/9: eskandaluen umiak dira; 11/9: eskandalotik askatasuna; 13/2: bizio oiez edozeñez; 13/4: dabilta ase eziñez; 13/9: eskandalo ta banidadiak.

BERTSO BERRIAK IBARZABAL'EK JARRIAK ¹

3/ adan
... ..
... .. ndu
... ..
... .. nbizi
... ..
... .. u
... .. k.

4/ ear du
... ..
... .. eti
... .. ki
... .. an
geienak jo ta ere
ogei ta lauetikan zazpi.

¹ Bertso-paperak puska falta du. Izenburuaren zati au gelditu zaio: *SABALEC JARRIAC*. Gañontzekoa guk osatua da, 23'gn bertsoak bertso-jartzallearen deitura ematen baitigu. Lenengo bi bertsoak falta dira. Orre-gatik, irugarrenetik asten gera. Bañan bertso au, eta laugarrena ere, ez daude osorik.

- 5/ Purgatoioko anima oiek
 daude tormentuz betiak,
 pekatuakin jun ziran eta
 pagatzen dute tristiak.
 Egunen batian kaso egingo'io
 gure Jaungoiko maitiak,
 Pedrok orduan irikito'itu
 zeruetako atiak.¹
- 6/ Azaruaren ogei ta biyan,
 arratsaldian izen zen,²
 Aita Maiz'en sermoi eder bat
 egondu gera aditzen,
 señaladamente Zarauz'ko erriyan
 San Franziskuko eleizen,
 lenez gañera astera nua
 martiriyuak berritzen.
- 7/ Azaruaren ogei ta biyan
 Santa Zezili eguna,
 egun au degu Aita Maiz'ek
 sermoi au egin diguna.
 Jesusen itzak esan dizkigu
 izanik biotz biguna,
 jakiña dago begiyan bistan
 eriotza zor deguna.

² Bertso au ta Xenpelarren Azken Juizioaren bigarre-
 na oso antzekoak dira. Orregatik, lerro ontan *irausen*
 idatzita badago ere, *izan zen* ezarri degu guk, olako
 zerbait bear dualakoan.

8/ Zenbat persona gertatzen dira
konfesiya juaunik,
txikiyak bota, aundiyak gorde,
«Ez det geiago» esanik.³
Nere kristauak, ez dezagula
egin orrelako lanik,
zeruan ezin sartu liteke
pekatuakin daguanik.

9/ erakutsi du
... ..
... .. gaitezen
... .. yo
... .. ak utzita
... .. yo
... .. riyak
... ..

10/pekatariak
... .. iak
... .. n sartzen naiz
... .. iak
Gure Jesusen...irituak
onbesteraño u...iak,
ia zer pena artuko duen
Luziferreri uztiak.⁴

³ Bertso-paperak: *esdet gueyago ezan nic*

⁴ 9 eta 10'garren bertso auek ere erdizka daude guk daukagun paperean.

11/ Iltzen danentzat bi bide daude
ezker eskubi aldetik:
bata zerura egiña dago,
infernurako bestetik.
Jesus onari oraziyo bat
egiyogun biotzetik,
galdu baño len apartatzeko
etsaien atzaparretik.

12/ Infernutikan ateratzen da
pekatuaren sustraia,
pensamentu txar tentaziyoak
berekin dauka etsaia.
Utzi ditzagun gaiztakeriyak,
Jauna adoratzeko saia,
justuarentzat ez da konbeni
anima mantxa... usaia.⁵

13/ Munduan ai da zabaltzen sobra
infernurako bandera,
Kaifas gaiztoak beti egiten du
traidorearen galdera.
Lenez gañera bete nai luke
kalabozoko kaldera,
Jaunan legian segi dezagun
salbatzekuak bagera.

⁵ Lerro ontan, bi letra-edo ezin irakurri.

14/ Grazi batzuek zor dizkagu
Aita Juan Jose Maiz'i,
oraindik ez det nik orrelako
sermoigillerik ikusi.
Guregantikan gau eta egun
eskaka dago Jesusi,
seme on orrek anparatzerik
ez al du bada merezi?

15/ Guregantikan gau eta egun
Jaunari da esanka,⁶
mundu onetan eta bestian
lagun oberik ez da-ta.
Alde batetik Aita Juan Jose,
bestetik Padre Labaka,
gizon oriyen jakinduriyak
talentu-faltik ez dauka.

16/ Juan Jose Maiz nere partetik
alabatu nai genduke,
pekatariyen biotz gogorak
bigundutzia nai luke.
San Franziskoren seme on oiek
alegiña egin dute,
Jaun Zerukuak bialdu ditu
anima galduen eske.

⁶ Bearbada, *Jauna ari da esanka* bearko luke.

- 17/ Gure erri noble onetan
badadukagu frailia,
Jaungoikuaren graziyarekin
ona predikazallia.
Aita Juan Jose deitzen diote,
bera Zarauz'ko semia,
erakutsi du nola kunplitu⁷
kristandadeko legia.
- 18/ Jaungoikoaren seme bizi bat
badadukagu erriyan,
begiyen bistan ikusten degu,
or dabill fede garbiyan.
San Franziskoren abituakin
kordoi zuri bat gerriyan,
amaika kristau konbertitzen du
allegatzen dan tokiyan.
- 19/ Zarauz'ko seme naturala da
Juan Jose, ezin ukatu,
nik ezertan ofendi badet
gaizki esanak barkatu.
Inozentiak uste ez dala
egiten degu pekatu,
erakutsi du kristandadian
anima nola salbatu.

⁷ Bertso-paperak: *erakutsi nola kunplitu*. Bañan *erakutsi du* ezarri degu, 19/7 lerroan bezela, ala bear dualakoan.

20/ Aita guria lendabiziko
oraziyorik onena,
eman iguzu, Abe Mariya,
Santa Maria urrena.
Lau petiziyo esplikatuaz
gloriarekin azkena,
au esango da gure Jesusek ⁸
ipiñi zigun ordena.

21/ Gure Jesusek emango digu
egun batian ordena:
kalabozora juan dedilla
pekatuakin dagoena.
Zeruko Aitak pensatuta ere
artuko lukian pena,
ikusi ezkeru bere anima
infenuetan barrena.

22/ Lenagoko gaizki esanak
damu artu biotzian,
Jesusengana jaso biotza
goizetan da arratsian.
San Franziskori eskatzen diyot
lendabiziko itzian,
komeni bazat guarda nazala
eriotzako trantzian.

⁸ Bearbada, *au izango da bearko luke.*

23/ Guretzat diña leku badauka
Jaunan miserikordiyak,
biotz gogorak bigun gaitezen
ez bagerade arriyak.
Bear bezela orra ipiñi
euskeraz bertso berriyak,
ala dirade Ibarzabal'ek
Fraile Maiz'i jarriyak.

24/ Juan Jose, esaten diyot
bertsuen errematian,
seme on ori ezagutua
ez da guretzat kaltian.
Jaunak legia zuzen darama
bere lagunen artian,
gero zeruan gerta dedilla
San Franziskorekin batian.

Bertso-papera, *Donostian Osés-en mol-*
dizteguian argitara emana. Ez nuan idatzi
nork eman zidan.

BERTSO BERRIAK
SAKRAMENTUEN GAÑIAN JARRIAK

1/ Siñale on bat zabaldu nai det
bertso berriaz batian,
soberbia ta banidadea
animarentzat kaltian.
Alkarri amorio on bat izan
bizi gaitezen pakian,
ai, nere Jesus, lagun zadazu
itztxo bi egin artian.

2/ Sakramentuak zazpi ditugu
Jaunak jarriak guretzat,
nola diraden esplikatzia
gauza txit on bat deritzat.
Lenengo bostak jarri dizkiguz
oso ordena zorrotzat,
beste bi oiek daramazkite
borondatezko bizitzak.

3/ Mundu onetan lendabiziko
bataiatzen geranian,
momentu artan gelditzen gera
Jaungoikuaren grazian.
Gauza guziak utzi zizkigun
bakoitza beren neurrian,
gure animak inozentzian
aingeru geran artian.

4/ Bigarreneko sakramentuan,
obispo jaunen aurrian
konfirmatuaz, indartzen gera
errelijioko fedian.
Geroztik deskuidatzen bagera
geure argaltasunian,
biotz umillaz jarri jaitezen
Jesus onaren aurrian.

5/ Irugarrenian prezisua da
penitentzia estua,
pekatuari alde egiteko
biar da propositua.
Kontuan bizi mundu itxuan
dagan katolikua,
zergatik dauan alde askotatik
beti persegimentua.

- 6/ Laugarrenian konfesatuta
komulgatzen geranian,
gure animak mantentzen dira
graziarekin batian.
Eskusarikan iñork badauka
beren buruen kaltian,
lenengotikan kontu atera
gero galdu ez gaitian.
- 7/ Bostgarreneko sakramentua
estremozio santua,
pekatuaren mantxak kentzeko
Jesusek disponitua.
Justuarentzat zeruan dago
betiko bizi-lekua,
logratutzia deseatzan det
guzien barkaziua.
- 8/ Seigarrenian tenplo santuan
sazerdotian ordentzen,
gure Jauna prestatzen zaigu
meza santua ematen.
Balio aundiko gauza da ori
gogoz badegu aditzen,
deskuidatuak izango gera
ez badiegu segitzen.

- 9/ Zazpigarrenak erakusten du
matrimoniua nola dan,
alkarrekiko pakia on bat
biar degula eraman.
Jesusek ala nai du ikusi
gizona mundu onetan,
saia gaitezen kunplitzera ¹
beraren aginduetan.
- 10/ Aita Zerukuak eskojituak
San Jose eta Maria,
oriekgandik sortu zitzaizen
pekatarien argia.
Guregatikan errukitu zan
zeru-lurraren jabia,
komeni bada egin dezala
arren miseriordia.
- 11/ Sakramentuak esplikatzeko
tokatzen diran moduan,
danorentzako komeni zaigu
idukitzia goguan.
Ejenplo ona paratu zigun
zer egin biar genduan,
inportantzia aundiagorik
ez dago ezer munduan.

¹ Bertso-paperak: *kunplitzera*.

- 12/ Sakramentuak emate'igue
Jaungoikuaren grazia,
gure animak salbatutzeko
ein daigun dilijentzia.
Norberak ondo esamiñatu
ta aztertu kontzientzia,
bestela ez da erraz izango
zerua irabaztia.
- 13/ Bere aginduak ondo kunplitu
Ama Eleiza santarenak,
jakitiaren premian daude
aztuta bizi diranak,
salbaziaua alkantzatzeko
preziso biar diranak,
zorionikan ez espero izan
apartatutzen diranak.
- 14/ Nola dan Ama Eliza santa
fediaren zimentua,
dotriña onari segitu ezik
bide txarretik dijua.
Jesus on orrek artuko digu
egunen baten kontua,
bitarteko arren jarri zaizkiguz,
Birjiña biotzekua.

15/ Mundu onetan guregatikan
egin zituan pausuak,
aztu gabiak izango ditu
Jesus guzion maisuak.
Barkaziua alkantzatzeko
utzi diguz ministruak,
gañera berriz tenpluan daude
berekín sakramentuak.

16/ Jaun Zerukuak jarria dauka
kristau guzien lekua,
bera alabatzen pasatutzeko
eternidade osua.
Justuarentzat gloria degu
betiko konsuelua,
gauza txarrena ez du izango
animak salbaziua.

17/ Mundu onetan nola gabiltzan
atera zagun kontuak,
galdu ezkerro alferrik dira
artzia sentimentuak.
Alkarrentzako zertako dira
bengantza ta gorrotuak?
Barkatutzeko esaten digu
guzien juez justuak.

18/ Orra emen jarri bertso berriak
ejenplo eder batian,
eurok diote nola segitu
Jesukristoren bidian.
Birjiña Amak artu gaitzala
bere besoen artian,
komeni da ta sartu gaitzatzuz
zeruetako atian.

Bertso auen bi argitaraldi, bi bertso-
paper, ezagutzen ditugu guk. Biak berdin-
berdiñak dira, txeetasun batean izan ezik:
moldiztegiaren izena letra desberdiñez
idatzita egotea: *Imp. de Vda. de B. Valver-
de-Irún.*

Bertso-paper oietako bat, Donostia'n
jaso genduan, Aiete ballaran, Oriamendi
baserriko Segundo Kalonje bertso-jartzalle
trebe ta oparoaren eskutik.

Bigarrena, bi tokitakik izan degu: Erren-
teri'tik, Jertrudis Arrieta zanaren eskutik,
eta Oxford'ko *Bodleyan Library*'tik.

BERTSO BERRIAK

1/ Zeruko Aitari galdetzen diot
kantatuzeko grazia ¹,
ejenplo on bat zabalduzko
intenzioz naiz asia;
zartzera ez det atzera utzi nai
gaztetan erakutsia,
konbertitzea desiatzen det
gaizki dabillen guztia.

2/ Ona ta txarra nola diraden
gaude jakiñen gañian,
saiatutziak ez du balio
alferrikako lanian;
obra onetan saia gaitezen
oraiñ denbora danian,
kontu aundia eman biagu
Jaunaren tribunalian.

¹ Bertso-paperak: *kantatzeko grazia*.

3/ Gorputzagandik apartatzian
zer animaren larria,
konsideratzen jarri ezker
gauza ikaragarria;
gaiztoarentzat jakiña dago
kastigu izugarria,
Zeruko Aita, izan zazu arren
guzaz miserikordia.

4/ Sententzi ori emango digu
tokatzen zaigun moduan,
pensatzen ongi jarri ezker
zer arraiskoa dagan;²
gure kontuak eskribituak
egongo dira liburuan,
gezurrarekin libratutzerik
ezta izango orduan.

5/ Obe genduke ibilli txarrak
baldiñ bagiñu utziko,
zer estadutan arkitzen geran
dizutet erakutsiko;
mundu ontako izatea da
egiz denbora gutxiko,
deskuidatzen baldin bagera
galduak gera betiko.

² Bertso-paperak: *zer arraskoa dagoan.*

6/ Jesusek zenbat sufritu zuan
munduan guregaitan,
asko tormentu eta naigabe,
eztago ortan dudikan;
bizia kendu egin zioten
ainbeste erakutsita,
Kalbarioko mendi santuan
gurutze bati josita.

7/ Koro kruel bat arantzazkoa
jarri zioten buruan,
bi eskuetan iltze gogorak,
oñetan ere igual.
Nork esplikatatu zer tormentuak
pasa zituan orduan?
Bere Aitaren ordenetara
ala ere firme zeguan.

8/ Jesus orrela tratatutzea
ori dakigula gera,
bost milla azote eta geiago
eman zizkaten gañera;
ala ere eziñ aspertu ziran,
orra juduen kolera,
pekatarien itxutasuna
zeñen gogorra ote da?

- 9/ Gorputz guztia aragitua,
odola zerion fuerte,
juduak zeuden itxu ta gogor,
etzioten utzi ill arte;
guregaitikan sufritu zuen
zenbait pena ta oñaze,
pekatariak umil gaitezen
bada bildurtzeko ainbeste.
- 10/ Nere kristaubak, ez det itzegin
igaro ez dan gauzikan,
biotza erdibi egin diteke
kontu oietan asita;
Jesusek asko sufritu zuan
munduan guregaitika,³
berarengana biur gaitezen
ibilli txarrak utzita.
- 11/ Jesus umillak gure amorioz
dauzka besoak zabalik,
obe genduke gauz asko baño
au konsideratzen balitz;
abertenzian paraturikan
neri goguak eman dit,⁴
desprezio ta injuriarik
eztu merezi gugandik.

³ Bertso-paperak: *gure gaitican*.

⁴ Bertso-paperak: *emandic*.

12/ Mandamentuak guardatzeko
guri agindu zizkigun,
ez dakit zeñek biar bezela
egiten ote ditugun;
pikardia ta lasaikeria
besterik ezta ezagun,
nere kristauak, onaz aurrera
konsideratu dezagun.

13/ Obra onetan atzera gaude,
txarretan berriz lijero,
orretarako nere burua
sartu biar det primero;
gure artian gertatu oi da
amaika kontu-jenero,
biotza erdibi egin liteke
ongi pensatu ezkerro.

14/ Elizarako gogo gutxi ta
pronto juateko festara,
aita gure bat errezatzia
akordatuko ez gera;
gure anima gaixoak ala
ai zer nolako jornada,
pekatuaren mantxa gaiztoa
aborrezitzen ez bada.

15/ Su ta gar daude padezitzen
len infernuan daudenak,
berriz ez dauka ateratzerik
beñ ara juaten danak;
ez al du iñor ikaratuko
bersolarien esanak?
Konbertitzea deseatzten det
katolikoak geranak.

16/ Amasei bertso plantatu ditut
konbeni diran moduan,
pensatzen ongi jarri ezker
artu diteke buruan;
nere kristauak, onez aurrera
ibill gaitezen kontuan,
rezibituak izan gaitezen
Jaunaren tribunal santuan.

Bertso auek, bi tokitan arkitu ditugu:
Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman,
Tolosan: Eusebio Lopez-en Moldizteguien
inprentatutako paper batean; eta Usurbil'-
ko Egiluze-txiki'n, bertako Feliziano Aizpu-
rua'ren bitartez, *Donostian: V. Iraola-ren*
moldizkidan inprentatua. Bi argitaraldi, be-
raz; bañan aldaketarik gabe alkarren ar-
tean.

(1909)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Aurten milla ta bederatzi eun
ta bederatzigarren urtia,
Birjiñak bere entrañetatik
egin zubela Semia;
Espirituaren milagrozkko obra,
besterik parte gabia;
mundu ontako salbatzalle bat,
gure animen jabia;
katolikuak geren partetik
artu dezagun fedia.

- 2/ Zeruko Aitak bialdu zuben
salbatziatik munduba,
blasfemiyaz ta zikinkeriyaz
guztiya zegon galduba,
artu zezala bere kontura
gure animen karguba;
artzai bat ona izandu degu
leiala eta justuba,
bildots mansuak ara sartzeko
alkanzatu du zeruba.

- 3/ Gu salbatzera etorri zana
mundu ontara ori zan,
bere eriyotza disponituta
gurutze ortan jarri zan;
egindako obra sinistutzen det,
neroni bistan ez nitzan.
Bere gorputza ipiñi zuten
kristau leialen elizan,
dana guztiya ostiyan dago ta
dana guztiya kalizan.
- 4/ Birjiña Amaren sabelera zan
zerubetatik jetxiya,
mirari batez zan sortu
jaio ta aziya,
Adan da Ebaren pekatuaren
sendagarriya ¹.
Fede gabeko illuntasunak
kentzen dituben eguzkiya,
gu salbatzeko berak eman du
gurutzi ortan biziya.
- 5/ Izardi eta bere odolak
isuri ditu gugatik,
gure animak aienatzeko
diabruaren mendetik;
oraiñ zor ori paga zaiogun
bakoitzak bere aldetik,
bizitza ona eramanakin
justubak izatiagatik;
pekatariya, negar egizu
bi begiyakin gogotik.

¹ Bertso au orrelaxe dago kanta-paperean ere, noren erruz ez dakigu baña.

- 6/ Eska zaiogun biyotzetikan
eriyotzako orduban:
Damu det, Jauna, ofendituba
ainbeste aldiz munduban,
pekatariya izan naiz baña
sartu nai nuke zeruban.
San Pedro dago atietan da
San Migel berriz pisuban,
gure animak pasa biar du
gutziz paraje estuban.
- 7/ Bost pena triste pasia dago
gure Birjiña Maria,
kulpa geiago gabetandikan
auxen da paradoria;
estadu ortan dabilte Ama,
iltzez josita Semia,
zeru eta lur mundu ontako
gauza guziyen jabia;
kristau maitiak, esan dezagun
kredo batekin salbia.
- 8/ Komuniotik ikasi nuben
pekatariya nitzala,
partikularra ez naiz izandu
Luis Gonzaga bezela.
Gizonarentzat mundu tristi au
ain da ariña ta argala,
Jaun Zerukuak berekin dauzka
eguzkiya eta itzala,
konbeni bada falta guztiyak
erremidiya ditzala.

- 9/ Adan da Ebaren pekatu (b) onek
itxi zizkigun begiyak,
nonbait konbeni etzan izango
gu izatia argiyak.
Argatik gaude destiarruan
kastigatu ta jarriyak,
lurreko belar batzubek gera
Jaunaren pekatariyak,
aingerutikan apartatuta
egundañoko guztiyak.
- 10/ Guraso asko ikusten ditut
ejenplo txarrak zabaltzen:
azi gaiztuak kanpuan bildu,
fameliyara ekartzen,
blasfemiya eta zikinkeriya
mingañetikan botatzen,
Jaungoikoaren izen santuba au
maldeziyoka esaten;
zenbat ofensa ematen duten
ez dute asko pensatzen.
- 11/ Goizian jeiki ta gala daukate
maldeziyoka astia,
gosaitarako alde batera
beteko dute etxia;
aita dioska asiko da ta
semiak berriz ostia,
Euskalerrriyan zabaldu zaigu
usai gaiztoko pestia,
guraso orrek merezi luke
mingaña moztuta uztia.

- 12/ Bost bitarteko okupatze'ira
egitekua onekin,
zein diran ere esan biar det
iñork nai badu au jakin:
Jesus, Maria ta San Jose,
Santa Ana ta San Joakin,
berak diyote konpañi egiñ
nai lutekela gurekin,
pekatariyak erantzuten du:²
«Baita gu ere zubekin.»
- 13/ Nere kristabak, segi dezagun
asiyak gauden birian,
Luzifergandik apartatuta
Jaungoikoaren legian,
zeñen atsegin au izango dan
beraren tribunalian.
Aita San Pedrok sartu gaitzala
zerubetako atian,
gloriyak bertan goza ditzagun
danok konpañi batian.
- 14/ Zori oneko Ama maite bat
guk zerubetan badegu,
goizero beti egin zaiogun
biyotzetikan erregu;
biar bezela serbitu eta
ondo amatzen badegu,
amparatzalle bera izango da,
esperantzarik ez galdu,
iñor ez gera kondenatuko,
danok salbatu biegu.

2. Bertso-paperak: *pekatariya*.

- 15/ Pekatariyen gurasua da
gure Birjiña Maria,
eziñ billatu liteke iñon
laguntzalle bat obia;
berari ondo erregutzeko
enkargatzen det jendia,
danok ez gaitu galtzen utziko,
ori da gure jabia,
Ama enpeño ona izango da
gonbertitzeko semia.
- 16/ Mundu onetan pasatzen diran
atsegiñ eta gustuak,
danak guztiyak aztuko ditu
ango bizitza gozuak,
begiyen bistan ikusitzian
aingeru eta usuak,
lenago geren etxetik joanak,
ai, gure ume gaixoak;
artan allega gaitzala, amen,
Jaungoiko amorosoak.
- 17/ Jaungoikoaren izen santu (b) au
ain da ona ta aundiya,
kaburik iñon ez dubena da
arren miserikordiya;
eska zaiogun berari ondo
laguntzarekiñ graziya,
denborarekin etorriko da
oien guziyen sariya,
Aita Eternuak emango digu
Paraisuan tokiya.

18/ Pensatu nuben egun batian
bertso batzuek jartzia,
desiatzen det mundu guztiyak
estadu on bat artzia;
nere biyotzak guztiyentzako
badauka borondatia,
Gipuzkoa'ko naturala naiz,
Donostiya'ko semia,
iñork nai badu jakiñ:³
Franzisko Etxeberria.

Bertso auek, Donosti'ko Aiete ballaran bildu nituan, Oriamendi baserriko Segundo kalonje bertso-jartzalle ugariaren eskutik.

Paperaren beeko barrenean moldiztegiaren izena irakurtzen da: *Imprenta de Pozo. San Martín, 42.- San Sebastián.*

Egillearen izena azken bertsoak ematen digu: Franzisko Etxeberria. Alegia, Orio'n jaio ta gaur egunean Lasarte'n bizidan Patxi Etxeberria bertsolari ezaguna bezela.

Beste argibide bat ere badakarkigu: Franzisko Etxeberria ori donostiarra zala.

Bañan bertsolari orren beste aztarrenik ez degu orain arte iñun jaso eta ezin dezakegu aretzaz ezer ere esan.

³ Iru silaba falta dira lerro ontan. Bertso-paperean ere olaxe dago.

(1909)

BERTSO BERRIAK
ANZUOLA'KO AGUSTIN DE ARANA'K
JARRIAK

- 1/ Abenduko illaren
ogei ta amargarrena,
katolikuak junta bat
egin genduen;
egun orretan bertan
artu det ordena
bi bertso ipintzeko
alik onduena,
dotriña deklaratuaz
mandamentuena.

- 2/ Amar mandamentuak
nai det deklaratu,
kristauak, oriekin
ondo enteratu;
deabruak ez gaitzan
danok menderatu,
munduan geran artian
alkar anparatu,
anima ez daikigun
gaizki entregatu.

- 3/ Lendabiziko mandamentuan
biotzetikan asita,
gure Jainkoa ama dezagun
munduko gauzak utzita;
zeruko atea ez da egongo
guazeneko itxita,
mundu onetan zertan gaude gu
geren animaz etsita?
Jesusengana goazen zuzen,
eman daiogun bisita.
- 4/ Nere kristauak, konserba deigun
katolikuen legia,
batak bestia estimatuta
aumentatuaz fedia;
beti onela ibilli bage
askoz genduke obia,
peligro onetan ez deigun egin
anima miserabilia,
Judas gaiztoak ostu ez deigun
egin dezagun gordia.
- 5/ Donostia'ko zitudadian
katolikuen juntia,
Jesukristoren lege santuan
presentatu da jentia;
ponderatzeke esan dezagun
ziudade bat betia,
ekusten gendun nola zegoan
mandamentuen faltia,
estimatzen det ainbeste jente
fede orretan juntia.

- 6/ Zezen-plazia libre gendukan,
formatu gendun metiña,
katolikuen fabore giñan,
ori da gauza jakiña;
enemigua gure kontrara
aspaldin dago egiña,
garbitu bage ez degu utziko
artutzen degun eskiña,
oraingo onetan baja dezagun
etsaien lege zikiña.
- 7/ Bigarrenko mandamentuan
egon gaitian kontuan,
Jesusen kontra jaiki ez dedin
kontrako juramentuan,
gure anima ez deigun galdu
orlako fundamentuan,
persona asko arkitzen gera
txarreko pensamentuan,
orrelakorik etzuan jarri
Jesusen testamentuan.
- 8/ Lege gaiztoak bastante datoz
Frantzia'tikan asita,
gustora asko gelditu dira
eliza danak itxita;
jente guzia libertadian
mandamentuak utzita,
kalerik kale musika jotzen
burla egiñaz dabilta,
Jesusen berak konponduko'itu
kurutzetikan jetxita.

- 9/ Jaungoikoaren mandamentuan
ukatu arren Frantzia'n,
gure paisa portatuko da
euskaldunaren antzian;
gure Jesusen lege santua
ez deigun laga atzian,
galdu ez dedin gorde dezagun
bakoitzak bere etxian,
zein aldetara juango giñake
Salbadoria galtzian?
- 10/ Lenengotikan esamiñatu,
goazen konfesatzera,
gordeta dauden malizia oiek
garbiro deklaratzera;
pasadizuak ondo kontatu
utzi gaberik atzera,
konfesorian konsulta onak
jaso ditzagun etxera,
oien esanak kunpli ezkerro
errukarriak ez gera.
- 11/ Milla ta bederatzi
eungarren urtian,
katolikoak juntatu
gera Donostian;
Jesus argitzia
geren biotzian,
alegraturik gaude
bera ekustian,
gu salbatziagaitik
beran kurutzian.

12/ Irugarrengo mandamentuan
biar genduke portatu,
lendabiziko meza entzun da
gero Jainkoa amatu;
kulparik gabe gere anima
ez degu biar ondatu,
baldin enfermo gertatzen bada
aliko onduen sendatu,
Jesukristoren tribunalian
gero ez dedin sobratu.

13/ Nere kristauak, euki dezagun
atentzio bat aundia,
lendabiziko mantxak kendu ta
garbitu kontzientzia;
modu on baten eska deiogun
Jesusi pazientzia,
dudarik gabe emango digu,
badaukat konfiantzia,
Beragandikan logratuko da
konbeni zaigun guztia.

14/ Ignorante dijua
gure denboria,
zer dan ezagutzeke
eternidadia;
badakit izango dana
azkenik bagia,
konsideratu ezkeru
ikaragarria,
Jaunak izan dezala
miserikordia.

15/ Bostgarrenge mandamentuan
gorrotorik gabe
alkarri obeditzia
askoz degu obe;
konformatu gaitian
onela egon gabe,
baldin nai ezpadegu
infernuan erre,
anima kondenatzia
peligroan gaude.

16/ Konsideratzen jarri gaitian
munduan gauden artian,
batak bestiai barkatu eta
bizi gaitian pakian;
mundu onetan beti bagaude
geren buruen kaltian,
gure anima lotu baño len
diabruaren kation,
Josafat'eko zelai orretan
danok juntatu gaitian.

17/ Seigarrenge onetan
egon arren trebe,
pekatu aundia dala
jakiñian gaude;
errespeto aundian
biar degu gorde,
ibillitzen bagera
pekatu egin gabe,
kastigu danetatik
beti gera libre.

18/ Jesus maitea laguntzallea
beti daukegu munduan,
fabore asko egiten digu,
danak daukagu goguan;
galdu ez dedin artu dezagun
gere biotza onduan,
oso gustora eta pozikan
merezi duan moduan,
danok eskutik jasoko gaitu
gozatutzera zeruan.

19/ Zazpigarrengo onetan
daukagu guzia,
ez degu jaso biar
besteren gauzia;
badakigu ez dana libre
iñori ostia,
Jesusek egin ez deigun
gero justizia,
askoz obe genduke
pakian uztia.

20/ Pazientzian pasa dezagun
mundu onetako denbora,
Jesus maitiak bota ez gaitzan
konpañiatik kanpora,
bere etxian lekurik ez ta
deabruaren bankura;
orain artian modu onetan
ametitzia franko da,
amen dezagun biar bezela
gu salbatzeko pronto da.

21/ Ezagutzen badegu
munduko bizitza,
anima gorde daigun
guztiak utzita;
Jesus presente dago
zerutik jatxita,
guziak salbatzeko
ematen du itza,
Bera ofenditzeke
zuzen bagabiltza.

22/ Ogei bertso jarri ditut
euskera garbian,
presentatu diranak
nere memorian;
deseotan egon naiz
juan dan aspaldian,
gauza au publikatzeko
gure probintzian,
San Pedrok sartu gaitzala
zeruko glorian.

Bertso auek, *Bergara'n: Lopez'en etxean*
argitara eman ziran paperetan, eta oietako
ale bat Gregorio Mujika zanaren bilduman
agertu da.

Egillea nor dan, izenburuak esaten
digu: Anzuola'ko Agustin de Arana. Bañan
bertsolari orrezaz ez degu orain artean
ezer ere ikasi.

Bi gauza berezi baditu sail onek: amarreko txikiak eta aundiak nastuan daudela eta bi gai oso ezberdiñak erabilli dirala.

Lenengo gaia, Jaunaren legeko aginduak, 4, 8, 9 ta 10'garrena aitatzen ez baditu ere. Bigarren gaia, lenengo bertsoak esaten duana: «katolikuak junta bat egin genduena».

«Junta» ori, lenengo eta amaikagarren bertsoetatik ateratzen danez, 1909'ko abenduaren 30'an egin zan, Donostia'n. Orduko egunkarietan biltzar orren berri emango da noski.

(1910)

BERTSO BERRIAK
SAN FRANZISKOREN SEME LEIALAK
MUNDUKO ALDERDI GUZIETAN
EGIÑ OI DITUZTEN LAN ETA
KONBERTSIYOEN GAÑIAN IPIÑIAK

- 1/ Milla bederatzi eun ta
amargarren urtian,
bertso berriak jartzera nua
txit intentzio garbian,
zer gertatzen dan esplikatuaz
estranjeriko partian;
atentziyoz egon zaitezte
danak kontatu artian.

- 2/ San Franziskoren seme leialak
munduko lau partera
ebanjelioa predikatzer
propiyo ziraden atera,
guregatik Jesus nola ill zan
aditzera ematera;
aien fedia nolakoa dan
ortik kontubak atera.

3/ Beren biziyak arriskatuta
joan ziran bide luzian,
lendabiziko predikatutzen
ekin ziyoten Asia'n,
ango jendia jartziagatik
Jesus onaren legian;
bai jende asko konbertitu're,
ojala len jun izan bazian.¹

4/ Asia ortan leku askotan
etzegon kristandaderik,
beren artian pentsatzen zuten
iñun etzala oberik;
orañ bezela iñork etzekin
katolikoan legerik,
mundua mundu dan arteraño
ez da galduko federik.

5/ San Franziskoren seme oiek
ortan ziraden saiatu,
aiek zeukaten fediarekin
etzan posible fiyatu;
aurrera nola bizi bear zan
gañera ondo giyatu,
askoka milla omen ziraden
ondorian bataiatu.

¹ Bertso-paperak: *baziran*.

6/ Jesukristoren amoriyua
ezagutu zutenian,
errege asko kristau egin-ta
txit bizimodu onian,
konbentu ta elizak egiten
ekin ziyoten lanian;
milagro aundiyak egiten ditu
Jainkoak nai duanian.

7/ Relijiyua predikatutzen
asko saiatu bazian,
sinistamena bai sartu ere
jende askoren biyotzian;
asiatarrak gogor jarririk
fedesantuko itzian,
gero andikan Afrika'ra ta
Amerika'ra joan zian.²

8/ Animak salbatzearren ibi-
llirik millaka leguan,
an ere nunbait jendia oso
atzeratuba oi zeguan;
iñork berririk erakusten ez-ta
lengo legia goguan,
eziñ sinistu liteke orañ
zer diferentzi egin duan.

² Bertso-paperak onela ditu puntuak bertso ontan:
baziran, biyotzean, itzian, ziran.

9/ Predikatutzen asi ziraden
kulpitura igota:
Jesus gugatik nola ill zan
tormentu asko sufrituta;
sinisturik gelditu ziran
beriala kupituta,
zortzi egun barru jarri ziraden
millaka konbertituta.

10/ Gaur diferentzi aundiyak dira
paraje aietan ikusten,
konbentu ta eskola ederrak
beriala egin zituzten,
errege asko kristau eginta
fedeko gauzak ikasten,
urrutiko leku aietan
mirariyak ziran gertatzen.

11/ Ainbeste anima berenganatuta
ala ere kontentu etziran,
soldadu piñak diradelako
beñere aspertzen etziran;
atakerik izan ezkeru ez dira
egongo oso atzian,
Ozeania'n ere premia bazala ta
bertara pozez joan ziran.

12/ An ere predikatzen zuten
beste erriyetan bezela:
aiek zeukaten fediarekin
kalte aundiyak zetoze,
Jainkoaren lege santura
konbertitu zitezela,
bestela eternidade guziko
galdu bearko zutela.

13/ Aita oien esanak nunbait
sartu zitzaizten buruban,
bai makiña bat konbertitu're
beste erritako moduban;
an ere bataio gabeko
jende asko zeguan,³
linbora jun biar zuan pranko
sartu biar du zeruan.

14/ Jendia pranko ipiñi dute
relijiyoko lanetan,
gaiztuak berriz sufritu eziñik
egongo ziran penetan;
berak illtzeko pentsamentuba
bai artu ere benetan,
tentaziyua ez da paltako
sekula mundu onetan.

³ Bertso-paperak: *zegoan*.

15/ Estranjerira jun da egin ziran
anima askoren gidari,
konbertitu ere egin zituzten
makiña bat pekatari;
gaizkillientzat barkaziyua
eskatuaz danen Aitari,
beste geiagokin batera
Txina'n ill ziran martiri.

Bertso-papera, *Tolosa: F. Muguerzaren Moldizteguien* inprentatua. Paper ori bi tokitatik izan degu: Tolosa'ko Jose Maria Esnaola'ren eskutik eta Berriatu'ko Altza-legi baseritik, Ondarroa'ko Joxe Mari Etxaburu'ren bitartez.

Beste argitaraldi bat, *Guernica - Imp. de Angel de Goitia* moldiztegian egiña, Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu degu.

Oso neurri traketsa dute zenbait aldiz bertso auek. Bañan neurri zuzenean errex sartuko ditu edozein irakurlek.

AMAR MANDAMENTUAK

1/ Jaunak paratu ditu
amar mandamentu,
bat ere utzi gabe
egiteko kontu;
lendabizikotikan
Jaungoikoa amatu,
munduko interesagatik
ez ari faltatu.

2/ Adituko dezute
zer erraitera noan,
ez juramenturik egin,
arren, banoan;
Jesus eta Maria
iduki gogoan,
dakiguna erraitea
obe da klaroan.

3/ Jaiak eta igandeak
santifikatzeko,
sei egun ondotik
dire trabajatzeko;
elizara joan ta
Jaunari eskatzeko,
auxen degu bidia
anima salbatzeko.

4/ Laugarreneko ori
egia klaroa,
errespetu gurasoak,¹
gero zarragoak,
zergatikan diraden
aundiaguak,
Jesusen lege santuan
urbillenekuak.

5/ Bortzgarrena iñor ez ill,
gaitzik deseatu,
kontsentitzia beraz
egiten da bekatu;
etsairik aundiyenai
biotzetik barkatu,
bertzenaz ez gaitezke
sekulan salbatu.

¹ Bearbada, *errespetatu* bearko luke emen.

6/ Seigarreneko ori
lujuriakoa,
animaren galtzeko
pare gabekoa.
Gutaz urrikal zaite,
arren, Jaungoikoa,
nondik salba liteken
gu bezalakoa?

7/ Zazpigarrena ez ostu,
aiñ gutxi iduki,
bera ez duela
edozeñek daki;

... ..
... ..
... ..
... ..

8/ Zortzigarrena
falso testimonioa,
munduan ortarako
askok du ofizioa;

... ..
... ..
... ..
... ..

9/ Bederatzigarrena
senar-emaztena,
elkar ez estimatzeaz
sekulako pena;
elizan artzen dute
justua ordena,
kontuan ibiltzeko
munduan txur dena.

10/ Azkenekua da ta
adiñ onaz kontentu,
zer erraitera noan
egintzute kontu;

... ..
... ..
... ..
... ..

11/ Ez dakit ongi dituten
atera kontuak,
errepasatu ditut
amar manamenduak;
guztiok ikusten gaitu
gure Jesus santuak,
miserikordia gutaz,
barkatu bekatuak.

Bertso auek Urdazubi'n arkitu nituan, Juan Agirre Gaztanbide'ren kuaderno batean.


Juan Agirre onek, kuadernoa nun da noiz bukatu zuan ere idatzi zuan: *Urdax 12 de Enero de 1933*.

Iru bertso, 7, 8 eta 10'garrena, erdizka daude kuadernoan. Orregatik, utsune oiek puntuz idatzi ditugu.

Bertso auek kantatzeko doñu baten erdia, lenengo bertsoaren aurreko erdia alegia, Aita Donosti'k Lekarotz'en bildu zuan, eta bere *Euskel Eres Sorta* doñu-bilduman argitaratu, 181 zenbakian.

Azkue'k, berriz, bi doñu osorik bildu zituan; bañan bere kanta-bilduman argitara eman gabe utzi. Orain aren esku-idatzietan agertu dira.

Lenengo au, Erasun'en jaso zuan, Fermina Mokoroa'ren aotik:





Bigarrena Ezkurra'n jaso zuan, Mikaela
Telletxea'ren aotik:





BERTSO BERRIAK
INPERNUKO PENAREN
GAÑIAN JARRIAK

1/ Esplikatzera nua
inpernuko penak,
zer pasau biar daben
ara dijuanak.
Segun aditzen degun,
dirade geienak,
txit gutxi dirala
zerura juanak,
ez gaitzala eraman
infernura Jaunak.

2/ Inpernua da txito
toki itzaltsua,
alde guztietatik
garra eta sua,
gaiztuentzat dagan
kastigu osua,
finik iñoiz izango
ez daben plazua,
kontu, egin bagarik
arako pausua.

3/ Juizioko egunian
guztiok juzgaurik,
gaiztuek kenduko ditu
onaren artetik,
eta ipiñiko ditu
alde ezkerretatik;
gero ez dabe euko
beste anparurik,
akusatzen pekatuak
diabruak albotik.

4/ An akusauko dioz
bere falta danak
bizitzan egin zituen
gaiztorako lanak.
Sententziatuko du
Jesus gure Jaunak,
joateko gozaten
inpernuko penak,
sekula akaburik
izango ez dabenak.

5/ Inpernuko deabrua
bertan dago jarri,
noiz eman sententzia
Jaungoikuak ari.
Sententziaz batera
inpernura andik,
erre eta kiskaltzen
an biar du ari,
madarikazioakin
deadarrez alkarri.

- 6/ Inpernuko piztiak
eldura jatera, (*sic*)
ez batak bakarrikan,
guztiak batera.
Anparaziorik ez du
an iñori atera,
antes barrurau sartu
sierpen artera,
geure arimarekin
zer izango ete da?
- 7/ Tokatzen jakonari
joatia ara,
ikusiko dau zer dan
inpernuko garra.
Emen ez domatziarren
jenio zantarra,
betiko izan biar
an inpernutarra,
preziso jua biar
gaizki iltzen bada.
- 8/ Beste penen artian
pena itsusia:
Jaunaren arpegia
ezin ikusia.
An dira naigabeak,
an pena guztiak,
Luzifer inpernuko
euren nagusia,
finik izango ez daben
penazko bizia.

9/ Misericordia, arren,
Jaun amorosua,
ez gureztat itxaron
inpernuko sua.
An ez dabe izango
iñoiz kontentua,
milla urte pasauta ere
pena neketsua,
eta ezin ikusi
Jaungoiko altsua.

10/ Baldin esango balitz
an dagozanagaitik,
aterako dirala
inpernu artatik,
txori batek pikuan
daroian urakin
milla urtetik baten
itxaso nagositik,
agortu daienian
joan dirala andik,

11/ pozik egongo litekez
triste errukarriak,
baña betiko daude
onelan jarriak,
gautendu arte (*sic*)
eternidadeak;
ango penak dirade
parerik gabeak,
pena ta sentimentu
eta naigabeak.

12/ Milla milloe urte
pasatuagaitik,
an daudenak eztauko
andik urteterik.
Esperantza guztia
daukate galdurik,
ez dio suponitzen
obra onakgaitik,
ezin lagundu leio
mundu onetatik.

13/ Ea, gure jendiak,
akorda gaitian,
emen mundu onetan
gagozen artian.
Damu bizi sendo bat
artu biotzian,
gugaitik josi zalako
Jesus gurutzian,
Berak artu gaitzala
zeruko glorian.

Bertso auek, Gernika'ko Julio Bareño
jaunak bialdu zizkigun, 1959'ko otsaillaren
25'an. Aldi ontan etzigun esan noren aotik
jasoak zituan.

AMAR MANDAMENTUAK

- 1/ Bertso berri batzuek
nai ttunak ikasi,
amar mandamentuak
kantatzen naiz asi;
oiek dirakusgute
emen nola bizi,
nai badegu betiko
zerua irabazi.

- 2/ Mandamentu santutan
lendabizikoa:
biotzetik maitatu
gure Jaungoikoa,
beste jainkorik gabe
gurtu Jaun-Goikoa,
argan artzen dezula
biotz oso-osea.

3/ Bigarren aginduan
galaraztekoa,
zein gauza gaiztoa dan
esatera noa:
zin gaiztoaz galtzen da
anima gaixoa,
lekukotako jarriz
gure Jaungoikoa.

4/ Jaiek ta igandeak
gordetzea ongi,
larga premia gabe
lan egiteari;
Jaungoikoaren aintzat
meza entzun bedi,
bezperak ere guztiz ¹
on zaizkigu guri.

5/ Laugarren aginduak
beartutzen gaitu
zarragoen mendean
gaitean bizitu,
lagun urkoa legez
albaitan lagundu,
onetan eztezagun
Jauna naigabetu.

¹ Irugarrenko Prantzisko-tarra aldizkarian: bezperaz.

6/ Boskarren mandamentuz
oroi gaitez beti
eztezagun iñor il,
Jaungoikoagati;
nai badegu garbitu
pekatu ontati,
etsai aundienari
barkatu bertati.

7/ Seigarren mandamentuk
digu loikeria
debekutzen osoro;
utzi itz itsusia,
lasaikeri nabar ta
gogo oker guzia,
gorde dezagun beti
biotza garbia.

8/ Zazpigarrenak dio:
ezer ere ez ostu,
lagunaren kaltetan
eskurik ez sartu,
artuak jabeari
lenbaitlen biurtu,
emandako kalteak
ordaintzez ez aztu.

- 9/ Zortzigarrenak dio,
marmari gaiztoa
bazabiltza banatzen,
gauza izkutukoa
edo besteren utsa
ura galtzekoa,
utzi ta zuzentzeko
oraindañokoa.
- 10/ Bederatzigarrenak
-au dago azturik,
ez al da emen alako
zar edo gazterik!-
ez gero nai izateko
besteen emazterik,
bakoitzak eztu bear
bera besterik.
- 11/ Amargarrenak dio
begik ez jartzeko
besteen ondasunetan;
ez nai're izateko
besteren gauzarikan
batek beretako;
Jaunak emandakoaz
pozik egoteko.

12/ Amar agindu auek
gogoan artzazu,
lenengo iruetaz
Jauna maita zazu,
urrengo zazpik ere
ondo-ondo ikas tzazu;
amarrak bete ezkeroz
zerun sartu beazu.

Bertso auek, aldizkari batetik berezitako orri batean arkitu ditugu. Orri ori, Errenteri'-ko Jertrudis Arrieta zanaren eskutik jaso nuan.

Orriaren goenean onela irakurtzen da: *Prantzisko-tarra*. Gerra aurretik, kaputxi-noak *Irugarrengo prantzisko-tarra* aldizkaria ateratzen zuten. Bera izango da. Alegia, aurreko orriaren goenean, *Irugarrengo irakurriko* da.

Urtea-ta jakin nairik, Lekarotz'ko kaputxinoetara jo gendun. Badakik Aita Jorje Riezu-ta alegiñak egiñak dirala. Bañan aldizkari orren sorta osorik ez dute eta ezin esan izan didate, Errenteria'n bildu nuan orri ori noizkoa dan.

Aurretik onela dio: «Urrengo orrialdean dijoazen bertsoak Larraun'en kantatzen dira piskat aldaturik».

Gure betiko gaitza, beraz: erriaren gauzak ezin errespetatu; ta, gure-gureak balira bezela, kupira gabe aldatu eta narrastu.

Ikutu eta aldaketa oiek nabarmen dira emen ia bertso guzietan; eta ez itzetan bakarrik, baita esaldietan ere.

Esaldien bukaera puntuarekin batera izaten da beti edo geienetan bertsoetan. Bañan ori etzekian bertso auek «orraztu» zituana, ta naspil aundia sartu du.

Aita Donosti'ren *Euskal Eres Sorta* doñu-bilduman, 177 zenbakian, itz auek dituan doñua ematen zaigu, Ezkurra'n jaso:

Mandamentu santuetan
lendabizikoa:
biotzetikan amatu
gure Jaungoikoa;
idolorikan gabe,
au da kariñua,
guazen adoratzer
Jesus dibinoa,
Jaunak guretzat dauka
gloria eternoa.

Beste doñu bat, bertso onekin berarekin eta Baraibar'en jaso, 179 zenbakian ematen digu.

Bertso orrek eta sail ontako bigarrenak, erdia baño geiago berdintsua dute. Bañan batean zortzikoa da, ta bestean amarrekoa. Damurik, Aita Donosti'k ez digu beste bertsorik ematen.

(1932)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Milla ta beatzi eun
ogei t'amabian,
bertso batzuek abestu
nai ditut pakian;
Jaungoikuak laguntzen
diran bitartian,
zerbait esan nai nuke
gizonen artian,
ez det uste danikan
iñoren kaltian.

- 2/ Sinismen otzekuak
batzubek bagaude,
lastima da uztia
ezer esan gabe;
Jaungoikua badala
dudarikan gabe
prueba izugarriak
ludi ontan daude,
ikusiko ditugu
iñora juan gabe.

- 3/ Eguzki ta illargi,
izar da bestiak,
luditarrak egiñak
oriyek ezta;¹
baztar guztiak daude
mirariz betiak,
ez giñake biziko
oiek ez balia,
Jaungoikuak guretzat
egiñak baitia.
- 4/ Itxaso zabal eta
lur-zelai ederrak,
mendi galantak eta
zugaitz ta belarrak,
lur azpian dauzkagu
urre ta zillarrak,
burni, kobre ta ikatz,
beste mineralak,
oiek egin zituben
gure jabe danak.
- 5/ Itxaso, ibai ta errekan
diraden arraiak,
gizona mantentzeko
gauza egokiak;
legatz eta bixigu,
txipiroi ta amorraiak,
gure urdallarentzat
ai zer janariak,
Jaungoikuak egiñak
dirade guztiak.

¹ *Bertsolariya*'k: ez dia.

6/ Abere-mota pranko
badauka ludiak;
bei bikain, zaldi eder,
auntz eta ardiak;
ezin konta litezke
diraden piztiak,
gizonaren mendian
daude guztiak,
ala nai dubelako
Jaungoiko aundiak.

7/ Gizona egin zuben
graziz apaindua,
andre bat eman ziyon
bere mendekua;
biyaidi esan zien:
«Ni naiz Jaungoikua,
egin biar dezute
agindutakua,
eramanez bizitza
maitasunezkua.

8/ Izenez deitu zien
Adan eta Eba,
«Paradiso eder au ²
orain zubena da;
ez da ezerre falta,
txik leku ona da,
egiten badezute
agintzen dedana,
betiko bizitz ona
zuben eskuban da.

² *Bertsolariya'k: Paradiso ederran.*

- 9/ Ara emen arbol bat
sagarrez betia,
galerazten dizutet
ortikan jatia;
etorriko litzake
zuentzat kaltia,
gaitzak eta negarrak,
gañera iltzia,
gogorra izango da
ori gertatzia».
- 10/ Alaz guztiaz ere
jan zuten sagarra,
bertatik egin zien
Jaunak diadarra:
«Emendik daukazute
aldegin biarra,
kopeta izarditubaz
lan egin biarra,
laister dira zuen gain
gaitza ta negarra».
- 11/ Geroztikan bizi da
negarrez gizona,
egin etzubelako
Jaunaren esana;
artu dezagun bada
bire bat zuzena,
gure Jesus maitiak
ipiñi zubena,
irabaziko degu
galdu gendubena.

12/ Trinko daguen lurra
guk arrotzen degu,
nai degun azi-motak
ipintzen ditugu;
landare kementsubak
azitzen zaizkigu,
gero alez beteta
guretzat ditugu,
mirari bat ederra
ara nun daukagun.

13/ Azirikan ez balitz
landarerikan ez,
azi (y) oi ezta sortu
gizonen indarrez;
baizikan datorkigu
Jaungoikuaren legez,
arren mendian gaude
nai badegu edo ez,
ori tontua ez danak
ikusten du errez.

14/ Baita misteriyo bat
badegu aundiya:
Jesus zeruetatik
gugana etorriya;
mirariyak egiñaz
erakusten egiya,
oi t'amairu urtian
emen ibiliya,
gu salbatziagatik
gurutzian illa.

- 15/ Zerura abieran
au da esan zubena:
«Luditikan banua
ni Aitarengana;
laister etorriko naiz
ostera zubena,
ni aitortzen naubena
aukeratutzera,
eta gañerakuak
kastigatutzera».
- 16/ Sinisten eztubenak
beretzat kaltian,
artuko ez dalako
zeruko atian;
emen ibiltzen dana
beti illunpian,
argirikan ez dauka
bestera juatian,
orduban sartuko da
txik leku tristian.
- 17/ Baldin gelditzen bada
zerutik kanpuan,
ludi (y) ontatik garbi
ez dalako juan,
atsekabe aundiyak
daduzka buruban,
negarra besterikan
ez du inguruban,
bizi-modu tristia
dago infernuban.

18/ Sinista zagun bada
dudarikan gabe,
Jaungoikua degula
ludi onen jabe;
bera agurtutzia
biartubak gaude,
baldin adimenetik
zintzuak bagaude,
gelditu ez gaitezen
zerura juan gabe.

Emezortzi bertso auek bi tokitan arkitu ditugu: *Bertsolariya* aldizkarian, 51 zenbakian, 1932'ko Agorrillaren 4'an, eta *Argia* aldizkarian, 1933'ko Azaroaren 19'an. Alkarren artean aldaketarik ez dute.

Errenteria'ko Jose Goñi'ren eskutik jaso genduan eta moldiztegi-izenik ez duan bertso-paper batean, sail ontako amar bertso. Lenengo, sei auek: 1, 2, 3, 4, 6 eta 7'garrena. Ondoren, lau bertso berri. Eta, azkenik, beste lau auek: 15, 16, 17 eta 18'garrena.

Aldaketak: 2/1: Siñismen gutxikuak; 4/7: diamante ta kobre; 15/1: Zerura igorran; 15/10: kondenatutzera; 16/3: sartuko ez dalako; 18/1: siñistu zagun bada.

Bertsoen bukaeran, firma bezela: *Billa-bona'tar batek jarriak*.

Eta berriak, onako bertso auek:

Bañan etzuten egin
agindutakua,
baizik erori ziran
biak pekatuan;
negar gogor egiñaz
al zuten moduban,
laxter paradisotik
ziraden kanpuan;
eskerrak etzerala
sartu inpernuban.

Geroztikan gizona
negarrez bizi zan,
orregatikan Jesus
ludira jetxi zan;
ogei ta amairu urtian
emen ibilli zan,
mirariak egiñaz
gizonen peskizan,
gu salbatziagatik
gurutzian ill zan.

Gurutzetik jetxita
al zan azkarrena
arkaitz-zulo batian
jarri zuten bera;
iskiñetan guardiak
etzedin atera,
bañan lo artu zuten
guztiak batera,
Jesusek etzuben nai
aiek ikustea.

Gure Jesus maitia
ondoren pixtu zan,
arri azpi artatik
arin atera zan;
berrogei egunian
emen ibilli zan,
bere apostoluak
oso maite izan,
Seme Jaungoiko zala
garbi azaldu zan.

BERTSO BERRIAK
ERNIO'KO PEREGRINAZIYUAREN
GAÑIAN JARRIAK

- 1/ Bertso berriak ipiñitzeko
nik daukadan alderdiya,¹
obra ona egiten asiko danak
utzi bear soberbiya;
Aita San Luis adoratzeko
preziso nai guardiia,
erakusteko konbeni dana
esplikaziyo garbiya,
Zeruko Aita, desiatzen det
entendimentuko argiia.
- 2/ Peregrinaziyo bat izan da
Erniyo'ko gurutzian,
Aia, Zizurkil, Astiasu,
Larraul ta Alkiza an zian;
Aita San Luis asarretzen da
relijiyua aitzian,
konsideratu bear degula
zeñek bere biotzian,
ordena degu ez faltatzeko
fede santuko itzian.

¹ Bertso-paperak: *daukan*.

- 3/ Ministro batzuek pentsatu due:
«Goazen Erniyo mendia,
Aita San Luis adoratzeko
estaziyuak an dia».
Andikan bueltan S. Igo. elizara (sic)
meza entzutera jua dia,
barrena sartu, belaunikatu,
eiñ deboziyo aundia,
Aia'ko alkate jaunaren mende
toki askotako jendia.
- 4/ Esan moduan bost erri oiek ²
obra au dirijitu zuen,
berrizko ere merezi duen
onrak emanaz guazen;
giyari onak bere kuadrilla
manejatzen du ain zuzen,
ejenplo onak erakusten da
bestiak ikasi dezen,
Aizarna'n dagon ministro batek e
akonpañatu giñuzen.
- 5/ D. Sebero da meza eman duna,
Aia'ko sazerdotia,
beste erretore bat fortunatu da
Alzola'tikan juatia;
disponitu du pulpitora iyo
sermoi ederra eitia,
kosta zitzaion erakusteko
ejenplua ematia,
Abe Maria bezelakua,
dana graziaz betia.

² Bertso-paperak: *Esan modu bost erri oyek.*

- 6/ Atsegiñ asko artu giñokan
aien orduko graziyai,
erakutsiya ondo ikastia
tokatzen zaku biziyai;
ez segitzeko mundu ontako
tranpari ta maliziyai,
eta uzteko bide gaiztuan
dabilen irabaziyai,
enkargu ori an eman zigun
ministruai ta guziyai.³
- 7/ Asko giñan gu ministro oiri
graziyak eman biarrak,
etsai guziyak zapaldu zitun
birtutiaren indarrak;
elizatikan irten giñan da
an ziran soñu ederrak,
onratu gaitu Azkoitiya'ko
dultzaiñak eta danborrak,
andik aurrera ez giñan egon
enemiguen bildurrak.
- 8/ Funtziyo ori zeledratu da
San Juan aurreko jayian,
bi bertsolari juntatu giñan
ondo itzegiñ nayian;
zori onian sartu giñan gu
alako konpañiyian,
bazkari ederra eman digute
Iturriotz'ko mayian,
borondatia erakutsiyaz
ipiñi zuten gayian.

³ Bertso-paperak: *guziyoi*.

- 9/ Bazkaldu eta altxa giñan da
jendiaren kontentuba,
ministro oiek beti badue
fediaren aumentuba;
billatu zuten Aita San Luis
adoratzeko puntuba,
Astiasu'ko erretoriak
egin du pulamentuba,
erratu gabe errezatu du
errosario santuba.
- 10/ Aia'ko erretoriak pronto
zeguan ondoren asteko,
pulpitotikan predikatu du
zenbat arrazoi gustoko;
grazi aparte biar du batek
jendia ala eroteko,
maisua ona da fede santuko
dotriña erakusteko,
ni beintzat pozak gelditu nitzan
berriz ala ikusteko.
- 11/ Dibersiyua nola izango zan
esan ziguen astetik,
okerrik iñork eztegu izan
egun artako festatik;
ari-jokua momentu batez,
korrikariya bestetik,
gaur edo biyar izan etzediñ
gure artian disputik,
duro batzuek jaso giñuzen
alkatiaren eskutik.

12/ Oso gustora egiñ genduben
Iturriotz'ko partera,
guk an giñuen ministro jaunak
errespetokuak dira;
beragatikan eragin zuben
garai oneko erretira,
iñor ez giñan andikan bueltan
gure pausuen kupira,
pake-pakian etorri giñan
bakoitza bere tokira.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea.
Egillearenik ere ez du. Eta ez nuan idatzi
nork eman zidan.

* * *

Bertso auen egillea, urtea eta gañontze-
ko argibideak biltzeko lana, Aia'ko Joxe
Mari Lertxundi bertsolariaren gain utzi
nuan, bertsoak bialduta.

Erantzun zidanez, Aia'ko eta Asteasu'ko
zaarretan ez du arkitu peregrinazio au eza-
gutu zuanik edo artaz oroitzen danik. Ezta
bertso auen egillearen berri eman dionik.
Ezta urtearenik ere.


Bostgarren bertsoan, apaiz baten izena
aitatzen da: Don Sebero.


Don Sebero Eizagirre zan, Aia'ko semea, ta bertan, koadjutore bezela, urte asko egin zituana. Garai artan lau apaiz izaten omen ziran Aia'n. Bertan il zan, orain ogei ta amar bat urte, larogei ta zazpi urte zituala.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garretetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zampirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.

136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).





AUSPOA
LIBURUTEGIA